“Finkatze fasea: antolaketa eta kudeaketa aurreratua” **ikastaroak, zure ikastetxearen antolaketa eta kudeaketa eraginkorra bermatzeko tresnak eta metodologiak eskaintzen dizkizu**. Finkatze Fasean, **Kudeaketa Aurreratuaren eredia ezagutuko duzu**, ikastetxearen autonomiaren markoan. Formakuntza honek, eraginkortasuna eta arintasuna handitzeko prozesuak eta prozedurak aztertuz, ikastetxeko antolaketan duten garrantziaz ohartaraziko zaitu.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek **autonomia eta antolaketaren arteko lotura** landuko duzue, **denboraren kudeaketa eta kudeaketa aurreratuaren eredia** ezagutuz. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, esperientzia arrakastatsuak elkartrukatzeko eta ikastetxeen arteko elkarlana bultzatzeko.

Metodologia parte-hartzailea eta elkarlana sustatuko dira. Saioetan, elkarrizketa-azalpenak, banakako eta taldeko lanak, eta kasuen azterketak egingo dira. Partekatzearen hausnartzearen eta adituen ekarpenen bidez ikastea sustatuko da, ikastetxeko antolaketan hobekuntzak lortzeko helburuarekin.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Kudeaketa aurreratuaren eredia ezagutzea eta aplikatzea.
- ✓ Eraginkortasuna eta arintasuna handitzeko prozesuen garrantziaz jabetzea.



- ✓ Denboraren kudeaketa hobetzea.
- ✓ Antolaketa orekatua eta eraginkorra bermatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Kudeaketa eraginkorra eta antolaketa hobetzea.
- ✓ Prozesu eta prozedura eraginkorrak ezartzea.
- ✓ Denboraren kudeaketa eraginkorra bermatzea.
- ✓ Ikastetxeko antolaketa orekatua eta eraginkorra izatea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau merezimendu-lehiaketan parte hartuko duten irakasleentzat eta ez ohiko izendapenean dauden zuzendarientzat zuzenduta dago. Parte hartzen dutenek prestakuntza saioetan aktiboki parte hartzeko eta ikasitakoa ikastetxean aplikatzeko konpromisoa hartzen dute.

Arduraduna

Aitor Santxo Falcón; Berritzegune Nagusiko Lidergo pedagogikoan eta hezkuntza eraldaketa esparruko aholkularia; bneskolaantolamendua1@berritzeguneak.eus ; bnlidergoa@berritzeguneak.eus 747426380

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa **aurrez aurre** egingo da, eta **20 orduko** iraupena izango du, eta datak hurrengoak dira: martxoak 31a, apirilak 1a eta 2a. Parte-hartzaileek **izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez** egingo dute.

Idazkaritza: b07getxo@berritzeguneak.eus; bnlidergoa@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ ZEB_HPPE](#)

[↑ Lehenengo begirada](#)

HITZEKO KOMUNIKAZIORAKO MODUAK: AHOZKO KOMUNIKAZIOA monografikoa

Deskribapen orokorra

"Hitzeko komunikaziorako moduak: Ahozko Komunikazioa" monografikoak EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeen eta zuzendaritza-funtzioa betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoan dauden irakasleen ahalduntzea eta trebakuntza du helburu. Monografiko honek **zuzendaritza-proiektuak jendaurrean aurkezteko trebetasunak garatzea eta ahozko komunikazioan arrakasta izateko estrategiak eskaintzea** du xede.



Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek **jendaurreko jardunean arrakasta izateko estrategiak eta baliabideak landu**ko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, **adituen ekarpenen bidez** eta parte-hartzaileek egindako aurkezpenen bidez.

Metodologia adituen ekarpenak, elkarrizketa-azalpenak eta banakako nahiz taldeko dinamika parte-hartzaileak uztartuz garatuko da. Saioetan landutako gaiak banaka eta taldeka lantzeko aukera izango dute parte-hartzaileek, zuzendaritza proiektuak aurkezteko trebetasunak garatuz eta beharrezko aldaketak eginez.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Jendurrean zuzendaritza-proiektuak aurkezteko trebetasunak garatzea.
- ✓ Jendurreko jardunean arrakasta izateko estrategiak eta baliabideak ikastea.
- ✓ Ahozko komunikazioan eraginkortasuna lortzeko tresnak eskuratzea.
- ✓ Jendurrean hitz egiteko beldurra eta urduritasuna gainditzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Zuzendaritza-proiektuak jendurrean aurkezteko trebetasunak hobetzea.
- ✓ Jendurreko jardunean arrakasta izateko estrategiak ikastetxean aplikatzea.
- ✓ Ahozko komunikazioaren eraginkortasuna hobetzea ikastetxean.
- ✓ Parte-hartzaileen konfiantza eta segurtasuna areagotzea jendurrean hitz egiteko orduan.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau merezimendu-lehiaketan parte hartuko duten irakasleentzat eta ez ohiko izendapenean dauden zuzendarientzat zuzenduta dago. Parte hartzen dutenek prestakuntza saioetan aktiboki parte hartzeko eta ikasitakoa ikastetxean aplikatzeko konpromisoa hartzen dute.

Arduraduna

Ana Iturbe Herrera; Berritzegune Nagusiko Lidergo pedagogikoan eta hezkuntza eraldaketa esparruko koordinatzailea a.iturbe@berritzeguneak.eus; bnlidergoa@berritzeguneak.eus ; 944288188 / 688623574
Monografiko honetan IRALE zerbitzuko lankideek parte hartuko dute aditu moduan.

Antolaketa-alderdiak

Monografikoa **aurrez aurre** egingo da eta **5 orduko** iraupena izango du. Saioa **urtarrilaren 29an** izango da, **lekua zehazteke** dago. Parte-hartzaileek adituen ekarpenak, elkarrizketa-azalpenak eta banakako nahiz



taldeko dinamika parte-hartzaileak izango dituzte. **Prestakuntzaren ondoren, ikastetxeek ezarpenerako jarraipena eskatzeko aukera izango dute. Izena ematea ofizioz egingo da.**

Idazkaritza: b07getxo@berritzeguneak.eus; bnlidergo@berritzeguneak.eus) → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ ZEB HPPE](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

Zuzendaritza-taldeentzako etengabeko formakuntza

ZUZENDARIEN MINTEGIAK

Deskribapen orokorra

"Zuzendarien Mintegiak" ikastetxe publikoetako zuzendarien kompetentziak garatzea du helburu, lidergo pedagogikoaren kalitatea hobetuz ikasleen eskola emaitzak eta hezkuntza arrakasta hobetzeko. Mintegien zehar, **identifikatutako beharrak asetzeko edukiak landuko dira, zuzendarien praktika multzoekin modu orekatuan lerrokatuta.**

Mintegiak hainbat eduki teoriko eta praktikoa landuko ditu, hala nola, **ikastetxe publikoen antolaketa eta kudeaketa, baliabideen kudeaketa, hezkuntza kalitatea eta ebaluazioa, zuzendaritza eraldatzailea eta berritzailea, eta zuzendaritza proiektuen jarraipena eta eguneraketa.**

Metodologia parte-hartzea, elkarriketa eta elkarlana ardatz dituzten kompetentzien garapenean oinarritzen da. Elkarriketa-azalpenak, banakako eta taldeko lanak, eta kasuen azterketak egingo dira, zure eguneroko jardunean aplikatu ahal izateko tresnak eskuratuz. Partekatzearen hausnartzearen eta adituak diren pertsona batzuen ekarpenen bidez ikastea sustatuko da.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko beharrezko kompetentziak garatzea.
- ✓ Lidergo pedagogikoaren kalitatea hobetzea.
- ✓ Ikasleen eskola emaitzak eta hezkuntza arrakasta hobetzea.
- ✓ Zuzendaritza-proiektuen jarraipena eta eguneraketa.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasleen eskola emaitzak hobetzea.
- ✓ Ikasleen hezkuntza arrakasta hobetzea.
- ✓ Lidergo pedagogikoaren kalitatearen hobekuntza ikastetxean.



- ✓ Zuzendaritza-proiektuen eraginkortasuna eta jarraipena.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau unibertsitaterik kanpoko ikastetxe publikoko zuzendarientzat zuzenduta dago (Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuarena eta Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuena izan ezik). Parte hartzen dutenek prestakuntza saioetan aktiboki parte hartzeko eta ikasitakoa ikastetxean aplikatzeko konpromisoa hartzen dute.

Arduraduna

Iñaki Ruiz Estornel; Berritzegune Nagusiko Lidergo pedagogikoan eta hezkuntza eraldaketa esparruko aholkularia bnkalitatea@berritzeguneak.eus ; bnlidergoa@berritzeguneak.eus [627231284](tel:627231284)

Antolaketa-alderdiak

Mintegiak **aurrez aurre** eta **online** egingo dira, eta **15 orduko** iraupena izango dute. Eraginguneka antolatuko dira, eragingune bakoitzean bi ordu terdiko bost saio urritik maiatza bitartean:

- Bizkaiko eragingunak: Urriak 3, Azaroak 21, Otsailak 27, Maiatzak 15, Ekainak 12
- Araba eta Gipuzkoako eragingunak: Irailak 26, Azaroak 14, Otsailak 20, Maiatzak 8, Ekainak 5

Parte-hartzaileek **izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez** egingo dute.

Idazkaritza: b07getxo@berritzeguneak.eus; bnlidergoa@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ lehenengo begirada](#)

IKASKETABURUEN MINTEGIA

Deskribapen orokorra

Ikasketaburuen eginkizuna betetzeko konpetentziak garatzea ezinbestekoa da ikastetxeen lidergo pedagogikoa hobetzeko eta ikasleen eskola emaitzak eta hezkuntza arrakasta bermatzeko. Ikasketaburuen Mintegiak helburu horiek lortzea du xede, identifikatutako beharrak asetzeko edukiak landuz. **Ikasketaburuen eguneroko jarduna eraginkorragoa** izatea nahi dugu, lidergo partekatua garatuz eta praktika onak partekatuz.

Mintegian zehar, ikasketaburuek **lidergo pedagogikoa**, **ikasleen emaitzen hobekuntza** eta **hezkuntza arrakasta** landuko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta banakako zein taldeko lanak egingo dira, eguneroko jardunean aplikatu ahal izateko tresnak eskuratuz. Elkarriketa-azalpenak, kasuen azterketak eta taldeko dinamika parte-hartzaileak erabiliko dira.



Metodologia parte-hartzailea eta elkarlana sustatzen dituen izango da. Partekatzearen hausnartzearen eta adituak diren pertsona batzuen ekarpenen bidez ikastea sustatuko da, eta saioretan landutako gaiak banaka eta taldeka aztertuko dira. Horrela, ikasketaburuek beraien kompetentziak hobetuko dituzte eta ikastetxeen antolaketa eta lidergoa indartuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Ikasketaburuen eginkizuna betetzeko kompetentziak garatzea.
- ✓ Lidergo pedagogikoaren kalitatea hobetzea.
- ✓ Ikasleen eskola emaitzak eta hezkuntza arrakasta hobetzea.
- ✓ Eguneroko jardunean aplikatu ahal izateko tresnak eskuratzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasleen eskola emaitzak hobetzea.
- ✓ Ikasleen hezkuntza arrakasta hobetzea.
- ✓ Lidergo pedagogikoaren kalitatearen hobekuntza ikastetxean.
- ✓ Ikasketaburuen kompetentzien hobekuntza eta jardunaren eraginkortasuna.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko guztietako ikasketaburuei zuzenduta dago (Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuarena eta Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuena izan ezik). Parte hartzen duten ikastetxeek ikasitakoa klaustroan partekatzeko eta praktikan jartzeko konpromisoa hartzen dute.

Arduraduna

Irene Lezea Urrutia; Berritzegune Nagusiko Lidergo pedagogikoan eta hezkuntza eraldaketa esparruko aholkularia irene.lezea@berritzeguneak.eus; bnlidergoa@berritzeguneak.eus [627231284](tel:627231284)

Antolaketa-alderdiak

Abiapuntua: Lehenengo momentu batean, ikastetxeen behar edo interesguneak identifikatu dira. Horretarako, alde batetik, aurreko ikasturteko balorazio inkestak erabili dira eta bestetik, EHUko adituen laguntzarekin fluxugrama teknika erabiliz lehentasunak antzeman dira. Hau lurralde ezberdinetako 30 ikasketa buruko lagin baten bitartez burutu da.

1. Fasea: Beharren detekzioaren deboluzioa



Online saioa. Ikasketa buruen mintegiaren azalpena eta ibilbidea. Urriak 10:

Saio monografikoa: Aurreko fasean identifikatutako alderdien deboluzioa EHUren eskutik.

Urriak 23. Bizkaian. Unamuno BHI.

Urriak 24. Araban. Gasteizko berritzegunea.

Urriak 25. Gipuzkoan. EHUko Barriola aretoa. Donostia.

2. Fasea: Mintegien garapena eraginguneka.

3. Fasea: Ondorioak eta itxiera

Eraginguneka saio presentzialak:

- Araban eta Gipuzkoan: urriak 31, urtarrilak 16, martxoak 20, maiatzak 22
- Bizkaian: arazoak 7, urtarrilak 23, martxoak 27, maiatzak 29

Ikastaroa aurrez aurre eta online egingo da, eta 15 orduko iraupena izango du.

Parte-hartzaileek izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez egingo dute.

Idazkaritza: b07getxo@berritzeguneak.eus; bnlidergoa@berritzeguneak.eus) → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ lehenengo begirada](#)

ZUZENDARITZEN ARTEKO IKASKUNTZA. MENTORETZA

Deskribapen orokorra

"Mentoretza: Berdinen Arteko Ikaskuntza" zuzendaritza-eginkizuna garatzeko konpetentziak hobetzea, eguneroko praktikaren hausnarketa egitea eta zuzendaritza-taldeak ahalduntzea du helburu. Mentoretza bidez, **zuzendaritzan eskarmentua duten zuzendariak eta hasi berriak diren zuzendariak elkarrekin ikasteko eta esperientziak trukatzeko aukera** izango dute.

Mentoretza zehar, **zuzendaritza funtzioaren marko konpetentziala oinarri hartuta jarduerak burutuko dira**. Parte-hartzaileek berdinen arteko **ezagutza eta esperientzien transmisioa** egingo dute, eta **eguneroko praktikaren hausnarketa** bultzatuko da. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, **zuzendaritzan hasi berriek behar dituzten tresnak eskuratuz eta esperientzia duten zuzendarien laguntza jasoz**.



Metodologia prozesu planifikatu batean oinarritzen da, berdinen arteko ikaskuntza sustatuz. Jarduerak aurrez zehaztutako kronograma batetik abiatuta burutuko dira, **ikasturte osorako planifikatuta. Jarduerak ikastetxeetan egingo dira, eta online saioak ere** izango dira. Hausnarketa eta elkarlanaren bidez, praktiken hobekuntza eta zuzendaritza-taldeen ahalduntzea lortuko dira.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Zuzendaritza-eginkizuna garatzeko konpetentziak hobetzea.
- ✓ Eguneroko praktikaren hausnarketa egitea.
- ✓ Zuzendaritza-taldeak ahalduntzea.
- ✓ Berdinen arteko ezagutzaren transmisioa egitea

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Zuzendaritza-eginkizuna modu eraginkorrean garatzea.
- ✓ Eguneroko praktiken hobekuntza.
- ✓ Zuzendaritza-taldeen ahalduntzea eta motibazioa handitzea.
- ✓ Berdinen arteko ezagutzaren transmisioa indartzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau zuzendaritzan eskarmentua duten zuzendarietara eta zuzendaritza proiektua aurkeztu duten zuzendaritza hasi berriei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek mentoretza prozesuan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartzen dute..

Arduraduna

Hezkuntza ikuskaritza eta BN lidergo pedagogikoa (bnlidergoa@berritzeguneak.eus)..

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa **aurrez aurre** eta **online** egingo da, eta **ikasturte osoan zehar** luzatuko da. Kronograma honakoa izango da:

- Hilean behin: Mentoretza saioak.
- Aurrez aurre: Parte hartzen duten kideen ikastetxeetan.
- Online: Saio osagarriak.

Parte-hartzaileek **izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez** egingo dute.



Idazkaritza: b07getxo@berritzeguneak.eus; bnlidergoa@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ lehenengo begirada](#)

BeAk trebatzen programa

HASIERAKO FORMAKUNTZA-IKASTAROA (23-24 ikasturteko Murgiltze Astearen parekoa)

Deskribapen orokorra

"Hasierako Formakuntza-Ikastaroa" **BeA figura berrientzako eta eskarmentudunentzat zuzenduta** dago, BeA figuraren rola funtsezko alderdiak eta eginkizunak eraginkortasunez betetzeko behar diren oinarrizko tresnak eta trebetasunak jasotzeko. Ikastaro honetan, parte-hartzaileek **BeA figuraren erronka eta zeregin** berriak **aztertuko** dituzte, eta **harrera-prozesu eraginkorra** eta lankidetzan ikasteko eta garapen profesionalerako etengabeko aukerak bermatuko dira. Helburua hasierako eta etengabeko formakuntza sendoa eskaintzea da.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek BeA figuraren oinarrizko tresnak eta trebetasunak eskuratuko dituzte, eta proposatzen diren erronka eta zeregin berriekin lanean hasiko dira. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta BeA figuraren funtzioak eguneroko lanean integratzeko konpromisoa hartuko dute. Ikastaroa **aurrez aurrekoa** izango da, aurrez aurre eta online formatuan.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ BeA figuraren rola funtsezko alderdiak eta eginkizunak eraginkortasunez betetzeko oinarrizko tresnak eta trebetasunak jasotzea.
- ✓ 2024-2025 ikasturterako proposatzen diren erronka eta zeregin berriekin lanean hasia.
- ✓ Hasierako eta etengabeko formakuntza sendoa bermatzea, BeA figura berrientzako harrera-prozesu eraginkorra eta eskarmentudunekin lankidetzan ikasteko eta garapen profesionalerako etengabeko aukerak ahalbidetzea.
- ✓ BeA figurak ikastetxeko eguneroko lanean integratzea eta irakasle-taldeari transmititzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ BeA figuraren rola eraginkortasunez betetzea ikastetxean.
- ✓ Irakasleen arteko elkarlana eta kooperazioa hobetzea.
- ✓ BeA figuraren ezagutzak eta trebetasunak ikastetxeko eguneroko lanean integratzea.
- ✓ Ikasleen emaitza akademikoen hobekuntza BeA figuraren bidez.



Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau **BeA figura berriei eta eskarmentudunei** zuzenduta dago, eta **parte hartzea derrigorrezkoa** da. Parte hartzen duten ikastetxeek konpromisoa hartzen dute derrigorrezko formakuntza-jarduera bakoitzerako %80ra joateko. BeA figurek eskuratutako ezagutzak praktikan jartzeko eta irakasle-taldeari transmititzeko eta ikastetxeko eguneroko lanean integartzeko konpromisoa hartzen dute.

Arduraduna

Aitor Albizu Intxausti ([.aitor.albizu@berritzeguneak.eus](mailto:aitor.albizu@berritzeguneak.eus)) eta Mikel Santaquiteria Eguaras (m.santaquiteria.e@berritzeguneak.eus), Berritzegune Nagusiko *Irakaskuntza-konpetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak* esparruko aholkulariak, jardueraren arduradunak dira.

Antolaketa-alderdiak

BeA figura berrientzat ikastaroak **25 orduko** iraupena izango du eta **eskarmentudunentzat 10 ordukoa**. Ikastaroa **aurrez aurrekoa** izango da guztientzat.

BeA figura berrien kasuan, **lurraldeka** antolatuko da ikastaroaren lehen zatia **eta irailaren 24an, 25ean eta 26an** egingo da. Lekuak zehazteke daude.

Ikastaroaren bigarren zatian, Bea figura berriak eta eskarmentudunak bilduko dira, guztiak batera eta **eraginguneka antolatuta**, irailaren 30ean eta urriaren 1ean Araba eta Gipuzkoako eraginguneetan eta urriaren 2an eta 3an Bizkaiko eraginguneetan.

Izena ematea ofizioz egingo da.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ BeAk Trebatzen](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

BeA FIGUREN MINTEGIAK

Deskribapen orokorra

BeA figuraren eginkizunak eta erronkak gero eta konplexuagoak dira eta horiek arrakastaz betetzeko beharrezkoa da etengabeko prestakuntza eta esperientzien trukea. "BeA Figuren Mintegiak" helburu du **BeA figura berriek eta eskarmentudunek elkarrekin eta elkarrengandik ikastea, esperientziak partekatuz eta sare profesionalak eraikiz**. Formakuntza honek hezkuntza-komunitatearen barruan kolaborazioa eta kohesioa sustatuko ditu.



Mintegian zehar, parte-hartzaileek **BeA figuraren eguneroko erronkak eta zereginak landuko** dituzte, esperientzia praktikoak eta teoria uztartuz. Eduki teorikoak eta praktikoak barne hartuko ditu eta elkarlana eta parte-hartzea sustatuko dira. BeA figura berriek eskarmentudunekin esperientziak partekatze eta praktika onak elkartrukatzeko aukera izango dute.

Metodologia parte-hartzailea eta elkarlana oinarri hartuta garatuko da. Saioetan, taldeko dinamikak, kasuen azterketak eta eztabaidak egingo dira, parte-hartzaileen arteko elkarlana eta ikaskuntza kooperatiboa sustatzeko. Ikasitakoa eguneroko lanean aplikatzeko konpromisoa hartuko dute parte-hartzaileek.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ BeA figura berriek eta eskarmentudunek elkarrekin ikastea eta esperientziak partekatzea.
- ✓ Hezkuntza-komunitatearen barruan sare profesionalak eraikitzea.
- ✓ BeA figuraren eguneroko erronkak eta zereginak eraginkortasunez betetzea.
- ✓ BeA figuraren rola indartzea eta kohesioa sustatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ BeA figuraren rola eraginkortasunez betetzea.
- ✓ Eskuratutako ezagutzak irakasle-taldeari transmititzea.
- ✓ Ikastetxeko eguneroko lanean eskuratutako ezagutzak integratzea.
- ✓ BeA figuraren eta irakasle-taldearen arteko kohesioa eta lankidetzeta hobetzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau BeA figurari zuzenduta dago, eta **derrigorrezkoa da euren parte-hartzea**. Parte hartzen duten BeA figurek %80ko bertaratze tasa lortzeko eta eskuratutako ezagutzak praktikan jartzeko konpromisoa hartzen dute.

Arduraduna

Aitor Albizu Intxausti (aitor.albizu@berritzeguneak.eus) eta Mikel Santaquiteria Eguaras (m.santaquiteria.e@berritzeguneak.eus), Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-konpetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak esparruko aholkulariak, jardueraren arduradunak dira.

Antolaketa-alderdiak



Mintegiak **aurrez aurre** egingo dira, eraginguneka antolatuta eta **20 orduko** iraupena izango du. Kronograma honakoa izango da:

- ⇒ Araba eta Gipuzkoako eraginguneak: Azaroak 18, Urtarrilak 13, Otsailak 17, Martxoak 17 eta Maiatzak 21.
- ⇒ Bizkaiko eraginguneak: Azaroak 20, Urtarrilak 15, Otsailak 19, Martxoak 19 eta Maiatzak 21.

Lekuak zehazteke daude.

Izena ematea ofizioz egingo da.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ BeAk Trebatzen](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

Jasangarritasunarekin lotutako formakuntza

ZIENTZIAREN DIDAKTIKA KANPO-ESPAZIOAN

Deskribapen orokorra

"Zientziaren Didaktika Kanpo Espazioan" ikastaroak **irakasleak zientziaren didaktikan eta ingurumen alfabetatzean formatzea du helburu, kanpo espazioak modu didaktikoan erabiliz**. Irakasleak trebatzea bilatzen da, ikasleekin **konpetentzia zientifikoa eta ekosoziala** modu eraginkor eta praktiko batean garatu ditzaten. Ikastaro honetan, parte-hartzaileek **kanpo espazioak erabiliz ikaskuntza esperientzia aberatsak sortzeko tresnak eta metodologiak** ezagutuko dituzte.

Ikastaroan zehar, irakasleek kanpo espazioetan zientziaren didaktika nola garatu ikasiko dute, ingurumen alfabetatzea sustatuz. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Ikastaroa **aurrez aurre** egingo da, **mintegien** eta **formazio pilulen** bidez.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoak izango da. Saioetan, talde-lanak eta eztabaidak egingo dira, parte-hartzaileen arteko elkarlana eta esperientzia trukatzeko bultzatuz.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Kanpo espazioak modu didaktikoan erabiltzeko gaitasuna garatzea.
- ✓ Konpetentzia zientifikoa eta ekosoziala modu eraginkorrean garatzea.



- ✓ Ingurumen alfabetatzea sustatzea ikasleen artean.
- ✓ Kanpo espazioetan ikaskuntza esperientzia aberatsak sortzea

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Kanpo espazioen erabilera didaktikoa eraginkortasunez ezartzea ikastetxean.
- ✓ Irakasleen eta ikasleen arteko elkarlana eta kooperazioa hobetzea.
- ✓ Ikasleen ingurumen kontzientzia eta konpetentzia zientifikoaren hobekuntza.
- ✓ Ingurumen alfabetatzean ikasleen emaitza akademikoen hobekuntza.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau BeA figurak edo berrikuntza orduak dituzten irakasleei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek konpromisoa hartzen dute formazioan saio arruntetan eta ikastarotan parte hartzeko. Gainera, irakasleek material didaktiko bat osatu beharko dute ikastetxea oinarri moduan hartuz eta inguruko kanpo espazioei loturiko proposamen bat eginez.

Arduraduna

Iñaki Sanz Azkue, Berritzegune Nagusiko Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzako esparruko aholkularia, da jardueraren arduraduna (i.sanz.azkue@berritzeguneak.eus).

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa **aurrez aurre** egingo da eta **30 orduko** iraupena izango du. **Mintegiak hiru egunetan** egingo dira (9:00-14:00): urriaren 28an, abenduaren 2an eta maiatzaren 19an. **Formazio pilulak otsailetik maiatzera bitartean** izango dira, **EHUko irakasleen partehartzearekin**. Besteak beste, [Arantxa Rico Martinez](#), Arantza Aldazabal, [Maialen Sistiaga Poveda](#), [Daniel Zuazagoitia Rey-Baltar](#)...

Parte-hartzaileek **izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez** egingo dute.

Idazkaritza: Barrutialde eraginguneko idazkaritza: b10idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ jasangarritasuna](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

ESKOLAKO AGENDA 2030 mintegia

Deskribapen orokorra

Eskolako Agenda 2030 Programa (EA 2030) jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzaren esparruan kokatzen da, eta Ingurumen Hezkuntzako programa gisa arazo ekosozialak lantzeko eta modu aktiboan bideratzeko beharrezkoak diren motibazioa, ezagutzak, konpetentziak, jarrerak eta konpromisoak garatzea du helburu. Programa honek, **eskualde mailako mintegien bidez**, EA2030 programaren koordinatzaileen



elkarlana, EA2030 koordinatzaile berrien trebakuntza eta parte-hartzea sustatzen du; eta besteak beste, EA2030 programaren eragile guztientzat **Jasangarritasunaren Ingurumen Hezkuntzako XXXII. Topaketak** antolatzen ditu. Gainera, [Eskolako Tokiko Agenda](#) dimensio lokala indartzeko eta eskola-komunitatearen parte-hartzea sustatzeko bideak jorratzen dira **eskolarteko foroen eta udal foroen bitartez**.

Mintegietan zehar, parte-hartzaileek jasangarritasunaren inguruko konpetentziak eta ezagutzak landuko dituzte, ikastetxeetan EA 2030 programak garatzeko beharrezkoak diren egiturak martxan jartzeko. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta irakasleek ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Saiok aurrez aurre egingo dira, eskualdeka antolatuta.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Saioetan, talde-lanak eta eztabaidak egingo dira, parte-hartzaileen arteko elkarlana eta esperientzia trukatzeko bultzatuz.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzaren konpetentziak garatzea.
- ✓ Koordinatzaileen trebakuntza eta parte-hartzea sustatzea.
- ✓ EA 2030 programak garatzeko beharrezkoak diren egiturak martxan jartzea.
- ✓ Ikastetxeetan ingurumen-hezkuntzaren praktika onak ezartzea

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikastetxean EA 2030 programaren egiturak eraginkortasunez ezartzea.
- ✓ Irakasleen eta ikasleen arteko elkarlana eta kooperazioa hobetzea.
- ✓ Ingurumen-hezkuntzaren praktika onak ikastetxean integratzea.
- ✓ Ikasleen ingurumen-kontzientzia eta ekintzaitza jasangarrian hobekuntza.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Formakuntza hau **EA2030 koordinatzaile guztientzat (berriak barne) zuzenduta dago**. Parte hartzen duten ikastetxeek konpromisoa hartzen dute mintegi, prestakuntza, eskolarteko foroetan, udal foroetan eta topaketetan parte hartzeaz gain, EA2030 programak garatzeko beharrezkoak diren egiturak martxan jartzeko (ostadar zirkulua, talde gidaria, ikasleen asanbladak, etab.), eta entitate ezberdinen arteko koordinazioa bideratzeko ikastetxe mailan. Urte amaieran programaren garapena memoria batean jasoko dute.

Arduraduna



Jokin Lapaza Rodriguez, Berritzegune Nagusiko Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzako esparruko aholkularia, da jardueraren arduraduna (jokin.lapaza@berritzeguneak.eus).

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa **aurrez aurre** egingo da eta **30 orduko** iraupena izango du. **Mintegiak ikasturtean zehar** egingo dira, **eskualdearen arabera eguna aldatuz**. Saioak urriaren 15, 16, 17, 22, 23, 24; azaroaren 19, 20, 21, 26, 27, 28; urtarrilaren 21, 22, 23, 28, 29, 30; martxoaren 11, 12, 13, 18, 19, 20; eta maiatzaren 27 eta ekainaren 4, 5, 10, 11, 12an izango dira. **Jasangarritasunaren Ingurumen Hezkuntzarako XXXII. Topaketak apirilaren 4an** egingo dira.

- Urriaren 15, azaroaren 19an, urtarrilaren 21ean, martxoaren 11an, maiatzaren 27an (Eskualdeak: Barakaldo-Sestao; Getxo-UrIBE Kosta; Oarsoaldea).
- Urriaren 15, azaroaren 19an, urtarrilaren 21ean, martxoaren 11an, ekainaren 10ean (Eskualdeak: Gasteiz-Mendialdea-Lautada; Goierri).
- Urriaren 16, azaroaren 20an, urtarrilaren 22ean, martxoaren 12an, ekainaren 4an (Donostia; Urola Kosta; Araba-Errioxa)
- Urriaren 17, azaroaren 21ean, urtarrilaren 23an, martxoaren 13an, ekainaren 5ean (Bilbo-Haritz-Lizarrak; Ibaizabal; Busturialdea-Urdabai; Arrialdea; Bidasoaldea: Azkoitia-Azpeitia)
- Urriaren 22, azaroaren 26an, urtarrilaren 28an, martxoaren 18an, ekainaren 10ean (Arratia-Nerbioi-Basauri; Enkarterriak; Erandio-Leioa; Urola Garaia)
- Urriaren 23, azaroaren 27an, urtarrilaren 29an, martxoaren 19an, ekainaren 11an (Debagoiena; Beterri; Tolosaldea)
- Urriaren 24, azaroaren 28an, urtarrilaren 30ean, martxoaren 20an, ekainaren 12an (Debarrena; Bilbo-Pagoa; Santurtzi-Portugalete; Lea-Artibai; Meatzaldea; Buruntza)

Parte-hartzaileek **izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez** egingo dute.

Idazkaritza: Barrutialde eraginguneko idazkaritza: b10idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ jasangarritasuna](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

ESKOLAKO AGENDA 2030 (Koordinatzaile berriei prestakuntza)

Deskribapen orokorra

EA2030 Koordinatzaile Berrien Ikastaroak helburu du ikastetxeetako [Eskolako Agenda 2030 programaren](#) koordinatzaileak beraien eginkizunetan trebatzea. Ikastaro honetan, **koordinatzaile berriek jasangarritasunerako konpetentziak eta ingurumen-hezkuntzan beharrezkoak diren ezagutzak garatuko**



dituzte. EA 2030 proiektuaren sustatzea eta jarraipena nola gauzatu ikasiko dute, baita proiektuaren inpaktu eta ebaluazio irizpideak definitzen ere.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek Eskolako Agenda 2030 programaren oinarriak eta aplikazio praktikoak landuko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta koordinatzaileek ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Ikastaroa **online edo erdipresentzial** formatuan eskainiko da, **lurraldeka antolatuta**.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Saioetan, talde-lanak eta eztabaidak egingo dira, parte-hartzaileen arteko elkarlana eta esperientzia trukatzeko bultzatuz. Parte-hartzaileek ikasitakoa eguneroko lanean aplikatzeko konpromisoa hartuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ EA2030 programaren koordinatzaileak beraien eginkizunetan trebatzea.
- ✓ Ikasleen jasangarritasunerako kompetentzia garatzeko ingurumen-hezkuntzan trebatzea.
- ✓ Proiektuaren sustapena eta jarraipena nola gauzatu ikastea.
- ✓ Proiektuaren inpaktu eta ebaluazio irizpideak definitzea

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikastetxean EA 2030 programaren egiturak eraginkortasunez ezartzea.
- ✓ Irakasleen eta ikasleen arteko elkarlana eta kooperazioa hobetzea.
- ✓ Ingurumen-hezkuntzaren praktika onak ikastetxean integratzea.
- ✓ Ikasleen ingurumen-kontzientzia eta ekintzailtza jasangarrian hobekuntza.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau EA2030 koordinatzaile berriei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek konpromisoa hartzen dute EA2030 programa garatzeko eta mintegi, prestakuntza eta topaketetan parte hartzeko.

Arduraduna

Aitziber Gartzia Urbietta, Berritzegune Nagusiko Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzako esparruko aholkularia, online eskaintzen den ikastaroaren arduraduna da (ai.gartzia@berritzeguneak.eus).

Beatriz Antón Garramiola, Berritzegune Nagusiko Jasangarritasunerako ingurumen-hezkuntzako esparruko aholkularia, erdipresentziala den ikastaroaren arduraduna da (beatriz.anton@berritzeguneak.eus)

Antolaketa-alderdiak



Ikastaroak **30 orduko** iraupena izango du eta **online edo erdipresentzial formatuan** eskainiko da.

- ⇒ Online formatua 10 modulutan banatuko da, irailaren 18tik abenduaren 18ra.
- ⇒ Erdipresentzial formatua 3 modulutan online eta 3 egun aurrez aurre eskainiko da. Aurrez aurreko saioak Arabako eta Gipuzkoako parte-hartzaileentzat urriaren 2an, 3an eta 4an izango dira, eta Bizkaiko parte-hartzaileentzat irailaren 30ean, urriaren 1ean eta 4an.

Parte-hartzaileek **izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez** egingo dute.

Idazkaritza: Barrutialde eraginguneko idazkaritza: b10idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ jasangarritasuna](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

NAZIOARTEKOTZEAREKIN LOTUTAKO FORMAKUNTZAK

Erasmus + ikastetxe berrientzat

Deskribapen orokorra

Erasmus+ programa zure ikastetxearentzat aukera paregabea da nazioarteko lankidetzeta eta esperientzien trukea sustatzeko. "Erasmus+ (ikastetxe hasi berrientzat)" ikastaroak Europako Hezkuntza Programa den **Erasmus+ egitasmoaren aukerak ezagutzea eta proiektuak diseinatzeko eta diru-laguntzak eskatzeko prozedurak azaltzea du helburu**. Ikastaro honek, gainera, **eTwinning egitasmoak ematen dituen aukerak ere aztertuko ditu**, ikastetxeak programa horietan parte hartzera animatuz.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek **Erasmus+ programaren ekintza giltzarrietan (KA121, KA122 eta KA2)** diru-laguntzak eskatzeko proiektuen diseinua eta prozedurak landuko dituzte. Halaber, kalitatezko proiektuak egiteko tresnak eskuratuko dituzte eta eTwinning egitasmoaren bidez Europako beste ikastetxe batzuekin online bidezko lankidetzeta proiektuak egiteko aukera izango dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Europako Hezkuntza Programa den Erasmus+-ek ematen dituen aukera guztiak ezagutzea.
- ✓ Erasmus+ programaren ekintza giltzarrietan diru-laguntzak eskatzeko proiektuak diseinatzea eta prozedurak ezagutzea.
- ✓ eTwinning egitasmoaren aukerak eta programa honetan parte hartzeko bideak ezagutzea.
- ✓ Ikastetxeak Erasmus+ eta eTwinning programetan parte hartzera animatzea eta laguntzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:



- ✓ Erasmus+ proiektuen bidez ikastetxearen hezkuntza-errealitatea hobetzea.
- ✓ Ikastetxeen arteko elkarlana eta baliabideen trukaketa sustatzea.
- ✓ Proiektu arrakastatsu gehiago lortzea eta haien kudeaketa eraginkorra egitea.
- ✓ Ikasitakoa ikastetxeko dinamiketan txertatzea eta klaustroan partekatzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau zuzendaritza taldekideei, BEAei eta berrikuntza orduak dituzten irakasleei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek ikasitakoa klaustroan partekatu eta ikastetxeko dinamiketan txertatzeko eta beste ikastetxeekin esperientziak, jardunbide egokiak eta material didaktikoak partekatzeko konpromisoa hartzen dute.

Arduraduna

Iratxe Renteria Uriarte, Berritzegune Nagusiko Nazioartekotzea esparruko koordinatzailea, da jardueraren arduraduna (bneuropa@berritzeguneak.eus).

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa **erdipresentziala** izango da eta **20 orduko** iraupena izango du. Kronograma honakoa izango da: urriak 2 (monografikoa, 4 ordu aurrez aurre), azaroak 6 (mintegia, 2 ordu aurrez aurre), abenduak 11 (mintegia, 2 ordu online), urtarrilak 8 (mintegia, 2 ordu aurrez aurre), otsailak 12 (mintegia, 2 ordu online), martxoak 12 (mintegia, 2 ordu aurrez aurre), maiatzak 14 (mintegia, 2 ordu online) eta ekainak 11 (topaketa, 4 ordu aurrez aurre). **Parte-hartzaileek izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez** egingo dute.

Ikastaroa **aurrez aurre** eta **online** egingo da, eta **ikasturte osoan zehar** luzatuko da. Kronograma honakoa izango da:

- Hilean behin: Mentoretza saioak.
- Aurrez aurre: Parte hartzen duten kideen ikastetxeetan.
- Online: Saio osagarriak.

Parte-hartzaileek **izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez** egingo dute.

Idazkaritza: Donostia-Irungo eraginguneko idazkaritza: G01idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ nazioartekotzea](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

Erasmus + ikastetxe arituentzat

Deskribapen orokorra



Erasmus+ programa zure ikastetxearentzat aukera paregabea da nazioarteko lankidetzeta eta esperientzien trukea sustatzeko. "Erasmus+ (ikastetxe arituentzat)" **ikastaroak, Erasmus+ programa ezagutzen duten ikastetxeak elkartzea du helburu**. Alde batetik, proiektuak eskatu dituzten baina onartuak izan ez diren ikastetxeei laguntza ematea du xede, **kalitatezko proiektuak nola egin** irakatsiz. Bestetik, dagoeneko proiektua onartua duten **ikastetxeen arteko sarea osatzea** da helburua, **kideen trukeak, dokumentazio partekatzea, jardueren justifikazioa** eta **plataformen kudeaketa** bultzatuz.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek Erasmus+ proiektuen eskakizunak eta kalitate-irizpideak aztertuko dituzte, **proiektu arrakastatsuak diseinatzeko beharrezko tresnak** eskuratuz. Gainera, **sareko ikastetxeen arteko elkarlana** sustatuko da, esperientziak eta jardunbide egokiak partekatuz. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, Erasmus+ proiektuen kudeaketa eraginkorra bermatzeko.

Metodologia **erdi-presentziala** izango da, **monografikoak, mintegi presentzialak** eta **onlineko saioak** uztartuz. Saioetan, talde-lanak, kasuen azterketak eta eztabaidak egingo dira, parte-hartzaileen arteko elkarlana eta ikaskuntza kooperatiboa sustatzeko. Parte-hartzaileek ikasitakoa klaustroan partekatu eta ikastetxeko dinamiketan txertatzeko konpromisoa hartuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Erasmus+ proiektuen eskakizunak eta kalitate-irizpideak ezagutzea.
- ✓ Proiektu arrakastatsuak diseinatzeko beharrezko tresnak eskuratzea.
- ✓ Ikastetxeen arteko elkarlana eta sareko lana sustatzea.
- ✓ Esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Erasmus+ proiektuen bidez ikastetxearen hezkuntza-errealitatea hobetzea.
- ✓ Ikastetxeen arteko elkarlana eta baliabideen trukaketa sustatzea.
- ✓ Proiektu arrakastatsu gehiago lortzea eta haien kudeaketa eraginkorra egitea.
- ✓ Ikasitakoa ikastetxeko dinamiketan txertatzea eta klaustroan partekatzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau zuzendaritza taldekideei, BeAei eta berrikuntza orduak dituzten irakasleei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek ikasitakoa klaustroan partekatu eta ikastetxeko dinamiketan txertatzeko konpromisoa hartzen dute, baita beste ikastetxeekin esperientziak, jardunbide egokiak eta material didaktikoak partekatzeko ere.

Arduraduna



Iratxe Renteria Uriarte, Berritzegune Nagusiko Nazioartekotzea esparruko koordinatzailea, da jardueraren arduraduna (bneuropa@berritzeguneak.eus).

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa **erdipresentziala** izango da eta **20 orduko** iraupena izango du. Kronograma honakoa izango da: Urriak 2 (monografikoa, 4 ordu aurrez aurre), Azaroak 13 (mintegia, 2 ordu aurrez aurre), Abenduak 18 (mintegia, 2 ordu online), Urtarrilak 15 (mintegia, 2 ordu aurrez aurre), Otsailak 19 (mintegia, 2 ordu online), Martxoak 19 (mintegia, 2 ordu aurrez aurre), Maiatzak 21 (mintegia, 2 ordu online) eta Ekainak 11 (topaketa, 4 ordu aurrez aurre).

Parte-hartzaileek **izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez** egingo dute.

Idazkaritza: Donostia-Irungo eraginguneko idazkaritza: G01idazkaritza@berritzeguneak.eus →
formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ nazioartekotzea](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

HAUR HEZKUNTZAREKIN LOTUTAKO FORMAKUNTZAK

Mugimendu Autonomoa Haur Hezkuntzan (Alfileteroak): 2ze 2no ikastaroa

Deskribapen orokorra

Mugimendu autonomoa Haur Hezkuntzan funtsezkoa da haurren garapen integrala eta harmonikoa dimentsio guztietan sustatzeko. "2Ze2No" ikastaroak **haurren autonomia eta garapen motorra bultzatzeko metodologia berritzaileak eskaintzen** dizkizu. Ikastaro honen bidez, parte-hartzaileek **mugimendu autonomoaren kontzeptua** eta honen **garrantzia** ulertuko dute, haurren garapen integralean laguntzeko tresna baliagarriak eskuratuz.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek **mugimendu autonomoaren markoa ezagutuko** dute, **honen oinarriak, zutabeak, zutarriak eta printzipioak; geruza multzoak** eta honen barruan **espazioa, antolaketa** eta **pertsonaren garrantzia** baita ere **ebaluazioa, eboluzioa** eta **balorazioaren** inguruko xehetasunak.

Guzti hau Haur Hezkuntzan **nola aplika** daitekeen aztertuko da ikastaroan. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, haurren autonomia eta garapen motorra sustatzeko esku-hartze holistikoak ezagutzuz.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Mugimendu autonomoaren kontzeptua eta markoa ezagutzea.
- ✓ Mugimendu autonomoa Haur Hezkuntzan aplikatzeko estrategiak ikastea.



- ✓ Haurren autonomia eta garapen motorra sustatzeko metodologia berritzaileak ezagutzea.
- ✓ Esku-hartze holistikoak aztertzea eta aplikatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Mugimendu autonomoaren esku-hartzeak ikastetxean ezartzea.
- ✓ Haurren autonomia eta garapen motorraren hobekuntza.
- ✓ Irakasleek mugimendu autonomoa sustatzeko metodologia berriak aplikatzea.
- ✓ LH etapako irakasleek mugimendu autonomoa eraldaketa prozesuetan erabiltzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau Mugimendu Autonomoa esku-hartzea duten profesionalentzat eta HH etapan eraldaketan interesatuta daudenei zuzenduta dago. Parte hartzen dutenek ikasitakoa ikastetxean zabaltzeko eta praktikan jartzeko konpromisoa hartzen dute..

Arduraduna

Nere Inda Goikolea (bnhaurhezkuntza@berritzeguneak.eus), Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-kompetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak esparruko aholkularia, jardueraren arduraduna da.

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa aurrez aurre egingo da. Izen ematea egina dago. Egun bakarreko formazioa izango da eta ikastetxeek jaso dute jada zein egunetan egokitu zaien ikastaroa egitea. Egun hauetan izango da, irailak 3, 4 eta 5, 9:30etatik 14:00etara, Urretxuko Gainzuri eskola publikoan, Labeaga aretoan. Parte-hartzaileen izena ikastetxeko zuzendariak burutu du alde zuzenetik bidali zen formulario baten bidez.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera EZ ziurtagarria

[↑Haur hezkuntza](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

Mugimendu Autonomoa Haur Hezkuntzan (Alfileteroak): Praktikan oinarritutako deboluzio formazioa (PDF) ikastaroa

Deskribapen orokorra

Mugimendu autonomoa Haur Hezkuntzan funtsezkoa da haurren garapen integrala sustatzeko. Praktikan oinarrituta Deboluzio Formazioa ikastaroan **mugimendu autonomoa ahalbideratzen duten eta ibilbide ezberdina duten 3 ikastetxeetan egiten den esku-hartzearen analisia egingo da**, praktikan oinarrituta.



Ikastaro honen bidez, **hiru eskolen errealitatea kontuan izanda, esku-hartze holistikoa egingo da eta Juntadizoetan, hau da PDFetan deboluzioa egingo da.** Deboluzioarekin batera, esku-hartzearen proposamena eta horren jarraipea egingo da. Batetik, eskola bakoitzean eta bestetik saio bakoitzean hiru eskolena, saioak **Juntadizoak** dira.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek **mugimendu autonomoaren markoa ezagutuko** dute eta hau Haur Hezkuntzan nola aplikatu daitekeen aztertuko dute. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta esperientziak aztertu eta partekatuko dira.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Saioetan, formazioa, informazioa, eskoletako deboluzioa eta hausnarketa bideratuko da.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Mugimendu autonomoaren kontzeptua eta markoa ezagutzea.
- ✓ Mugimendu autonomoa ahalbideratzen duten eta ibilbide ezberdina duten 3 ikastetxeetan egiten den esku hartzearen analisia egitea eta eskola horietako errealitatea kontuan izanda, esku- hartze holistikoa egitea eta Juntadizoetani deboluzioa egitea.
- ✓ Haurren garapen osoa eta integrala zaintza eta ahalbideratzea eskaintzea.
- ✓ Esku-hartze holistikoak aztertzea, hausnartzea eta aholkuak bidean jartzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Mugimendu Autonomoa ikastetxean ahalbideratzea.
- ✓ Maisu-maistra bakoitzak bere esku-hartzearen hausnarketa egitea dekretua eta haurren garapena aintzat hartuta.
- ✓ Eskolako pertsonen arteko harremana eta garapena zaintzea.
- ✓ Haurren ongizate fisiko eta emozionala zein haren zaintza globala ahalbideratzeko esku-hartze dituak adostea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau Mugimendu Autonomoa ahalbideratzen duten profesionalentzat, koordinatzaileentzat , Haur Hezkuntza etapan eraldaketan interesatuta daudenentzako zuzenduta dago. Parte-hartzen dutenek jasotakoa ikastetxean hausnartu, beraien errealitatearekin eta indarrean dauden arau zien dekretuarekin lotu eta esku-hartzeak doitzeko konpromisoa hartzen dute.

Arduraduna



Nere Inda Goikolea (bnhaurhezkuntza@berritzeguneak.eus), Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-konpetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak esparruko aholkularia, jardueraren arduraduna da.

Antolaketa-alderdiak

Formazio hau aldeztetik aukeratutako hiru ikastetxeetan egingo den esku-hartzeari lotuta dago.

2024-2025 ikasturtean 6 Juntadizo izango dira. Bertara izena-ematen duten profesionalak gerturatuko dira. Bertan jasoko dutena ondorengo lerroetan aipatuko diren hiru eskoletan Berritzegune Nagusiko aholkulariak egingo dituzten esku-hartzeen deboluzioa eta formazioa izango dute.

Jada aukeratuta dauden EAEko hiru eskoletara Berritzegune Nagusiko aholkulariak joango dira aurrez aurreko berariazko esku-hartzea egitera **90 orduko** iraupena izango du eta honela banatuko dira:

- ⇒ Berariazko esku-hartzean parte-hartuko duten 3 eskolek 60 ordu.
- ⇒ PDF juntadizoan izena emango duten profesionalak 30 ordu.

Ikastaroa ez da derrigorrezkoa.

Honako datetan izango da:

- ⇒ Lehen eskolan esku hartzea Irailak 10 eta 11, Urriak 22, Abenduak 3, Urtarrilak 21, Martxoak 4 eta Maiatzak 6.
- ⇒ Bigarren eskola: Irailak 17 eta 18, Urriak 29, Abenduak 10, Urtarrilak 28, Martxoak 11 eta Maiatzak 13.
- ⇒ Hirugarren eskola: Irailak 24 eta 25, Azaroak 5, Abenduak 17, Otsailak 4, Martxoak 18 eta Maiatzak 20.
- ⇒ PDF Saioak- **Juntadizoak**: Urriak 24, Azaroak 28, Urtarrilak 30, Otsailak 20, Martxoak 27 eta Maiatzak 29.

Parte-hartzaileek izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez egingo dute.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑Haur hezkuntza](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

Pentsamendu konputazionala, robotika, programazioa eta STEAMekin lotutako formakuntzak

Eskola Adimentsua: mintegia hasi berrientzat

Deskribapen orokorra



Pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa XXI. mendeko hezkuntzaren ardatz garrantzitsuak dira. Gainera, kontutan hartu behar da indarrean dagoen curriculum dekretuak pentsamendu konputazionalaren lanketa ezartzen duela. "Eskola Adimentsua: Ikastetxe hasi berriak" mintegiak irakasleak prestatu nahi ditu arlo hauetan, ikasleak erronka teknologiko berrietarako prestatu ahal izateko. Mintegi hau, Berritzegune Nagusiaren eskaintza barruan kokatzen da, eta pentsamendu konputazionalaren, robotikaren eta programazioaren oinarriak lantzeko aukera paregabean eskaintzen die parte-hartzaileei.

Mintegian zehar, parte-hartzaileek **pentsamendu konputazionalaren lau oinarriak ezagutuko** dituzte, eta **jarduera desentxufatuak zein entxufatuak praktikan jarriko** dituzte. Gainera, robotika eta programazioari buruzko zein **baliabide** dauzkagun **ezagutuko** dituzte irakasleek, ondoren **ikasgelan aplikatzeko moduko jarduerak, ikas-egoerak** eta bestelakoak **sortu** zein **partekatuko** dituztelarik.

Mintegi honen helburua nagusia, irakasleek arlo hauek ikasgelara modu eraginkorrean eramateko gaitasuna garatzea da, ikasleen prestakuntza teknologikoa hobetuz.

Metodologiari dagokionez, **aurrez aurreko saioetan** oinarrituko da. Irakasleek, eduki teorikoak eta praktikoak konbinatzeko aukera izango dute. Saioak, **lurraldeka eta etapaka** antolatuko dira, ikasle eta irakasleen beharretara egokituz. Mintegian zehar, irakasleak elkarlanean arituko dira, eta **adituen laguntza izango dute** uneoro, atal hauek ikastetxeetan modu eraginkorrean integratu ahal izateko.

Parte hartzera animatzen zaituztegu, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko hezkuntza berritzaileagoa eta egokituagoa eraikitzeko.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Pentsamendu konputazionalaren lau oinarriak ezagutzea.
- ✓ Jarduera desentxufatuak edo deskonektatuak ezagutu eta praktikan jartzea.
- ✓ Robotika eta programazioa lantzeko baliabideak ezagutzea eta praktikatzen hastea.
- ✓ Ikastetxeetan pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika integratzeko lan-plana diseinatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasleen emaitza akademikoen hobekuntza STEAM arloetan.
- ✓ Ikasleen motibazio eta interesa areagotzea teknologia eta zientzien arloan.
- ✓ Eskola-giro inklusiboago eta kolaboratiboago baten sustapena.
- ✓ Ikastetxeko irakasleen trebakuntza teknologikoaren hobekuntza eta konfiantza handitzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak



Mintegi hau pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioan interesa duten eta oraindik gaien hasi berriak diren ikastetxeei zuzenduta dago. Ikastetxe horietatik mintegian zuzenean parte hartzen duten irakasleek, bertan ikasitakoa ikastetxeko gainerako irakasleei zabaldu beharko diete. Gainera, apirilaren 30a baino lehen, arlo hauek ikastetxean integratzeko ikastetxeko antolaketa proposamen zehatza aurkeztea izango da hartzen duten konpromisoa.

Arduraduna

Mintegiaren arduraduna Ane Liceaga Zabalegui (a.liceaga.z@berritzeguneak.eus , 688614391) izango da, Berritzegune Nagusiko digitalizazio eta berrikuntza teknopedagogikoko aholkularia, ADI mentoreekin eta Digitalizazio taldea osatzen duten beste aholkulariekin batera

Antolaketa-alderdiak

Mintegia **aurrez aurre** egingo da eta **lurraldeka eta etapaka antolatuko** da. Iraupena 30 ordukoa izango da.

Gipuzkoa eta Araban astelehenetan eta Bizkaian asteazkenetan izango dira saioak, honako datetan: urriaren 7-9, azaroaren 4-6, abenduaren 16-18, otsailaren 3-5, maiatzean azoka (data zehazteke).

Parte-hartzaileek **izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez** egingo dute.

Idazkaritza: Buruntzaldea-Gorierriko eraginguneko idazkaritza → g04idazkaritza@berritzeguneak.eus → g06idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑eskola adimentsua](#)

[↑lehenengo begirada](#)

Eskola Adimentsua: praktika-saioak, gaien hasita dauden ikastetxeentzat

Deskribapen orokorra

Pentsamendu konputazionala, robotika eta programazio informatikoa hezkuntzaren arlo garrantzitsuak dira, **eta, gainera, egun indarrean dagoen curriculum dekretuak haien lanketa ezartzen du.** "Eskola Adimentsua: Praktika Saioak" tailerra irakasleei arlo hauetan sakontzeko eta praktika berritzaileak ezartzeko aukera eskaintzen die. Tailer hau dagoeneko **bide honetan aurrera pausak emandako ikastetxeentzat da**, eta helburu nagusia, konpetentzia horiek ikasgelan modu eraginkorrean aplikatzea da.

Tailerrean, parte-hartzaileek **etaparako egokiak diren jarduera desentxufatuak, software eta hardware baliabideak aztertuko** dituzte. **Baliabide bakoitzaren aukera praktikoak probatu eta ebaluatuko** dituzte, eta hauek **gelara nola eraman landuko** dute, **jarduerak planteatuz eta ikas-egoeratan txertatuz.** Tailerrak **irakasleen arteko ideien trukaketa eta kolaborazioa** sustatuko du, irakasle bakoitzak bere ikastetxean praktika onak ezar ditzan.

Metodologia **aurrez aurreko saioetan** oinarrituko da, non irakasleek eduki teorikoak eta praktikoak konbinatuko dituzten. Saioak **lurraldeka eta etapaka** antolatuko dira, ikasle eta irakasleen beharretara



egokituz. Tailerrean zehar, irakasleak elkarlanean arituko dira eta **adituen laguntza** izango dute uneoro, atal hauek ikastetxeetan modu eraginkorrean integratu ahal izateko.

Parte hartzera animatzen zaituztegu, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko hezkuntza berritzaileagoa eta egokituagoa eraikitzeko.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa lantzeko baliabideak hobeto ezagutzea eta praktikatzea.
- ✓ Jarduerak eta ikas-egoerak aztertzea, sortzea eta partekatzea.
- ✓ Etaparako egokiak diren baliabideak aztertzea eta gelan aplikatzea.
- ✓ Baliabide bakoitzaren aukera praktikoak probatu eta ebaluatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasleen emaitza akademikoen hobekuntza STEAM arloetan.
- ✓ Ikasleen motibazio eta interesa areagotzea teknologia eta zientzien arloan.
- ✓ Eskola-giro inklusiboago eta kolaboratiboago baten sustapena.
- ✓ Ikastetxeko irakasleen trebakuntza teknologikoaren hobekuntza eta konfiantza handitzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Mintegi hau dagoeneko pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioan aurrera pausuak eman dituzten ikastetxeei zuzenduta dago. Ikastetxe horietatik tailerrean zuzenean parte hartzen duten irakasleek ikastaroan ikasitakoa ikastetxeko gainerako irakasleei zabaldu beharko diete. Horrez gain, apirilaren 30a baino lehen, arlo hauek ikastetxean integratzeko ikastetxeko antolaketa proposamen zehatza aurkeztea izango da hartzen duten konpromisoa.

Arduraduna

Mintegiaren arduraduna Ane Liceaga Zabalegui (a.liceaga.z@berritzeguneak.eus , 688614391) izango da, Berritzegune Nagusiko digitalizazio eta berrikuntza teknopedagogikoko aholkularia, ADI mentoreekin eta taldea osatzen duten beste aholkulariekin batera

Antolaketa-alderdiak

Mintegia **aurrez aurre** egingo da eta **lurreldeka eta etapaka antolatuko** da. Iraupena **20 ordukoa** izango da.

Gipuzkoa eta Araban astelehenetan eta Bizkaian asteazkenetan izango dira saioak, honako datetan: urriaren 7-9, azaroaren 4-6, abenduaren 16-18, otsailaren 3-5, maiatzean azoka (data zehazteke).



Parte-hartzaileek izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez egingo dute.

Idazkaritza: Buruntzaldea-Gorierriko eraginguneko idazkaritza → g04idazkaritza@berritzeguneak.eus → g06idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑eskola_adimentsua](#)

[↑lehenengo begirada](#)

STEAM mintegia

Deskribapen orokorra

STEAM diziplinarteko proiektuak eta metodoak ikasleen konpetentzia anitzak garatzeko aukera paregabea eskaintzen dute. STEAM Mintegiak, STEM eta Ekintzailtza konpetentziak garatzea du helburu, STEAM Euskadi estrategia ikastetxeetan nola landu daitekeen erakutsiz. Mintegi honetan, berrikuntza-ekintza proiektuak garatzeko prestakuntza tekniko eta pedagogikoak jasoko dituzte irakasleek, horrela, beraien gaitasunak indartuz eta ikastetxeetan STEAM proiektu eraginkorrak ezartzeko tresnak eskuratuz.

Mintegietan zehar, parte-hartzaileek STEAM diziplinarteko proiektuen garapena eta metodoak landuko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, ikasleen konpetentziak modu eraginkorrean garatzeko estrategiak ikasiz. Proiektu desberdinak garatzeko prestakuntza teknikoa eta pedagogikoa jasoko dute, eta ikastetxeetan STEAM proiektuak nola integratu aztertuko da.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Saioetan, taldeko lanak, kasuen azterketak eta praktika gidatuak egingo dira. Parte-hartzaileek esperientziak partekatu eta ikaskuntza kooperatiboa bultzatuko dute, ikasitakoa ikastetxean praktikan jartzeko konpromisoa hartuz. Berritzeguneen aholkularitzarekin, ikastetxe bakoitzak STEAM proiektu bat garatuko du.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ STEAM diziplinarteko proiektuen garapena eta metodoak ezagutzea.
- ✓ STEM eta Ekintzailtza konpetentziak garatzea.
- ✓ STEAM Euskadi estrategia ikastetxeetan ezartzeko gaitasunak eskuratzea.
- ✓ Irakasleen gaitasun tekniko eta pedagogikoak indartzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ STEAM proiektuen ezarpena eta garapena ikastetxean.
- ✓ Ikasleen STEM eta Ekintzailtza konpetentzien hobekuntza.
- ✓ Irakasleen prestakuntza tekniko eta pedagogikoa indartzea.
- ✓ Ikastetxean berrikuntza-ekintza proiektuen garapena sustatzea.



Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Parte hartzen duten ikastetxeek STEAM proiektu baten garapena Berritzeguneen aholkularitzapean egitea konpromisoa hartzen dute. Parte-hartzaileek ikasitakoa ikastetxean praktikan jartzeko konpromisoa hartzen dute, eta proiektuaren garapenean aktiboki parte hartuko dute.

Arduraduna

Karlos Sukunza Pagola (bnteknologia@berritzeguneak.eus), Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-konpetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak esparruko aholkularia, jardueraren arduraduna da.

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa **aurrez aurre** egingo da eta **20 orduko** iraupena izango du. Gipuzkoa eta Araban astelehenetan eta Bizkaian asteazkenetan burutuko da. Saioak honako datetan izango dira:

- urtarrilak 20, 22
- martxoak 10, 12
- apirilak 7, 9
- maiatzeko azoka: zehazteke

Parte-hartzaileek izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez egingo dute.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑eskola adimentsua](#)

[↑lehenengo begirada](#)

HIZKUNTZEKIN LOTUTAKO FORMAKUNTZAK

Ulibarri programa: Hizkuntza Normalizazioko mintegiak + Eskola Hiztun Bila jardunaldia

Deskribapen orokorra

Ulibarri EAEko ikastetxeetan euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko programa da. Eskola hizkuntzaren ezagutza, erabilera eta motibazioa sustatu eta lantzeko funtsezko espazioa da, eta bertan eragitea da Ulibarri Programaren xedea.

Ulibarrik ekintza eta jarduera mota ezberdinak barne biltzen ditu, tartean, **mintegiak** eta **Eskola Hiztun Bila jardunaldia**, hizkuntza minorizatuaren **presentzia handitzeko eta erabilera-eremu eta funtzio anitzetara hedatzeko tresnak eta estrategiak eskainiz**. Era berean, hizkuntza normalizazio prozesuan eragin zuzena duten **erabilera-arau adostuak indarrean jartzea** bilatzen du. Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek **euskararen**



erabilera eta ezagutza ikastetxean nola hobetu aztertuko dute, eta hizkuntza minorizatuaren erabilera arauak eta estrategiak landuko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, mintegietan sortutako baliabide eta materialak publikoak eta irekiak izan daitezzen.

Mintegiak parte-hartzea, elkarrizketa eta elkarlana ardatz dituen konpetenzien garapenean oinarrituko dira. Parte-hartzaileek ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko eta klaustroarekin partekatze konpromisoa hartuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Ikastetxeetako euskararen erabilera eta ezagutza hobetzea.
- ✓ Euskararen erabilera-eremu eta funtzio anitzetara hedatzea.
- ✓ Hizkuntza minorizatuaren presentzia areagotzen lagunduko duten erabilera-arau adostuak indarrean jartzea.
- ✓ Hizkuntza normalizazio prozesuan eragin zuzena duten estrategiak eta tresnak eskuratzea.

Ikastetxean espero den inaktuaren adierazleak:

- ✓ Euskararen erabilera eta ezagutza hobetzea ikastetxeetan.
- ✓ Erabilera-eremu eta funtzio anitzetan euskararen presentzia areagotzea.
- ✓ Erabilera-arau adostuen ezarpena eta eraginkortasuna ikastetxeetan.
- ✓ Hizkuntza normalizazio prozesuan ikastetxearen parte-hartze aktiboa eta baliabideen erabilera eraginkorra.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Formakuntza jarduera hau Ulibarri Programan parte hartzen duten ikastetxeetako irakasle arduradunei (HNAT) zuzenduta dago eta eurentzat **derrigorrezkoa** da. Parte hartzen duten ikastetxeek Ulibarri Dekretuak zehazten dituen konpromisoak betetzea eta mintegian sortu ahal dituzten baliabide eta materialak publikoak eta irekiak izatea bermatu behar dute.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Rake Iruarizaga Barragan (r-iruarizaga@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Euskara, eleaniztasun eta kulturartekotasun esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa **erdipresentziala** izango da eta **25 orduko** iraupena izango du. **Sei saio aurrez aurre eta bi saio online** izango dira. **Mintegiak zortzi saio izango ditu, hileko lehen edo bigarren asteartean 09:00-11:30, eragingunearen arabera.**

Eskola Hiztun Bila jardunaldiaren data zehazteke dago, baina urrian izatea aurreikusten da.



Izena ematea ofizioz egingo da.

Idazkaritza: Araba eraginguneko idazkaritza → araba.idazkaritza@beritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ Hizkuntzak](#)

[↑ Lehenengo begirada](#)

EUSLE PROGRAMA: IRAKASLE BERRIAK formakuntza

Deskribapen orokorra

"EUSLE PROGRAMA: IRAKASLE BERRIAK " formakuntza [Eusle programa](#) duten ikastetxeetako Eusle eta HIIPI irakasle berriak direnei zuzenduta dago, eta irakasle horientzat derrigorrezkoa da parte hartzea. Formakuntzak ikasle etorri berrien ongizatea eta sozializazioa lortzea du helburu eta euskaraz komunikatzeko kompetentzia hobetzea, bi ikasturteren ondoren euskarazko A2 maila lortzea xede izanik.

Formakuntza honen baitan ikastaroak, mintegiak eta monografikoak egongo dira. Formakuntzan zehar, parte-hartzaileek **ikasle etorri berrien inklusioa eta euskararen ikaskuntza sustatzeko estrategiak eta jarduerak landuko** dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira eta ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Prestakuntza honen bidez Eusle programan parte hartzen duten ikastetxeetan ikasle etorri berrien hizkuntza-beharrak asetzea eta euren integrazioa erraztea bilatzen da, eta, era berean, euskararen erabilera eguneroko bizitzan indartzea.

Gainera, parte hartzaileek **beste ikastetxe batzuetako esperientziak eta jardunbide egokiak partekatze**ko aukera izango dute.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Saioretan, taldeko lanak, kasuen azterketak eta eztabaidak egingo dira, parte-hartzaileen arteko elkarlana eta ikaskuntza kooperatiboa bultzatuz. Parte-hartzaileek ikasitakoa ikastetxean praktikan jartzeko eta euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa hartuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Ikasle etorri berrien ongizatea eta sozializazioa lortzea.
- ✓ Ikasleen euskaraz komunikatzeko kompetentzia hobetzea.
- ✓ EUSLE programaren helburuak eta metodologiak sakonago ezagutzea eta aplikatzea.
- ✓ Ikasleek euskarazko A2 maila lortzea bi ikasturte pasa ondoren.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasle etorri berrien inklusioa eta sozializazioa hobetzea.



- ✓ Euskararen erabilera eta konpetentzia hobetzea ikasleen artean.
- ✓ EUSLE programaren metodologiak ikastetxean aplikatzea eta baliabideak sortzea.
- ✓ Ikasleen euskarazko A2 maila lortzea bi ikasturteko epean.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Formakuntza hau **Eusle programan berriak diren Eusle irakasleei zein Eusle ikastetxeetan dauden HIPI irakasleei** zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek prozesuan sortu ahal dituzten baliabideak partekatuko dituzte eta hauek Eusle irakasleen esku jarriko dira. Mintegira joatea eta ikasitakoa ikastetxean zabaltzea eta praktikan jartzea eskatzen da.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Jaione Iturbe Zurbano (jaione.iturbe.z@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Euskara, eleaniztasun eta kulturartekotasun esparruko aholkularia, eta Eusle programaren arduraduna.

Antolaketa-alderdiak

Formakuntza **aurrez aurre** egingo da eta **35 orduko** iraupena izango du, eta bere baitan ikastaro trinkoa, mintegiak eta monografikoak egongo dira. Kronograma honakoa izango da:

- Irailaren 5, 6 eta 9an formakuntza trinkoa (ikastaroa) 10:00-14:00, erkidego mailan antolatuko dena
- Ikasturtean zehar 6 mintegi: 12:00-14:30: urriak 7, azaroak 4, abenduak 2, otsailak 10, martxoak 17, eta maiatzak 5. Mintegiak lurraldeka antolatuko dira.
- Monografikoak bi goiz desberdinetan burutuko dira, datak zehazteke. Lurraldeka antolatuko dira

Izena ematea ofizioz egingo da.

Idazkaritza: Araba eraginguneko idazkaritza → araba.idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ Hizkuntzak](#)

[↑ Lehenengo begirada](#)

EUSLE PROGRAMA: IRAKASLE ARITUAK formakuntza

Deskribapen orokorra

"EUSLE PROGRAMA: IRAKASLE ARITUAK" ikastaroak ikasle etorri berrien ongizatea eta sozializazioa lortzea du helburu eta baita euskaraz komunikatzeko konpetentzian hobetzea ere, bi ikasturteren ondoren euskarazko A2 maila lortzea xede izanik. **Prestakuntza honek EUSLE programan dauden ikastetxeetako irakasle arituak biltzen ditu**, aurreko ikasturtean ere EUSLE irakasleak izan direnak, **programaren helburuak**



eta metodologiak sakondu eta hobetzeko helburuz. Irakasle horientzat formakuntza derrigorrezkoa izango da.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek **ikasle etorri berrien inklusioa eta euskararen ikaskuntza sustatzeko estrategiak eta jarduerak landuko** dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira eta ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Prestakuntza honetan, ikasle etorri berrien hizkuntza-beharrak asetzea eta euren integrazioa erraztea bilatzen da, aldi berean euskararen erabilera eguneroko bizitzan indartuz.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Taldeko dinamikak uztartuz garatuko da eta esperientzia trukatzeko bultzatuz eta norberaren jardun pedagogikoaren inguruko hausnarketa sustatuz. Saioak aurrez aurrekoak izango dira, lurraldeka eta erkidego mailan antolatuta. Jarduera honetan, parte-hartzaileek, ikasitakoa eguneroko lanean aplikatzeko eta ikastetxeko hizkuntza-plana indartzeko konpromisoa hartuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Ikasle etorri berrien ongizatea eta sozializazioa lortzea.
- ✓ Ikasleen euskaraz komunikatzeko konpetentzia hobetzea.
- ✓ EUSLE programaren helburuak eta metodologiak sakonago ezagutzea eta aplikatzea.
- ✓ Ikasleek euskarazko A2 maila lortzea bi ikasturte pasa ondoren.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasle etorri berrien inklusioa eta sozializazioa hobetzea.
- ✓ Euskararen erabilera eta konpetentzia hobetzea ikasleen artean.
- ✓ EUSLE programaren metodologiak ikastetxean aplikatzea eta baliabideak sortzea.
- ✓ Ikasleen euskarazko A2 maila lortzea bi ikasturteko epean.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Formakuntza hau Eusle programan arituak (aurreko ikasturtean Eusle irakasleak izandakoak) diren Eusle irakasleei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek prozesuan sortu ahal dituzten baliabideak partekatuko dituzte eta hauek Eusle irakasleen esku jarriko dira. Mintegira joatea eta ikasitakoa ikastetxean zabaltzea eta praktikan jartzea eskatzen da.

Arduraduna



Formakuntzaren arduraduna Jaione Iturbe Zurbano (jaione.iturbe.z@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Euskara, eleaniztasun eta kulturartekotasun esparruko aholkularia, eta Eusle programaren arduraduna.

Antolaketa-alderdiak

Formakuntza **aurrez aurre** egingo da eta **30 orduko** iraupena izango du, eta bere baitan mintegiak, monografikoak eta bakar-lanerako orduak sartzen dira. Kronograma honakoa izango da:

- ⇒ Mintegia: bi ordu eta erdiko sei saio astelehenetan, 12:00-14:30. Saioak urriaren 7an, azaroaren 18an, abenduaren 9an, otsailaren 17an, martxoaren 10ean eta maiatzaren 19an izango dira.
- ⇒ Monografikoak bi goiz desberdinetan burutuko dira, datak zehazteke

Izena ematea ofizioz egingo da.

Idazkaritza: Araba eraginguneko idazkaritza → araba.idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ Hizkuntzak](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

HIPI BERRIAK ikastaroa

Deskribapen orokorra

"HIPI Berriak" ikastaroak, **ikasle etorri berriak ikastetxean artatuak izan daitezten eta haien integrazioa errazteko beharrezko tresnak eta estrategiak eskaintzen dizkizu**. Ikastaro honek helburu du ikasle etorri berrien hezkuntza-beharrak asetzea eta ikastetxeetan inklusioa, Kulturartekotasuna eta aniztasuna sustatzea. Horrela, ikasle horiek beren potentzial osoa garatzeko aukera izango dute, ikaskuntza-ingurune inklusibo batean.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek **ikasle etorri berrien integrazioa eta laguntzarako estrategiak** eta **jarduerak ezagutu**ko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, ikasleen inklusioa eta hezkuntza arrakasta sustatzeko helburuarekin. Gainera, **beste ikastetxe batzuetako esperientziak eta jardunbide egokiak partekatze**ko aukera izango dute, horrela praktika onak bultzatuz.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da, betiere ikuspegi komunikatiboa erdigunean jarrita. Saiotetan, taldeko lanak, kasuen azterketak eta eztabaidak egingo dira, parte-hartzaileen arteko elkarlana eta ikaskuntza kooperatiboa bultzatuz. Parte-hartzaileek ikasitakoa ikastetxean praktikan jartzeko eta ikasle etorri berrien integrazioa errazteko konpromisoa hartuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:



- ✓ Ikasle etorri berrien integrazioa eta laguntzarako estrategiak ezagutzea.
- ✓ Ikasleen inklusioa eta aniztasuna sustatzeko tresnak eta teknikak eskuratzea.
- ✓ Hezkuntza-beharrak asetzea eta hezkuntza arrakasta lortzea.
- ✓ Beste ikastetxe batzuetako esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasle etorri berrien integrazioa eta inklusioa hobetzea.
- ✓ Ikasleen hezkuntza arrakasta eta partaidetza handitzea.
- ✓ Ikastetxean Kulturartekotasuna, aniztasuna eta inklusioa sustatzea.
- ✓ Praktika onak eta estrategiak ikastetxean ezartzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau ikasle etorri berriei euskara irakasteko ardura duten ikastetxeetako irakasle berriei zuzenduta dago ([HIPI](#)). Parte hartzen duten ikastetxeek ikasitakoa klaustroan partekatzeko eta ikasle etorri berrien integrazioa sustatzeko estrategiak praktikan jartzeko konpromisoa hartzen dute.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Itziar Larraza Anduaga (mi.larraza.a@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Euskara, eleaniztasun eta kulturartekotasun esparruko aholkularia

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa **aurrez aurre** egingo da eta **12 orduko** iraupena izango du. Kronograma honakoa izango da: irailaren 23-24-25. Saioak 10:00etatik 14:00etara izango dira. Parte-hartzaileek izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez egingo dute. Mintegira joatea eta ikasitakoa ikastetxean zabaltzea eta praktikan jartzea eskatzen da.

Idazkaritza: Araba eraginguneko idazkaritza → araba.idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ Hizkuntzak](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

HIPI IRAKASLE GUZTIAK formakuntza

Deskribapen orokorra

"HIPI Irakasle Guztiak" formakuntza **ikasle etorri berriekin lan egiten duten Hizkuntza Indartzeko Irakasleei (HIPI) formazioa eta tresnak eskaintzea du helburu, baliabide berriak sortzen ikasi eta aldi berean, euren irakas praktikak hobetzeko**. Prestakuntza honek **HIPI programan** dauden irakasle arituak eta berriak biltzen ditu,



aurreko ikasturtean ere HIPI irakasleak izan direnak, gehi berriki hasitakoak. Formakuntza honek ikasle etorri berrien hizkuntza gaitasunak indartzeko eta inklusioa sustatzeko beharrezko estrategiak eta baliabideak sortzeko aukera eskaintzen du. Tailer praktiko baten tankerakoa izango da, mintegiak, monografikoak eta bakar-lanerako tarteak uztartuz

Formakuntzan zehar, parte-hartzaileek ikasle etorri berrien hizkuntza gaitasunak indartzeko estrategiak eta jarduerak landuko dituzte baliabide berriak sortzearen bidez. Eduki teorikoak praktikoen pentsutan egongo dira. Ikasitakoa eta batez ere, sortutakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute.

Parte-hartzaileen parte-hartzea eta esperientzia trukatzeari uneoro bultzatuko da, elkarlanean sortzen joango baitira materialak. Saioak **aurrez aurrekoak** izango dira, **lurraldeka eta erkidego mailan antolatuta**, nahiz eta **bakarlanerako tarteak ere izango** den, aurrez aurrekoetan sortzen hasitakoak bukatu ahal izateko.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Ikasle etorri berrien hizkuntza gaitasunak indartzeko tresnak eta estrategiak eskuratzeko baliabideen sorreran aritzea.
- ✓ HIPI irakasleen irakas praktika hobetzea.
- ✓ Ikasle etorri berrien inklusioa sustatzea.
- ✓ Baliabide pedagogikoak sortzea eta partekatzea mintegietan.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasle etorri berrien hizkuntza gaitasunen hobekuntzarako material egokiak edukitzea eta erabili ahal izatea.
- ✓ HIPI irakasleen praktika hobetzea eta metodologia eraginkorretarako baliabideak aplikatzea.
- ✓ Ikastetxean inklusio prozesuak indartzea.
- ✓ Mintegietan sortutako baliabide pedagogikoen erabilera eta partekatzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau ikasle etorri berriekin lan egiten duten [Hizkuntza Indartzeko Irakasle \(HUPI\)](#) arituei zuzenduta dago, aurreko ikasturtean ere HIPI irakasleak izandakoei, gehi hasi berriei ere. Parte hartzean, ikasitako horretan sakontzera bideratuko da eta baita baliabide pedagogiko publikoak eta irekiak sortzera. Ikasitakoa eta sortutakoa ikastetxean praktikan jartzeko konpromisoa hartzen dute.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Itziar Larraza Anduaga (mi.larraza.a@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Euskara, eleaniztasun eta kulturartekotasun esparruko aholkularia



Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa **aurrez aurre** egingo da eta **bakar-lanean aritzeko tartea** ere izango du. **30 orduko** iraupena izango du. Kronograma honakoa izango da:

- ⇒ Mintegia, hiru orduko sei saio hilabeteko astearteetan 9:30-12:30: azaroak 12, abenduak 3, urtarrilak 14, otsailak 11, martxoak 11 eta maiatzak 13. Lurraldeka antolatua.
- ⇒ Monografikoen datak zehazteke.
- ⇒ Bakar-lanerako tartea: baliabideak bukatzeko beharrezkoa dena.

Parte-hartzaileek izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez egingo dute. Mintegira joatea eta ikasitakoa ikastetxean zabaltzea eta praktikan jartzea eskatzen da.

Idazkaritza: Araba eraginguneko idazkaritza → araba.idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ Hizkuntzak](#)

[↑ lehenengo begirada](#)

Early Start to English: (Haur Hezkuntzan ingelesa irakasten laguntzeko mintegia)

Deskribapen orokorra

"Early Start to English: Haur Hezkuntzan ingelesa irakasten laguntzeko" mintegia helburua **Haur Hezkuntzako maisu-maistrei ingeles hizkuntzaren irakaskuntzarako tresnak eta estrategiak eskaintzea da**, haien praktika pedagogikoa hobetzeko eta ikasleen hizkuntza gaitasunak garatzeko.

Mintegian zehar, parte-hartzaileek **ingeles hizkuntzaren irakaskuntzarako metodologiak eta jarduerak ezagutu**ko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, ikasleen komunikazio-gaitasunak garatzeko eta ingeles hizkuntzarekiko jarrera positiboa sustatzeko helburuarekin. Gainera, **beste ikastetxe batzuetako esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeko aukera** izango dute, horrela praktika onak bultzatuz.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Haur hezkuntzarako egokiak diren ingeles hizkuntzaren irakaskuntzarako metodologiak eta jarduerak ezagutzea.
- ✓ Ikasleen komunikazio-gaitasunak garatzeko tresnak eskuratzea.
- ✓ Haur Hezkuntzako ikasleengan ingeles hizkuntzarekiko jarrera positiboa sustatzea.
- ✓ Beste ikastetxe batzuetako esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:



- ✓ Haur Hezkuntzako ikasleen ingeles hizkuntzaren oinarrizko gaitasuna eskuratzea.
- ✓ Irakasleen praktika hobetzea eta metodologia eraginkorrak aplikatzea.
- ✓ Haur Hezkuntzako etapan ingeles hizkuntzaren irakaskuntza prozesuak indartzea.
- ✓ Mintegietan sortutako baliabide pedagogikoak erabili eta partekatzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Mintegi hau Haur Hezkuntzako etapan ingelesa hizkuntza lantzea erabaki duten eta horretarako metodologia egokiak txertatu nahi dituzten ikastetxeei zuzenduta dago. Ikastetxe horietako Haur Hezkuntzan ingelesa ematen duten maisu-maistrek parte hartu ahal izango dute, eta konpromisoa hartzen dute mintegian ikasitakoa beren ikastetxeko ingeles irakasleen artean partekatzeko, eta eskuratu dituzten tresna eta prozesu pedagogikoak ikasgeletan praktikan jartzeko.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Bego Iturgaitz Rodríguez (begoiturgaiz@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Euskara, eleaniztasun eta kulturartekotasun esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Mintegia **aurrez aurre** egingo da, eta **bi orduko zortzi saio** izango ditu. **Saioak astelehenetan** izango dira, **14:30etik 16:30ak** arte.

- ⇒ Araba eta Gipuzkoako ikastetxeetako mintegia Bergarako Miguel Altuna LHII ikastetxean izango da. Datak: urriaren 14an, azaroaren 25ean, abenduaren 16an, urtarrilaren 20an, otsailaren 24an, martxoaren 24an, apirilaren 28an eta maiatzaren 26an.
- ⇒ Bizkaiko ikastetxeetako mintegia Getxoko Berritzegunean. Datak: urriaren 14an, azaroaren 25ean, abenduaren 9an, urtarrilaren 20an, otsailaren 17an, martxoaren 24an, apirilaren 28an eta maiatzaren 19an

Parte-hartzaileen izen-ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez izango da.

Idazkaritza: Araba eraginguneko idazkaritza → araba.idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ Hizkuntzak](#)

[↑ Lehenengo begirada](#)

2. BEGIRADA: Klaustro osoari edo klaustroko profesional talde bati zuzendutako formakuntza

Matematikaren didaktika Lehen Hezkuntzan- ubidea-



Deskribapen orokorra

Ubide honen helburu nagusia lehen hezkuntza ikastetxeetako irakasleen konpetentzia matematikoaren irakaskuntza garatzea da. Praktika profesional hau garatzeko aspektu anitzak jorratu behar dira: **Zer irakatsi** (Curriculum), **Nola irakatsi** (didaktika) eta **Zertarako irakatsi** (ikasleen irteera profila lortzeko helburua).

Formakuntza jarduera honek Lehen Hezkuntzako matematikaren irakaskuntzari lotutako tresnak eta estrategiak eskaintzen ditu: matematika lantzeko ezinbesteko faseak ezagutzea, apendizaiarekin lotutako teoretatik abiatuta; testuinguruan kokatutako problemetatik abiatuta baliabideak eta estrategiak ezagutzea eta erabiltzea...

Matematikaren didaktikan murgiltzea ezinbestekoa da, ezagutza didaktikoa curriculum inplementatzeko modua da eta.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Matematikaren didaktikan sakontzea.
- ✓ Didaktika eta curriculum lotzea: Zer irakatsi eta nola irakatsi.
- ✓ Baliabide manipulatio eta teknologikoak ezagutzea eta irakaskuntzan aplikatzea.
- ✓ Matematikaren irakaskuntza hobetzeko tresnak eta estrategiak eskuratzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasleen matematikaren ulermena eta trebetasunak hobetzea.
- ✓ Irakasleek matematikaren faseak ezagutzea eta inplementatzea.
- ✓ Praktiken bankua sortzea, modu kooperatiboan lan eginez.
- ✓ Ikasleen konpetentzia matematikoaren lorpen maila hobetzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ubide hau lehen hezkuntzako ikastetxeei zuzendatuta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek **irakasle arduradun bat izendatu** behar dute eta irakasle arduradunak ubidea kudeatzeko eta zuzentzeko trebakuntza jasoko du Berritzegune Nagusitik.

Parte hartzen duten irakasleek hurrengo konpromisoak hartzen dituzte:

- ikasitakoa gelan inplementatzea
- Klaustroan ikastaroa zabaltea, parte-hartzailea gidari izanik.
- Praktiken bankuan parte hartzea



Formakuntza-jarduera %80ko bertaratze tasa lortzea eta online ikastaroa burutzea derrigorrezkoa izango da.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Rosa Hidalgo Perez (r-hidalgo@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-konpetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Ubidea **formatu hibridoan** eskainiko da, aurrez aurre eta online saioekin. Bestalde, antolaketa desberdina izango du ikastetxeetako irakasle arduradunentzat eta ikastetxeetako irakasle taldeentzat.

Ikastetxeetako irakasle arduradunentzat aurrez aurreko saioak

Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du zer pertsona den egokiena, BeA figura edo BODI irakasleak, klaustroari ezagutza helarazteko. Pertsona horrek jasoko du formakuntza, **aurrez aurre**, eta Berritzegune Nagusiaren ardurapean.

Aurrez aurreko saio horietan ikastetxe desberdinetako irakasle arduradunek aldez aurretik beraien klaustroetan landuko den formakuntza-paketea (online ikastaroa) eta materiala ezagutu eta landuko dute. Bestalde, saio horietan arduradun bakoitzak bere klaustroaren formakuntzaren jarraipena egiteko baliabideak eskuratuko ditu. Bide batez, arduradunen arten praktika onak partekatuko dira, eta sortutako zalantzak eta arazoak bideratzeko estrategiak landuko dira ere.

Aurrez aurreko saioen datak:

- urriaren 29an hasierako saioa
- azaroaren 26an
- urtarrilaren 28an
- otsailaren 25ean,
- martxoaren 25ean
- apirilaren 29an amaierako saioa.

Arduradunek **40 orduko** ziurtagiria lortuko dute.

Ikastetxe bakoitzeko irakasle-taldearentzat formakuntza

Formakuntzaren zati honek formatu mistoa izango du:

- ⇒ **online**. Irakasle arduradunak bere lankideen onlineko **15 orduko ikastaro** hori bideratu eta zuzenduko du.



- ⇒ **Ikastetxean aurrez aurreko topaketak gogoetarako**, zalantzak argitzeko eta erabakiak hartzeko. Arduradunaren lana izango da ikastetxean aurrez aurreko topaketak horiek antolatzea eta dinamizatzea.

Irakasleek **15 orduko** ziurtagiria lortuko dute.

Izena ematea zuzendariaren bidez egingo da.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

Matematikaren didaktika Bigarren Hezkuntzan- ubidea-

Deskribapen orokorra

Ubide honen helburu nagusia bigarren hezkuntza ikastetxeetako irakasleen **konpetentzia matematikoaren irakaskuntza** garatzea da. Praktika profesional hau garatzeko aspektu anitzak jorratu behar dira: **Zer irakatsi** (Curriculum), **Nola irakatsi** (didaktika) eta **Zertarako irakatsi** (ikasleen irteera profila lortzeko helburua).

Formakuntza jarduera honek Bigarren Hezkuntzako matematikaren irakaskuntzari lotutako tresnak eta estrategiak eskaintzen ditu: matematika lantzeko ezinbesteko faseak ezagutzea, apendizaiarekin lotutako teoretatik abiatuta; testuinguruan kokatutako problematik abiatuta baliabideak eta estrategiak ezagutzea eta erabiltzea

Matematikaren didaktikan murgiltzea ezinbestekoa da, ezagutza didaktikoa curriculum inplementatzeko modua da eta.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Matematikaren didaktikan sakontzea.
- ✓ Didaktika eta curriculum lotzea: Zer irakatsi eta nola irakatsi.
- ✓ Baliabide manipulatio eta teknologikoak ezagutzea eta irakaskuntzan aplikatzea.
- ✓ Matematikaren irakaskuntza hobetzeko tresnak eta estrategiak eskuratzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasleen matematikaren ulermena eta trebetasunak hobetzea.
- ✓ Irakasleek baliabide manipulatioak eta teknologiak erabiltzea.



- ✓ Praktiken bankua sortzea, modu kooperatiboan lan eginez.
- ✓ Ikasleen konpetentzia matematikoaren lorpen maila hobetzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ubide hau bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzendatuta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek **matematikako irakasle arduradun bat izendatu** behar dute eta irakasle arduradunak ubidea kudeatzeko eta zuzentzeko trebakuntza jasoko du Berritzegune Nagusitik.

Parte hartzen duten irakasleek hurrengo konpromisoak hartzen dituzte:

- ikasitakoa gelan inplementatzea
- Mintegian ikastaroa zabaltzea, parte-hartzailea gidari izanik.
- Praktiken bankuan parte hartzea

Formakuntza-jarduera %80ko bertaratze tasa lortzea eta online ikastaroa burutzea derrigorrezkoa izango da.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Itziar Bengoa Ortiz de Artiñano (i.bengoortiz@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-konpetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Ubidea hibrido formatuan eskainiko da, aurrez aurre eta online saioekin. Bestalde, antolaketa desberdina izango du ikastetxeetako irakasle arduradunentzat eta ikastetxeetako irakasle taldeentzat.

Ikastetxeetako irakasle arduradunentzat aurrez aurreko saioak

Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du zer matematika mintegiko irakaslea den egokiena, matematika mintegikideei ezagutza helarazteko. Pertsona horrek jasoko du formakuntza, **aurrez aurre**, eta Berritzegune Nagusiaren ardurapean.

Aurrez aurreko saio horietan ikastetxe desberdinetako irakasle arduradunek aldeztu aurretik beraien mintegietan landuko den formakuntza-paketea (online ikastaroa) eta materiala ezagutu eta landuko dute. Bestalde, saio horietan arduradun bakoitzak bere mintegikideen formakuntzaren jarraipena egiteko baliabideak eskuratuko ditu. Bide batez, arduradunen arten praktika onak partekatuko dira, eta sortutako zalantzak eta arazoak bideratzeko estrategiak landuko dira ere.

Aurrez aurreko saioen datak:



- Urriak 30, hasierako saioa
- Azaroak 27
- Urtarrilak 29
- Otsailak 26
- Martxoak 26
- Apirilak 30, amaierako saioa

Arduradunek **40 orduko** ziurtagiria lortuko dute.

Ikastetxe bakoitzeko irakasle-taldearentzat formakuntza

Formakuntzaren zati honek formatu mistoa izango du:

- ⇒ **online**. Irakasle arduradunak bere lankideen onlineko **15 orduko ikastaro** hori bideratu eta zuzenduko du.
- ⇒ **Ikastetxean aurrez aurreko topaketak gogoetarako**, zalantzak argitzeko eta erabakiak hartzeko. Arduradunaren lana izango da ikastetxean aurrez aurreko topaketak horiek antolatzea eta dinamizatzea.

Irakasleek **15 orduko** ziurtagiria lortuko dute.

Izena ematea zuzendariaren bidez egingo da.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

Zientziaren didaktika Lehen Hezkuntzan -ubidea-

Deskribapen orokorra

"Zientziaren Didaktika LH" ubideak Lehen Hezkuntzako irakasleei STEM funtsezko konpetentziaren alderdi zientifikoak irakasteko tresnak eta estrategiak eskaintzea du helburu. Ubide honetan, irakasleek STEM konpetentziaren deskriptoreak eta ikasgelako konpetentzia-atazak aztertuko dituzte, natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza arloko curriculum-elementuekin konektatzeko. Gainera, kanpo ebaluazioetarako konpetentzia zientifikoa eta curriculumaren STEM konpetentzien arteko zehaztapenak alderatuko dira, koherentziaren ebidentziak erakusteko.

Formakuntzan zehar, parte-hartzaileek STEM konpetentziaren deskriptoreak aztertuko dituzte eta ikasgelako konpetentzia-atazak lantzeko metodologiak ezagutuko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak



uztartuko dira, eta irakasleek ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Saioak hibrido formatuan egingo dira, aurrez aurre eta online formatuan.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da, talde-lanak eta eztabaidak bultzatuz. Parte-hartzaileek esperientziak trukatu dituzte eta ikasitakoa ikasgelan aplikatzeko konpromisoa hartuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ STEM funtsezko kompetenziaren deskriptoreak aztertzea kompetenziaren alderdi zientifikoak zehazteko.
- ✓ Ikasgelako kompetentzia-atazak lantzea, natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza arloko curriculum-elementuekin konektatzeko.
- ✓ Kanpo ebaluazioetarako kompetentzia zientifiko eta curriculumaren STEM kompetentzien arteko zehaztapenak alderatzea, koherentziaren ebidentziak erakusteko.
- ✓ Irakasleek STEM kompetenziaren irakaskuntza hobetzeko tresnak eta estrategiak eskuratzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasleen STEM kompetentzien ulermena eta trebetasunak hobetzea.
- ✓ Irakasleek metodologia aktiboak eta praktikokoak erabiltzea STEM kompetentziak lantzeko.
- ✓ Ikastetxean STEM kompetentzien irakaskuntza berritzailea eta eraginkorra ezartzea.
- ✓ Ikasleen emaitza akademikoen hobekuntza STEM arloetan.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ubide hau lehen hezkuntzako ikastetxeei zuzendatuta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek **irakasle arduradun bat izendatu** behar dute eta irakasle arduradunak ubidea kudeatzeko eta zuzentzeko trebakuntza jasoko du Berritzegune Nagusitik.

Parte hartzen duten irakasleek hurrengo konpromisoak hartzen dituzte:

- ikasitakoa gelan inplementatzea
- Klaustroan ikastaroa zabaltzea, parte-hartzailea gidari izanik.
- Praktiken bankuan parte hartzea

Formakuntza-jarduera %80ko bertaratze tasa lortzea eta online ikastaroa burutzea derrigorrezkoa izango da.

Arduraduna



Formakuntzaren arduraduna Karlos Sukuntza Pagola (bnteknologia@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-konpetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Ubidea **hibrido formatuan** eskainiko da, aurrez aurre eta online saioekin. Bestalde, antolaketa desberdina izango du ikastetxeetako irakasle arduradunentzat eta ikastetxeetako irakasle taldeentzat.

Ikastetxeetako irakasle arduradunentzat aurrez aurreko saioak

Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du zer pertsona den egokiena, BeA figura edo BODI irakasleak, klaustroari ezagutza helarazteko. Pertsona horrek jasoko du formakuntza, **aurrez aurre**, eta Berritzegune Nagusiaren ardurapean.

Aurrez aurreko saio horietan ikastetxe desberdinetako irakasle arduradunek aldez aurretik beraien klaustroetan landuko den formakuntza-paketea (online ikastaroa) eta materiala ezagutu eta landuko dute. Bestalde, saio horietan arduradun bakoitzak bere klaustroaren formakuntzaren jarraipena egiteko baliabideak eskuratuko ditu. Bide batez, arduradunen arten praktika onak partekatuko dira, eta sortutako zalantzak eta arazoak bideratzeko estrategiak landuko dira ere.

Aurrez aurreko saioen datak:

- Urriak 15, hasierako saioa
- Azaroak 12
- Urtarrilak 14
- Otsailak 11
- Martxoak 11

Arduradunek **40 orduko** ziurtagiria lortuko dute.

Ikastetxe bakoitzeko irakasle-taldearentzat formakuntza

Formakuntzaren zati honek formatu mistoa izango du:

- ⇒ **online**. Irakasle arduradunak bere lankideen onlineko **15 orduko ikastaro** hori bideratu eta zuzenduko du.
- ⇒ **Ikastetxean aurrez aurreko topaketak gogoetarako**, zalantzak argitzeko eta erabakiak hartzeko. Arduradunaren lana izango da ikastetxean aurrez aurreko topaketak horiek antolatzea eta dinamizatzea.

Irakasleek **15 orduko** ziurtagiria lortuko dute.



Izena ematea zuzendariaren bidez egingo da.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

Zientziaren didaktika Bigarren Hezkuntzan -ubidea-

Deskribapen orokorra

"Zientziaren Didaktika Bigarren hezkuntzan" ubideak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei STEM funtsezko kompetenziaren alderdi zientifikoak irakasteko tresnak eta estrategiak eskaintzea du helburu. Ubide honetan, irakasleek STEM kompetenziaren deskriptoreak eta ikasgelako kompetentzia-atazak aztertuko dituzte, natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza arloko curriculum-elementuekin konektatzeko. Gainera, kanpo ebaluazioetarako kompetentzia zientifikoa eta curriculumaren STEM kompetentzien arteko zehaztapenak alderatuko dira, koherentziaren ebidentziak erakusteko.

Formakuntzan zehar, parte-hartzaileek STEM kompetenziaren deskriptoreak aztertuko dituzte eta ikasgelako kompetentzia-atazak lantzeko metodologiak ezagutuko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta irakasleek ikasitakoa ikastetxean implementatzeko konpromisoa hartuko dute. Saioak hibrido formatuan egingo dira, aurrez aurre eta online formatuan.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da, talde-lanak eta eztabaidak bultzatuz. Parte-hartzaileek esperientziak trukatu dituzte eta ikasitakoa ikasgelan aplikatzeko konpromisoa hartuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ STEM funtsezko kompetenziaren deskriptoreak aztertzea kompetenziaren alderdi zientifikoak zehazteko.
- ✓ Ikasgelako kompetentzia-atazak lantzea, natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza arloko curriculum-elementuekin konektatzeko.
- ✓ Kanpo ebaluazioetarako kompetentzia zientifikoa eta curriculumaren STEM kompetentzien arteko zehaztapenak alderatzea, koherentziaren ebidentziak erakusteko.
- ✓ Irakasleek STEM kompetenziaren irakaskuntza hobetzeko tresnak eta estrategiak eskuratzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasleen STEM kompetentzien ulermena eta trebetasunak hobetzea.
- ✓ Irakasleek metodologia aktiboak eta praktikoak erabiltzea STEM kompetentziak lantzeko.



- ✓ Ikastetxean STEM kompetentzien irakaskuntza berritzailea eta eraginkorra ezartzea.
- ✓ Ikasleen emaitza akademikoen hobekuntza STEM arloetan.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ubide hau bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek **zientzietako irakasle arduradun bat izendatu** behar dute eta irakasle arduradunak ubidea kudeatzeko eta zuzentzeko trebakuntza jasoko du Berritzegune Nagusitik.

Parte hartzen duten irakasleek hurrengo konpromisoak hartzen dituzte:

- ikasitakoa gelan inplementatzea
- Mintegian ikastaroa zabaltzea, parte-hartzailea gidari izanik.
- Praktiken bankuan parte hartzea

Formakuntza-jarduera %80ko bertaratze tasa lortzea eta online ikastaroa burutzea derrigorrezkoa izango da.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Karlos Sukuntza Pagola (bnteknologia@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-kompetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Ubidea **hibrido formatuan** eskainiko da, aurrez aurre eta online saioekin. Bestalde, antolaketa desberdina izango du ikastetxeetako irakasle arduradunentzat eta ikastetxeetako irakasle taldeentzat.

Ikastetxeetako irakasle arduradunentzat aurrez aurreko saioak

Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du zer zientzia mintegiko irakaslea den egokiena, zientzia mintegikideei ezagutza helarazteko. Pertsona horrek jasoko du formakuntza, **aurrez aurre**, eta Berritzegune Nagusiaren ardurapean.

Aurrez aurreko saio horietan ikastetxe desberdinetako irakasle arduradunek aldez aurretik beraien mintegietan landuko den formakuntza-paketea (online ikastaroa) eta materiala ezagutu eta landuko dute. Bestalde, saio horietan arduradun bakoitzak bere mintegikideen formakuntzaren jarraipena egiteko baliabideak eskuratuko ditu. Bide batez, arduradunen arten praktika onak partekatuko dira, eta sortutako zalantzak eta arazoak bideratzeko estrategiak landuko dira ere.

Aurrez aurreko saioen datak:



- Urriak 15, hasierako saioa
- Azaroak 12
- Urtarrilak 14
- Otsailak 11
- Martxoak 11

Arduradunek **40 orduko** ziurtagiria lortuko dute.

Ikastetxe bakoitzeko irakasle-taldearentzat formakuntza

Formakuntzaren zati honek formatu mistoa izango du:

- ⇒ **online**. Irakasle arduradunak bere lankideen onlineko **15 orduko ikastaro** hori bideratu eta zuzenduko du.
- ⇒ **Ikastetxean aurrez aurreko topaketak gogoetarako**, zalantzak argitzeko eta erabakiak hartzeko. Arduradunaren lana izango da ikastetxean aurrez aurreko topaketak horiek antolatzea eta dinamizatzea.

Irakasleek **15 orduko** ziurtagiria lortuko dute.

Izena ematea zuzendariaren bidez egingo da.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

Programazio didaktikoak eta ikas-egoerak -Nooc-

Deskribapen orokorra

"Programazio Didaktikoak eta Ikas-Egoerak" noocak helburu du **irakasleek programazio didaktikoak eta ikas-egoerak diseinatzeko beharrezko tresnak eta estrategiak eskuratzea**. Ikasturte hasieran diseinatu behar diren **programazio didaktikoen egitura ezagutzea** eta hauek **nola osatu behar diren ikastea** funtsezkoa da ikasleen ikaskuntza prozesua eraginkortasunez planifikatzeko. Ikastaro honetan, irakasleek programazio didaktikoen eta ikas-egoeren egitura eta atalak aztertuko dituzte, eta diseinurako gakoak ezagutuko dituzte.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek programazio didaktikoaren atalak ezagutuko dituzte, eta bakoitzaren testuinguruari egokিতuta, ikastetxerako programazio didaktikoak diseinatuko gakoak eskura izango dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Formakuntza online formatuan eskainiko da, Moodle plataformaren bidez.



Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Saioetan parte-hartzaileek ikasitakoa eguneroko lanean aplikatzeko konpromisoa hartuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Ikasturte hasieran diseinatu behar diren programazio didaktikoen egitura ezagutzea.
- ✓ Programazio didaktikoa egiteko proposatuko atalak eta hauek betetzeko gakoak ezagutzea.
- ✓ Ikastetxerako programazio didaktikoak diseinatzea bakoitzaren testuinguruari egokituta.
- ✓ Ikasturtean zehar diseinatu behar diren proposatutako ikas-egoeren egitura eta atalak ezagutzea.
- ✓ Ikas-egoeren diseinurako gakoak ezagutzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikastetxean programazio didaktiko eraginkorrak sortzea eta ezartzea.
- ✓ Irakasleek ikas-egoera berritzaileak diseinatzea eta praktikan jartzea.
- ✓ Ikastetxean ikas-egoeren eta programazio didaktikoen kalitatea hobetzea.
- ✓ Ikasleen ikaskuntza prozesua eta emaitzak hobetzea programazio egoki baten bidez.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Formakuntza-jarduera hau klaustroak edo klaustroaren zati batek programazio didaktikoen eta beren ikas-egoeren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan trebatzeko beharra duten ikastetxeei zuzenduta dago. Indarrean dagoen araudiaren eta ikastetxeko erabaki curricularren arabera, tresna horien helburua da irakaskuntza-prozesua hobetzea dagozkien arloetan, ikasgaietan edo eremuetan.

Bertan parte hartzen duten ikastetxeek, beraien programazio didaktikoak eta ikas-egoerak eguneratzeko konpromisoa hartuko dute.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Marina Gigosos Mozo (m-gigosos@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-konpetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Formakuntza online formatuan eskainiko da, Moodle plataformaren bidez. Guztira **5 orduko** iraupena izango du.



Izena ematea zuzendariaren bidez egingo da.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera EZ ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

Kodozentzia -Nooc-

Deskribapen orokorra

"Kodozentzia" NOOC-ak irakasleei **kodozentiaren oinarri teoriko eta kontzeptualak** bereganatzeko eta kodozentiaren **esku-hartzean gako diren elementuak identifikatzeko** tresnak eskaintzea du helburu. Kodozentiaren bidez, irakasleek elkarrekin lan egitea eta elkarlanean aritzea sustatzen da, ikasleentzako ikaskuntza-esperientzia aberatsagoa eta osatuagoa eskaintzeko. Ikastaro honek irakasleen eta ikasleen rolen inguruko hausnarketa bultzatzen du, kodozentiaren bidezko irakaskuntza-praktikak hobetzeko.

Formakuntzan zehar, parte-hartzaileek kodozentiaren oinarri teorikoak eta kontzeptualak aztertuko dituzte, esku-hartze gakoak identifikatuz eta irakasleen eta ikasleen rola hausnartuz. Eduki teorikoak eta praktikak uztartuko dira, eta ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Ikastaroa online formatuan eskainiko da, NOOC formatua erabiliz.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Saioetan, talde-lanak eta eztabaidak egingo dira, parte-hartzaileen arteko elkarlana eta esperientzia trukatzeko bultzatuz.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Kodozentiaren oinarri teoriko eta kontzeptualak bereganatzea.
- ✓ Kodozentiaren esku-hartzean gako diren elementuak identifikatzea.
- ✓ Kodozentiaren baitan irakaslearen rola eta esku-hartzearen inguruan hausnartzea.
- ✓ Kodozentiaren baitan ikaslearen rola eta esku-hartzearen inguruan hausnartzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Kodozentiaren praktika eraginkorra sustatzea ikastetxean.
- ✓ Irakasleen arteko elkarlana eta kooperazioa hobetzea.
- ✓ Ikasleentzako ikaskuntza-esperientzia aberatsagoak eta osatuagoak eskaintzea.
- ✓ Kodozentiaren bidez, ikasleen emaitza akademikoak hobetzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak



Formakuntza-jarduera hau klaustroak edo klaustroaren zati batek kodozentzian trebatzeko beharra duten ikastetxeei zuzenduta dago. Indarrean dagoen araudiaren eta ikastetxeko erabaki curricularren arabera, metodologia honen helburua da irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak hobetzea.

Bertan hartzen duten ikastetxeek konpromisoa hartzen dute gelan kodozentzia praktika sustatzeko, kodozentziarako diseinuak zehaztu eta gelaratzeko.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Anaje Ferreiro Inza (ana.j.ferreiro@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko zuzendaria.

Antolaketa-alderdiak

Formakuntza online formatuan eskainiko da, Moodle plataformaren bidez. Guztira **10 orduko** iraupena izango du.

Izena ematea zuzendariaren bidez egingo da.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera EZ ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

Ikaskuntza kooperatiboa – Nooc-

Deskribapen orokorra

Ikaskuntza kooperatiboa ikasleen ikaskuntza-prozesua aberasteko eta irakasleen arteko lankidetzaz sustatzeko eraginkorra da. "Ikaskuntza Kooperatiboa" NOOC-ak irakasleei metodologia honen oinarriak ezagutaraztea eta honen inguruko sentsibilizazioa sustatzea du helburu Oinarrizko Hezkuntzako curriculumara ardatz hartuta. Ikastaro honetan, irakasleek ikaskuntza kooperatiboaren abantailak aztertuko dituzte, horien artean, eskola-gatazkak kudeatzeko eta prebenitzeko duen balioa. Gainera, ikaskuntza kooperatiboa ebaluatzeko bidea ezagutuko dute.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek ikaskuntza kooperatiboaren oinarriak eta hori aplikatzeko urratsak ezagutuko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta irakasleek ikasitakoaz gogoeta egingo dute, ikastetxe mailako erabakiak hartzeko konpromisoa hartuz. Ikastaroa online formatuan eskainiko da, Moodle plataformaren bidez.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Banakako eta taldeko hausnarketak egingo dira, parte-hartzaileen arteko elkarlana eta esperientzia trukatzeko bultzatuz.



Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Ikaskuntza kooperatiborako metodologia zertan datzan ezagutzea.
- ✓ Ikaskuntza kooperatiboaren garrantziaz ohartzea dituen abantailak ezagutz.
- ✓ Ikaskuntza kooperatiboaren eremuak hausnarketaren bidez ezagutzea: talde-kohesioa, egitura eta ebaluazioa.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikaskuntza kooperatiboaren inguruan erabakiak hartzea eta IHPan islatzea.
- ✓ Irakasleen arteko elkarlana eta kooperazioa hobetzea.
- ✓ Ikasleen ikaskuntza-esperientzia aberatsagoa eta inklusiboagoa sustatzea..

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Formakuntza-jarduera hau klustroak edo klustroaren zati batek ikaskuntza kooperatiboan trebatzeko beharra duten ikastetxeei zuzenduta dago. Indarrean dagoen araudiaren eta ikastetxeko erabaki curricularren arabera, metodologia honen helburua da irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak hobetzea.

Parte hartzen duten ikastetxeek konpromisoa hartzen dute ikaskuntza kooperatiboaren inguruan erabakiak hartzeko, planifikazioa burutzeko eta egindakoa partekatzeko.

Ikastetxe bakoitzean, dinamizatzailer/arduradun bat izendatu behar da.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Maider Esnaola Otamendi (m.esnaola@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-konpetentziak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneak esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Formakuntza online formatuan eskainiko da, Moodle plataformaren bidez. Guztira **10 orduko** iraupena izango du.

Izena ematea zuzendariaren bidez egingo da.

Idazkaritza: Berritzegune nagusiko idazkaritza bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera EZ ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)



Irakurketa Estrategia ikastetxeetara: Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia berria ezagutarazteko prestakuntza

Deskribapen orokorra

Oinarrizko Hezkuntzan ezartzen dira hezkuntzarako bizi guztirako oinarri sendoak, **irakurtzen ikastea, kasu, irakurketa funtsezkoa da ikasteko prozesuan**. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren baitan, **Ikastetxeko Irakurketa estrategia** funtsezko ardatzetako bat izan beharko da. Ikastetxeak ondo zehaztutako programazio bat behar du, curriculum-arlo guztietatik irakurketaren tratamenduari aurre egingo diona, ikasleei irakurketaren oinarrizko prestakuntza bermatuko diona eta etorkizuneko garapenaren oinarriak irakurle trebe gisa jarriko dituen.

Hori dela eta, "Irakurketa Estrategia ikastetxeetara" ubideak **Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia berria ezagutaraztea du helburu**. Izan ere, irakurketa Estrategiaren betekizun nagusia ikastetxe batean irakurketaren tratamendua antolatzea eta artikulatzea da, irakurle konpetenteak eta onak prestatzeko.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

Hezkuntza Sailak Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia hezkuntza komunitate osoaren eskura jarri berri du: dokumentu egonkor eta irekia da, hau da, Hizkuntza Proiektuaren barruan, ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekin bat etorrita, behar bezala koordinatua eta egituratua, klausurosoak ezagutu eta bete beharrekoa. Horretarako, ikastetxe bakoitzak, bere errealitatetik abiatuta, irakurketa indartzeko helburu zehatzak diseinatuko ditu 2024-2027 eperako aurkezten den Estrategiaren testuinguruak.

Beraz, parte-hartzaileek Irakurketa Estrategiaren gako nagusiak ezagutzea izango da helburu nagusia.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ EHSIE dokumentua hezkuntza komunitate osoaren eskura jartzea.
- ✓ Irakurketa Estrategiaren helburu orokorretatik abiatuta, Ikastetxearen Urteko Planean helburu zehatzak ezartzea eta betetzea.
- ✓ Ikastetxe bakoitzak bere errealitatetik abiatuta Irakurketa Plan propio bat diseinatu ostean, egokitze prozesua abian jartzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Formakuntza hau derrigorrezkoa da Hedatze programan dauden ikastetxeentzat, era berean, zabalik dago beste ikastetxe guztietara; batez ere, Eleaniztasunerantz deialdian parte hartzen duten ikastetxeetara. Parte hartzen duten ikastetxeek irakasle arduradun bat izendatu behar dute eta irakasle arduradunak online



ikastaroa kudeatzeko eta zuzentzeko trebakuntza jasoko du Berritzegune Nagusitik. Izena ematen duten ikastetxeetako irakasle guztiek egin behar dute ikastaroa.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Ainhoa Odriozola (ainhoa.odriozola.a@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Euskara, eleaniztasun eta kulturartekotasun esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Irakurketa Estrategia ikastetxeetara ubidean parte hartzea erabakitzen duten ikastetxeek zuzendariaren bidez egingo dute irakasleen izen-ematea.

Formakuntza **online formatuan** egingo da eta **5 orduko iraupena** izango du.

Kronograma honakoa izango da: Berritzegune Nagusiak ikastetxeetako irakasle arduradunak trebatuko ditu aurrez aurreko saio batean, 2024ko urriaren 9an, herrialde desberdinetan. Ikastetxeetako irakasleek Moodle ikastaroa urria eta azaroa bitartean egingo dute.

Idazkaritza: Gasteizeko Berritzeguneko idazkaritza araba.idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

Ikasteko irakurri: arlo, jakintzagai edo eremu guztietako testu akademikoen irakurketa lantzeko prestakuntza

Deskribapen orokorra

"Ikasteko irakurri" ubideak **arlo, jakintzagai edo eremu guztietako testu akademikoen irakurketa lantzeko prestakuntza** eskaintzen du. Testu akademikoen irakurketak ikasleen arrakasta akademikoan eragin zuzena du, eta horregatik garrantzitsua da irakasleek tresna eraginkorrek izatea eta erabiltzea irakurketaren ulermena eta analisisa sustatzeko.

Ikastaro honen helburua da **irakasleek testu akademikoen ulermena sustatzeko testuak aukeratu eta jarduerak sortzea, eta testuen irakurketaren plangintza egitea eta gelan lantzea.**

Formakuntzan zehar, parte-hartzaileek testu akademikoak hautatzeko eta ulermen jarduerak sortzeko tresnak eskuratuko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira eta ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Formakuntza online formatuan eskainiko da Moodle plataformaren bidez.

Helburuak



Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Ikasleen irakurmenaren ulermena hobetzea.
- ✓ Irakasleen praktika pedagogikoa hobetzea testu akademikoen irakurketa lantzeko tresnak eta teknikak erabiliz.
- ✓ Arlo edo jakintzagai guztietako testu akademikoen ulermena lantzeko testuak aukeratu eta jarduerak sortzea.
- ✓ Prestatutako arlo eta jakintzagai guztietako testuen irakurketaren plangintza egitea eta testu hauen irakurketa geletan lantzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Testu akademikoen ulermena hobetzea ikasleen artean.
- ✓ Irakasleek testu akademikoen irakurketa lantzeko jarduerak sortzea eta aplikatzea.
- ✓ Irakurketa plangintza eraginkorra ezartzea ikastetxean.
- ✓ Ikasleen emaitza akademikoak hobetzea testu akademikoen irakurketaren bidez.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau Lehen hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko eta Bigarren Hezkuntzako arlo edo jakintzagai guztietako irakasleei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeetako irakasleek arlo edo jakintzagai bateko testu bat jarduerekin prestatzea eta ikasgelan aplikatzea bermatu behar dute. Ubidearen ikastetxeko arduradunek irakasleen prestakuntza eta jardueren inplementazioa bideratuko dute eta horien balorazioa egingo dute.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Nerea Iriondo (n-iriondo@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Euskara, eleaniztasun eta kulturartekotasun esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Ikasteko Irakurri ubidean parte hartzea erabakitzen duten ikastetxeek zuzendariaren bidez egingo dute irakasleen eta arduradunaren izen-ematea.

Ikastaroa Ubide formatuan eskainiko da: on-line ikastaroa, inplementazioa ikasgelan eta mintegia –irakasle arduradunarentzat- barnebilduko ditu.

- ⇒ Arduradunen Mintegia: Ikastetxeak irakasle bat izendatu behar du, ikastaroaren arduraduna izango dena. Irakasle hori arduratuko da ikastaroaren kudeaketaz, testu eta jarduerak zuzentzeaz eta inplementazioa antolatzeaz. Kudeaketa hori modu egokian egin ahal izateko mintegi bat izango du, lau on-line saio izango dituena: azaroak 13, abenduak 18, urtarrilak 22 eta maiatzak 7.
- ⇒ On-line ikastaroa: Izena ematen duten klaustrakideek Moodle bidezko on-line ikastaroa egingo dute, 10 orduko iraupena izango duena. Ikastaro horrek eduki teorikoak eta ataza praktikoa izango du,



testua eta jarduerak prestatzea. Ikastaro hau urtarriletik martxora arteko epean egin beharko dute izena ematen duten ikastetxeetako klaustrokideek.

⇒ Inplementazioa: On-line ikastaroaren barruan irakasleek garatzen dituzten testu eta jarduerak ikasgelan inplementatuko dira. Inplementazio hori martxoa-apirila-maiatzean egin beharko dute.

Idazkaritza: Gasteizeko Berritzeguneko idazkaritza araba.idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

Hizkuntzak arlo guztietan: trataera integrala

Deskribapen orokorra

"Hizkuntzak Arlo Guztietan: Trataera Integrala" ubideak helburu du **hizkuntzen eta arloen arteko tratamendu integralean sakontzea eta irakas-praktikak hobetzea**, horretarako metodologia aktibo eta berritzaileak eskainiz.

Ubideko arduradunen mintegia antolatuko da; bertan ikastaroa kudeatzeko, ikas-egoerak zuzentzeko eta inplementatzeko formazioa jasoko dute eta ikastetxean aurrera eramango dute. Mintegi hau online egingo da erkidegoko arduradunen artean.

Ikastaroak hizkuntza era integralean landuko duten hizkuntza eta arloen arteko edo arloen arteko ikas-egoerak sortzeko eta ikasgelan aplikatzeko tresnak emango dizkie parte-hartzaileei. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Ikastaroa online formatuan eskainiko da, Moodle plataformaren bidez.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Hizkuntzen tratamendu integralean sakontzea.
- ✓ Metodologia aktibo eta berritzaileak erabiliz irakas-praktikak hobetzea.
- ✓ Hizkuntza eta arloen edo arloen arteko ikas-egoerak sortzea.
- ✓ Irakasleek hizkuntza eta arloen arteko tratamendu integrala aplikatzea ikasgelan.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Hizkuntzen eta arloen irakaskuntza era integralean egitea.
- ✓ Irakas-praktika hobetzea ikas-egoera integralen bidez.
- ✓ Parte-hartzaileek hizkuntzen eta arloen tratamendu integralaren arabera ikas-egoerak sortzea.



- ✓ Hizkuntzen tratamendu integralaren ezarpena ikastetxean.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau Lehen eta Bigarren Hezkuntzako arlo edo jakintzagai guztietako irakasleei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek irakasle arduradun bat izendatu behar dute, eta irakasle arduradunak, online mintegiaren bidez, ikastaroa kudeatzeko, ikas-egoerak zuzentzeko eta inplementazioa bideratzeko formazioa jaso behar du Berritzegune Nagusiak antolatutako mintegiaren bidez.

Ikastaroan izena ematen duten ikastetxeetako irakasleak arlo edo jakintzagai anitzetakoak izan daitezke; baina, ikas-egoera integrala egiteko talde bat edo gehiago osatu behar dituzte, maila berekoak edo eremu berekoak.

Ubideko arduradunak ikastetxean egindako ikas-egoera integralak zuzenduko ditu. Eta, amaitzeko, ikas-egoera hauen inplementazioa egingo da ikastetxean.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Miren Jaione Urrezi (m.urreizti@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Euskara, eleaniztasun eta kulturartekotasun esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

"Hizkuntzak Arlo Guztietan: Trataera Integrala" ubidean parte hartzea erabakitzen duten ikastetxeek zuzendariaren bidez egingo dute arduradunen eta irakasleen izen-ematea.

Ikastaroa Ubide formatuan eskainiko da: on-line ikastaroa, inplementazioa ikasgelan eta mintegia –irakasle arduradunarentzat- barnebilduko ditu.

- ⇒ Arduradunen mintegia. Ikastetxeak irakasle bat izendatu behar du, ikastaroaren arduraduna izango dena. Arduradunen mintegiak 3 saio izango ditu online; urriak 23, abenduak 11 eta martxoak 26. Ubidearen arduradunek 20 ordutako formazio eta lana izango dute, mintegi, zuzenketa eta inplementazioa barne.
- ⇒ Online ikastaroa. Izena ematen duten klaustrakideek Moodle bidezko on-line ikastaroa egingo dute, 15 orduko iraupena izango duena urria eta abendua bitartean.
- ⇒ Inplementazioa: On-line ikastaroaren barruan irakasleek garatzen duten ikas-egoera ikasgelan inplementatzekoa izango da. Inplementazio hori urtariletik martxora egin beharko dute.

Idazkaritza: Gasteizeko Berritzeguneko idazkaritza araba.idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)



Hiru hizkuntzen trataera integratua

Deskribapen orokorra

"Hiru Hizkuntzen Trataera Integratua" ubideak **hizkuntzen tratamendu integratuan sakontzea** eta irakas-praktikak hobetzea du helburu, metodologia aktibo eta berritzaileak eskainiz. Ikastaro honetan, **hizkuntzen arteko ikas-egoera bat era integratuan sortzea eta geletan aplikatzea lantzen** da.

Ubideko arduradunak hizkuntzako irakasleak izango dira eta arduradunen mintegiaren jasoko dute; bertan ikastaroa kudeatzeko, ikas-egoerak zuzentzeko eta inplementatzeko formazioa jasoko dute eta ikastetxean aurrera eramango dute. Mintegi hau online egingo da erkidegoko arduradunen artean.

Ikastaroa hizkuntzetako irakasleei zuzenduta dago eta hizkuntzen arteko tratamendu integratua gordeko duten ikas-egoerak sortzeko eta ikasgelan aplikatzeko tresnak emango dizkie. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira. Ikastaroa online formatuan eskainiko da, Moodle plataformaren bidez. Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Hizkuntzetako irakasleek, taldeka maila bateko ikas-egoera sortuko dute eta sortutako ikas-egoera gelan aplikatuko dute.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Hizkuntzen tratamendu integratuan sakontzea.
- ✓ Metodologia aktibo eta berritzaileak erabiliz irakas-praktikak hobetzea.
- ✓ Hizkuntzen arteko ikas-egoera integratuak sortzea.
- ✓ Irakasleek hizkuntzen tratamendu integratua aplikatzea ikasgelan.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Hizkuntzen irakaskuntza era integratuan egitea.
- ✓ Irakas-praktika hobetzea ikas-egoera integratuen bidez.
- ✓ Parte-hartzaileek hizkuntzen tratamendu integratuaren araberako ikas-egoerak sortzea.
- ✓ Hizkuntzen tratamendu integratuaren ezarpena ikastetxean.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau Lehen eta Bigarren Hezkuntzako arlo edo jakintzagai guztietako irakasleei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek irakasle arduradun bat izendatu behar dute, eta irakasle arduradunak, online mintegiaren bidez, ikastaroa kudeatzeko, ikas-egoerak zuzentzeko eta inplementazioa bideratzeko formazioa jaso behar du Berritzegune Nagusiak antolatutako mintegiaren bidez.



Ikastaroan izena ematen duten ikastetxeetako irakasleak hizkuntza-arlo bat baino gehiagokoak izan behar dute. Ikas-egoera integratuak egiteko, hizkuntza-arlo ezberdinetako irakasleak taldeetan antolatuko dira, maila berekoak edo eremu berekoak.

Ubideko arduradunak ikastetxean egindako ikas-egoera integratuak zuzenduko ditu. Eta, amaitzeko, ikas-egoera hauen inplementazioa egingo da ikastetxean.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Miren Jaione Urrezi (m.urreizti@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Euskara, eleaniztasun eta kulturartekotasun esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

“Hiru Hizkuntzen Trataera Integratua” ubidean parte hartzea erabakitzen duten ikastetxeek zuzendariaren bidez egingo dute arduradunen eta irakasleen izen-ematea.

Formakuntza Ubide formatuan eskainiko da: on-line ikastaroa, inplementazioa ikasgelan eta mintegia – irakasle arduradunarentzat- barnebilduko ditu.

- ⇒ Arduradunen mintegia. Ikastetxeak irakasle bat izendatu behar du, ikastaroaren arduraduna izango dena. Arduradunen mintegiak 3 saio izango ditu online; urriak 23, abenduak 11 eta martxoak 26. Ubidearen arduradunek 20 orduko formazio eta lana izango dute, mintegi, zuzenketa eta inplementazioa barne.
- ⇒ Online ikastaroa. Izena ematen duten klaustrakideek Moodle bidezko on-line ikastaroa egingo dute, 15 orduko iraupena izango duena urria eta abendua bitartean.
- ⇒ Inplementazioa: On-line ikastaroaren barruan irakasleek garatzen duten ikas-egoera ikasgelan inplementatzekoa izango da. Inplementazio hori urtariletik martxora egin beharko dute.

Idazkaritza: Gasteizeko Berritzeguneko idazkaritza araba.idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria.

[↑bigarren begirada](#)

Hezkuntza Baliabide Irekiak HBI (ExElearning bitartez)

Deskribapen orokorra

Hezkuntza Baliabide Irekiak (HBI) sortzea eta partekatzea gero eta garrantzitsuagoa da hezkuntza komunitatean, irakasleen eta ikasleen ikaskuntza esperientzia aberasteko. "Hezkuntza Baliabide Irekiak eXelearningekin" ubideak irakasleak eXelearning tresnaren erabileran trebatzea eta baliabide irekiak sortzea



du helburu. Formakuntza honek, gainera, irakasleei HBlen filosofiaz jabetzeko eta baliabide banku bateratu bat elikatzeko aukera ematen die.

Formakuntzan, parte-hartzaileek HBlen oinarriak eta metodologia ezagutuko dituzte, eta eXelearning tresna nola erabili ikasiko dute. Modu honetan, baliabide digitalak sortu eta partekatuko dituzte, ikaskuntza prozesua aberastuz eta hezkuntza baliabideen eskuragarritasuna hobetuz. Mintegiak ikastetxe desberdinetako irakasle arduradunen artean lankidetzat sustatuko du, esperientziak eta baliabideak trukatzuz.

Metodologia hibridoa erabiliko da, arduradunaren prestakuntza saioak aurrez aurrekoak eta klaustrokideenak online izango dira. Modulu bakoitzean eduki teorikoak eta praktikoak konbinatuko dira, hausnarketarako eta eztabaidarako tarteak emanez. Ikastetxe bakoitzean prestakuntza dinamizatzaile batek tutorizatuko du, parte-hartzaileek ikasitakoa praktikara eramateko laguntza eskainiz.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ HBlen oinarriak eta filosofia ulertzea.
- ✓ Lizentzia motak ezagutzea.
- ✓ eXelearning tresna erabiltzeko gaitasunak eskuratzea.
- ✓ Hezkuntza baliabide irekiak sortzea eta partekatzea.
- ✓ HBlen filosofia hezkuntza komunitatean zabaltzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasleen ikaskuntza esperientzia aberastea baliabide digitalen bidez.
- ✓ Irakasleen arteko lankidetzat eta baliabideen trukaketa sustatzea.
- ✓ Ikastetxeko baliabide digitalen eskuragarritasuna eta kalitatea hobetzea.
- ✓ Irakasleen trebakuntza teknologikoaren hobekuntza eta konfiantza handitzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau klaustroari edo klaustroko profesional talde bati zuzenduta dago. Parte hartzen duten irakasleek online ikastaroa dinamizatu eta tutorizatzeko konpromisoa hartzen dute, eta arduradunak prestakuntza saioak klaustrokideek baino lehenago egitea. Gainera, ikastaroan ikasitakoa klaustro osoan zabaltzea eta baliabideak ekoiztea eskatzen da.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Cristina Etxeandia Azpiazu (c-etxeandia@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Digitalizazio eta berrikuntza tekniko-pedagogikoaren esparruko aholkularia. Berak esparruko beste aholkulari batzuekin batera, mintegiak eta jarduerak praktikoak dinamizatuko ditu



Antolaketa-alderdiak

Prestakuntza hibridoa izango da:

- ⇒ arduradunak aurrez aurreko saioak izango ditu bi hilabetero astelehenetan, 2 orduko saioetan (azaroa-apirila bitartean). Guztira, arduradunak 30 orduko prestakuntza jasoko du
- ⇒ klaustrokideek online saioak egingo dituzte bigarren hiruhilekoan. Klaustrokideek 20 orduko prestakuntza jasoko du

Prestakuntza ikastetxean bertan dinamizatuko da, parte-hartzaileen beharretara egokituz.

Izena ematea Heziketa aplikazioaren bidez egingo da eta ikastetxeko zuzendariak kudeatuko du.

Idazkaritza: Buruntzaldea-Gorierriko eraginguneko idazkaritza → g04idazkaritza@berritzeguneak.eus → g06idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

Teknopedagogia

Deskribapen orokorra

Teknologia digitalak hezkuntzan integratzea ezinbestekoa da XXI. mendeko ikasleak prestatzeko. "Teknopedagogia" ubideak **irakasleei hezkuntza digitalaren funtsezko gakoak ulertzen lagunduko** die, eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan **teknologia modu eraginkorren txertatzeko estrategiak** garatzen. Ikastaro honetan, Teknopedagogia edo Pedagogia Digitala zer den ulertzeko DigComp esparrua, teknologia hezkuntzan integratzeko ereduak eta ikasleen konpetentzia digitala jorratuko dira, besteak beste.

Formakuntzak irakasleak teknologia digitalak ikasgelan erabiltzen trebatuko ditu, eta praktika onak partekatzeke eta aplikatzeko aukera emango du. Edukiak teorikoak eta praktikoak izango dira, irakasleek beren ikastetxeetan teknologia eraginkortasunez integratzeko baliabideak eskuratuko dituztenak. Mintegiak irakasleen artean lankidetzeta eta esperientzia partekatzea sustatuko du, hezkuntza digitalaren kalitatea hobetuz.

Metodologia hibridoa erabiliko da: arduradunaren prestakuntza saioak aurrez aurrekoak izango dira eta klaustrokideenak online. Saio bakoitzean eduki teorikoak eta praktikoak konbinatuko dira, hausnarketarako eta eztabaidarako tarte emanaz. Ikastetxe bakoitzean prestakuntza dinamizatzaile batek tutorizatuko du, parte-hartzaileek ikasitakoa praktikara eramateko laguntza eskainiz.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:



- ✓ Herritarren konpetentzia digitala biltzen duen DigComp esparrua ezagutzea eta ulertzea.
- ✓ Teknologia hezkuntzan integratzeko ereduak ezagutzea eta ulertzea.
- ✓ Teknologia hezkuntzan integratzeko moduz hausnartzea.
- ✓ 77/2023 Dekretuak konpetentzia digitalaren inguruan esaten duena ezagutzea eta aplikatzeko gaitasunak garatzea.
- ✓ Teknologia digitalak ikasgelan txertatzeko estrategiak garatzea eta praktikan jartzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikasleen ikaskuntza prozesuan teknologia digitalaren erabilera eraginkorra sustatzea.
- ✓ Irakasleen arteko lankidetzeta eta baliabideen trukaketa areagotzea.
- ✓ Ikasleen konpetentzia digitala hobetzea, herritar digitalizatu konpetenteak prestatuz.
- ✓ Irakasleen trebakuntza teknologikoaren hobekuntza eta konfiantza handitzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Ikastaro hau klaustroari edo klaustroko profesional talde bati zuzenduta dago. Parte hartzen duten irakasleek online ikastaroa dinamizatu eta tutorizatzeko konpromisoa hartzen dute, eta arduradunak prestakuntza saioak klaustrokideek baino lehenago egitea. Gainera, ikastaroan ikasitakoa klaustro osoan zabaltzea eta baliabideak ekoiztea eskatzen da.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Cristina Etxeandia Azpiazu (c-etxeandia@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Digitalizazio eta berrikuntza tekniko-pedagogikoaren esparruko aholkularia. Berak, esparruko beste aholkulari batzuekin batera, mintegiak eta jarduera praktikoak dinamizatuko ditu

Antolaketa-alderdiak

Prestakuntza hibridoa izango da:

- ⇒ arduradunak aurrez aurreko saioak izango ditu bi hilabetero astelehenetan, 2 orduko saioetan (azaroa-apirila bitartean). Guztira, arduradunak 30 orduko prestakuntza jasoko du
- ⇒ klaustrokideek online saioak egingo dituzte bigarren hiru hilekoan. Klaustrokideek 20 orduko prestakuntza jasoko du

Prestakuntza ikastetxean bertan dinamizatuko da, parte-hartzaileen beharretara egokituz.

Izena ematea Heziketa aplikazioaren bidez egingo da eta ikastetxeko zuzendariak kudeatuko du.

Idazkaritza: Buruntzaldea-Gorierriko eraginguneko idazkaritza → g04idazkaritza@berritzeguneak.eus → g06idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

Adimen artifiziala sentsibilizazioa-ubidea-

Deskribapen orokorra

Adimen artifiziala (AA) gure gizartearen alderdi guztiak azkar aldatzen ari da, hezkuntza barne. Adimen Artifiziala: Sentsibilizazio ubideak adimen artifizialaren oinarriko kontzeptuak eta hezkuntzan eskaintzen dituen aukerak ezagutzea du helburu. Formakuntza honetan, irakasleek adimen artifizialaren historia, teknologiaren atzean dauden kontzeptuak eta eguneroko bizitzan eta hezkuntzan dituen aplikazioak aztertuko dituzte. Adimen artifizialaren erabilera kritiko eta arduratsua sustatzeko tresnak eta estrategiak eskainiko dira, irakasleek ikasitakoa ikasgelan praktikan jar dezaten.

Formazioan zehar, AAren oinarriko kontzeptuei, hezkuntzan dituen aplikazioei eta planteatzen dituen erronka etiko eta sozialei buruzko edukiak landuko dira. Gainera, AA nola erabili daitekeen irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko kasu praktikoak eta adibideak aztertuko dira.

Metodologia hibridoa erabiliko da, arduradunaren prestakuntza saioak aurrez aurrekoak eta klaustrokideenak online izango dira. Modulu bakoitzean eduki teorikoak eta praktikoak konbinatuko dira, hausnarketarako eta eztabaidarako tarteak emanez. Ikastetxe bakoitzean prestakuntza dinamizatzaile batek tutorizatuko du, parte-hartzaileen arteko lankidetzak sustatuz eta ikasitakoa praktikara eramateko laguntza eskainiz.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Adimen artifizialaren oinarriko kontzeptuak eta hezkuntzan dituen aplikazioak ulertzea.
- ✓ Gelan AA erabiltzearekin lotutako aukerak eta erronkak identifikatzea.
- ✓ AA tresnak praktika hezitzailean integratzeko gaitasunak garatzea.
- ✓ AAren erabilerarekiko jarrera kritiko eta hausnartzailea sustatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Irakasleen aldetik AA tresnen ulermena eta erabilera hobetzea.
- ✓ AA teknologiak jarduera hezitzaileetan integratzea handitzea.
- ✓ Ikasleekin AA nola erabili daitekeen ikertzea.
- ✓ Eskola-ingurune berritzaileago eta teknologikoki aurreratuago bat sortzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak



Ikastaro hau klaustroari edo klaustroko profesional talde bati zuzenduta dago. Parte hartzen duten irakasleek online ikastaroa dinamizatu eta tutorizatzeko konpromisoa hartzen dute, eta arduradunak prestakuntza saioak klaustrokideek baino lehenago egitea. Gainera, ikastaroan ikasitakoa klaustro osoan zabaltzea eta baliabideak ekoiztea eskatzen da.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Cristina Etxeandia Azpiazu (c-etxeandia@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Digitalizazio eta berrikuntza tekniko-pedagogikoaren esparruko aholkularia. Berak, esparruko beste aholkulari batzuekin batera, mintegiak eta jarduera praktikoak dinamizatuko ditu

Antolaketa-alderdiak

Prestakuntza hibridoa izango da:

- ⇒ arduradunak aurrez aurreko saioak izango ditu bi hilabetero astelehenetan, 2 orduko saioetan (azaroa-apirila bitartean). Guztira, arduradunak 30 orduko prestakuntza jasoko du
- ⇒ klaustrokideek online saioak egingo dituzte bigarren hiruhilekoan. Klaustrokideek 20 orduko prestakuntza jasoko du

Prestakuntza ikastetxean bertan dinamizatuko da, parte-hartzaileen beharretara egokituz.

Izena ematea Heziketa aplikazioaren bidez egingo da eta ikastetxeko zuzendariak kudeatuko du.

Idazkaritza: Buruntzaldea-Gorierriko eraginguneko idazkaritza → g04idazkaritza@berritzeguneak.eus → g06idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

E-twinning (ikastetxe hasi berrientzat)-ubidea-

Deskribapen orokorra

[eTwinning egitasmoak](#) Europako beste ikastetxe batzuekin online bidezko lankidetzako proiektuak egiteko plataforma segurua eskaintzen dizu, hezkuntza-berrikuntza sustatuz eta ikasleen arteko elkarlana indartuz. eTwinning zer den eta komunitateko printzipioak ezagutzea, hezkuntzako aldaketa metodologikoko testuinguruan nola integratzen den ulertzea eta proiektuak nola kudeatu eta garatu ikastea dira ikastaro honen helburu nagusiak.

Ubidean zehar, parte-hartzaileek eTwinningean eta hezkuntza-berrikuntzako metodologiaren arteko harremanak ulertuko dituzte, flipped classroom eta CLIL metodologiak aplikatuz. Gainera, eTwinningek hezkuntza nazioartekotzeko duen zeregina eta Erasmus+ programarekin izan ditzakeen elkarrekin



aztertuko dira. Parte-hartzaileek irakaskuntza-praktikak modu kritikoan aztertzeko eta lankidetzaproiektuak diseinatzeko tresnak eskuratuko dituzte.

Metodologia erdipresentziala izango da, monografikoak, mintegiak eta online ikastaro tutorizatuak uztartuz. Ikasitakoa klaustroan partekatu eta ikastetxeko dinamiketan txertatzeko konpromisoa hartuko duzu.

Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ eTwinning egitasmoak eskaintzen dituen aukera guztiak ezagutzea.
- ✓ eTwinning zer den eta komunitateko printzipioak barneratzea.
- ✓ eTwinning eta hezkuntza-berrikuntzako metodologiaren arteko harremanak ulertzea.
- ✓ eTwinning proiektuetan integratzeko eta erabiltzeko dauden kanpoko tresna eta baliabide erabilgarrienak aztertzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ eTwinning proiektuen bidez ikastetxearen hezkuntza-errealitatea hobetzea.
- ✓ Hezkuntza-berrikuntza eta metodologia aktiboak sustatzea ikasgeletan.
- ✓ Ikasleen arteko elkarlana eta ikaskuntza eraginkorra areagotzea.
- ✓ eTwinning proiektuak curriculumean integratzea eta ebaluazio-planak eraginkortasunez aplikatzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Formakuntza hau, eTwinning programan esperientzia gutxi duten ikastetxeentzat da. Bi ibilbide egongo dira: alde batetik, BeAk eta berrikuntza orduak dituzten irakasleentzat mintegiak eta onlineko saioak egongo dira, eta bestetik, gainerako irakasleak onlineko moodle-a egingo dute, berrikuntza arduradunen laguntzarekin.

Berrikuntza arduradunen ikastaroa Moodle batean oinarrituko da. Ondoren, figura horiek ikasitakoa klaustroetara eramatea izango du helburu. Beraz, BeA eta berrikuntza irakasleentzat 30 ordukoa izango da, eta bestelako irakasleentzat 15 ordu.

Partehartzaile guztiek konpromisoa hartzen dute ikastetxeko dinamiketan txertatzeko, eta beste ikastetxeekin esperientziak, jardunbide egokiak eta material didaktikoak partekatuz.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Joserra Jimenez Gil (bneuropa@beritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Nazioartekotzea aholkularia.

Antolaketa-alderdiak



Ubide izaera duen formakuntza honek iraupen ezberdina izango du ikastaroaren arduradunarentzat (BeA edo eta berrikuntza orduak dituzten irakasleak) eta bestelako irakasleentzat.

- ⇒ Arduradunen Mintegia: ikastetxeak izendatutako arduradunentzat (BeA eta berrikuntza orduak dituzten irakasleentzat) ikastaroa erdipresentziala izango da eta 30 orduko iraupena izango du, urriari hasi eta otsailean bukatuko dena. Beraiek arduratuko dira ikastaroan jasotzen dena bere lankideei erakusten eta ikastetxeko ikastaroaren kudeaketaz. Kudeaketa hori modu egokian egiteko, mintegiak egongo dira. Urriaren 2an monografiko bat egingo da Erasmus+ inguruko goiz osoko saioan (2 ordu, aurrez-aurre), otsailaren 5ean mintegi bat (2 ordu, aurrez-aurre), eta ikastaro tutorizatu online egingo da (20 ordu, ikastaroaren teoria eta praktika egiteko, eta 6 ikasitakoa ikastetxera eramateko).
- ⇒ On-line ikastaroa: Klaustroko irakasleentzat, ikastaroak 20 orduko iraupena izango du: 15 ordu Moodle-eko teoria jasotzeko eta 5 ordu ataza praktikoak egiteko eta proiektua praktikan jartzeko.

Izena ematea Heziketa aplikazioaren bidez egingo da eta ikastetxeko **zuzendariak kudeatuko** du.

Idazkaritza: Donostia-Irungo eraginguneko idazkaritza → G01idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

E-twinning (esperientziadun ikastetxeak) -ubidea-

Deskribapen orokorra

[eTwinning egitasmoak](#) esperientziadun ikastetxeei Europako beste ikastetxe batzuekin online bidezko lankidetzak proiektuak egiteko plataforma segurua eskaintzen ditu. Hezkuntza-berrikuntzako metodologiak eta elkarlaneko ikaskuntza sustatzeko aukera ematen du, flipped classroom eta CLIL bezalako metodologietan oinarrituta.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek eTwinning egitasmoaren aukerak aztertuko dituzte, ikastetxearen hezkuntza-errealitatea eta curriculumak garatzeko bitarteko gisa integratzeko. Proiektu bat kudeatzeko, koordinatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren elementuak ezagutuko dituzte, eta eTwinning proiektu baten ebaluazio-plana osatzen duten funtsezko elementuak eta baliabideak aplikatuko dituzte. Gainera, ikasleen artean arazoei, proiektuei, errorekei eta kasu-ikerketek irtenbide posibleak emateko jarduerak diseinatuko dira, informazioa bilatu eta kontrastatzeko, besteekin lankidetzan aritzeko, negoziatzeko, eztabaidatzeko eta akordioak lortzeko metodologietan oinarrituta.

Metodologia erdipresentziala izango da, monografikoak, mintegiak eta online ikastaro tutorizatuak uztartuz. Ikasitakoa klaustroan partekatu eta ikastetxeko dinamiketan txertatzeko konpromisoa hartuko dute parte-hartzaileek.



Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ eTwinning egitasmoaren aukera guztiak ezagutzea eta aztertzea.
- ✓ Proiektuak kudeatzeko eta garatzeko beharrezko elementuak menderatzea.
- ✓ eTwinning proiektu baten ebaluazio-plana osatzen duten funtsezko elementuak eta baliabideak aplikatzea.
- ✓ Irakaskuntza-praktika hobetzeko lankidetzeta-proiektuak diseinatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ eTwinning proiektuen bidez ikastetxeen hezkuntza-errealitatea hobetzea.
- ✓ Hezkuntza-berrikuntza eta metodologia aktiboak sustatzea ikasgeletan.
- ✓ Ikasleen arteko elkarlana eta ikaskuntza eraginkorra areagotzea.
- ✓ eTwinning proiektuak curriculumean integratzea eta ebaluazio-planak eraginkortasunez aplikatzea.

Zein ikastetxeri zuzendua eta eskatutako konpromisoak

Formakuntza hau, eTwinning programan esperientzia gutxi duten ikastetxeentzat da. Bi ibilbide egongo dira: alde batetik, BeAk eta berrikuntza orduak dituzten irakasleentzat mintegiak eta onlineko saioak egongo dira, eta bestetik, gainerako irakasleak onlineko moodle-a egingo dute, berrikuntza arduradunen laguntzarekin.

Berrikuntza arduradunen ikastaroa Moodle batean oinarrituko da. Ondoren, figura horiek ikasitakoa klaustroetara eramatea izango du helburu. Beraz, BeA eta berrikuntza irakasleentzat 30 ordukoa izango da, eta bestelako irakasleentzat 15 ordu.

Partehartzaile guztiek konpromisoa hartzen dute ikastetxeko dinamiketan txertatzeko, eta beste ikastetxeekin esperientziak, jardunbide egokiak eta material didaktikoak partekatzeko.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Joserra Jimenez Gil (bneuropa@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Nazioartekotzea aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Ubide izaera duen formakuntza honek iraupen ezberdina izango du ikastaroaren arduradunarentzat (BeA edoeta berrikuntza orduak dituzten irakasleak) eta bestelako irakasleentzat.

- ⇒ Arduradunen Mintegia: ikastetxeak izendatutako arduradunentzat (BEA eta berrikuntza orduak dituzten irakasleentzat) ikastaroa erdipresentziala izango da eta 30 orduko iraupena izango du,



urrian hasi eta otsailen bukatuko dena. Beraiek arduratuko dira ikastaroan jasotzen dena bere lankideei erakusten eta ikastetxeko ikastaroaren kudeaketaz. Kudeaketa hori modu egokian egiteko, mintegiak egongo dira. Otsailaren 26an, mintegi bat egongo da (2 ordu, aurrez-aurre), eta ikastaro tutorizatua online egingo da (20 ordu, ikastaroaren teoria eta praktika egiteko, eta 6 ikasitakoa ikastetxera eramateko).

- ⇒ On-line ikastaroa: Klaustroko irakasleentzat, ikastaroak 20 orduko iraupena izango du: 15 ordu Moodle-eko teoria jasotzeko eta 5 ordu ataza praktikoak egiteko eta proiektua praktikan jartzeko.

Izena ematea Heziketa aplikazioaren bidez egingo da eta ikastetxeko **zuzendariak kudeatuko** du.

Idazkaritza: Donostia-Irungo eraginguneko idazkaritza → G01idazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑bigarren begirada](#)

3. BEGIRADA: Praktika-komunitate profesionalak

Haur Hezkuntzako Mugimendu Autonomoa: (H)arituak

Deskribapen orokorra

"Haur Hezkuntzako Mugimendu Autonomoa: (H)arituak" praktika-komunitatea **Mugimendu Autonomoan eskarmentua duten ikastetxeen artean gai jakin baten inguruan ekoizpen komun bat sortzea du helburu**. Praktika-komunitatea honetan, parte-hartzaileek Mugimendu Autonomoa sustatzeko beharrezkoak diren lanabesak identifikatuko dituzte, baita eskolen arteko saretzea eta profesionalen ahalduntzea ere. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta irakasleek ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. Ikastaroa aurrez aurre egingo da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde ezberdinetan.

Mugimendu Autonomoa ahalbideratzen duten eskoletako profesionalen arteko lantaldea da. Bertan, Mugimendu Autonomoa ahalbideratzeko elkarren arteko elikadura, kontrastea eta ezagutzak partekatuko dira. Mugimendu Autonomoa ahalbideratzen duten eskoletako profesional hauek errealitate anitzak eta ezberdinak bizi dituzte nahiz eta denek Mugimendu Autonomoa ahalbideratu. Bakoitzak bere argi-ilunak, nahiak, beharrak eta eginikoa komunitatearen esku jarriko du.

Ikasturtean zehar oinarritzat izango den gaia, lehengo saioan erabakiko da demokratikoki. Hau da, Praktika Komunitate Profesionaleko lehen saioan auzolana egiteko gai batzuk jarriko dira mahai gainean. Behin hausnartuta, antolaketa, kudeaketa eta helburua finkatuko dira. Antolaketa eta ibilbidea berdin artekoa bada ere, Berritzegune Nagusiko kolaboratzaileek izango dute hauen balidazioaren giltza.

Helburuak

Praktika-komunitatearen helburuak



- ✓ Mugimendu Autonomoa ahalbideratzen duten eskoletako profesionalek behar dituzten lanabesak identifikatzea.
- ✓ Mugimendu Autonomoa ahalbideratzen duten eskoletako profesionalen elkar ezagutzea eta saretzea.
- ✓ Mugimendu Autonomoa ahalbideratzen duten eskoletako profesionalen ahalduntzea.
- ✓ Mugimendu Autonomoa ahalbideratzen duten eskoletako profesionalek Berritzegune Nagusiko kolaboratzaileen akonpainamendu, aholku, ekarpenak aintzat hartuta eskola ororentzat baliagarriak diren lanabesenak sortzea, garatzea.
- ✓ Mugimendu Autonomoa ahalbideratzen duten eskolen arteko lan kultura hau barneratzea.

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Mugimendu autonomoa sustatzeko lanabesak identifikatzea.
- ✓ Eskolen arteko saretzea eta profesionalen elkar ezagutzea.
- ✓ Profesionalen ahalduntzea mugimendu autonomoaren esparruan.
- ✓ Eskola guztientzat baliagarriak diren lanabesak sortzea eta garatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Mugimendu Autonomoa ahalbideratzeko komunitateari laguntza ematea.
- ✓ Maisu-maistren arteko elkarlana eta saretzea.
- ✓ Haurren garapen osoa eta integrala errespetatzea.

Parte-hartzen duten ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren konpromisoak

Praktika-komunitate hau mugimendu autonomoa sustatzen duten ikastetxeentzat da. Parte hartzen duten ikastetxeek konpromisoa hartzen dute auzolana egiteko eta bertan garatutakoa ikastetxean partekatzeke. Horretarako, eskolak gune eta une egokiak aurreikusi eta gauzatuko ditu.

Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak

Auzolanak berezko du, hartu eta eman. Hartu-emana. Bakoitzak duen dena eman eta duenetik eman. Hortaz, konpromisoa hitza ematea da. Hitza behin emanda, horri dagokion ardura, erantzukizuna berezkoa ditu. Eskola bakoitzak bere errealitatearen arabera, pertsona bati edo batzuei auzolana egiteko baimena emango dio. Profesional honek edo hauek, bertaratzea, hitz emandako ardura, berak duena, eskolak duena eta bizi zein jasotzen duen eskolakideekin partekatzea. Eskolak horretarako gune eta uneak aurreikusi (UP txertatu) eta gauzatuko ditu.

Hezkuntza Sailaren konpromisoak

Berritzegune Nagusiko aholkularien bitartez akonpainamendua eta aholkularitza ematea eta eginiko lanaren balidazioa.



Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Nere Inda Goikoelea (bnhaurhezkuntza@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-kompetentziak, curriculum-garapenean eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneetan esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Praktika-komunitate hau bideratzeko aurrez aurreko topaketak egingo dira. Horretarako ikastetxe bakoitzetik arduradun bat izendatuko du. Bera izango da aurrez aurreko topaketa horietan parte hartuko duena.

Aurrez aurreko saioak erkidegoan antolatuko dira eta lurralde ezberdinetan egingo dira. Urriaren 17 eta 18an, abenduaren 12 eta 13an, eta martxoaren 13 eta 14an izango dira saioak.

Arduradunari prestakuntzako 30 ordu ziurtatuko zaizkio.

Izena ematea Heziketa aplikazioaren bidez egingo da eta ikastetxeko **zuzendariak kudeatuko** du.

Idazkaritza: Berritzegune Nagusiko idazkaritza → bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ hirugarren begirada](#)

Lehen Hezkuntzako Proiektu Globalizatuak: Diziplinartekotasunean mugitzen

Deskribapen orokorra

"Lehen Hezkuntzako Proiektu Globalizatuak: Diziplinartekotasunean mugitzen" izeneko Praktika Komunitate Profesionalak ezagutza partekatutik abiatuta diziplinartekotasunari ekiteko antolaketan eta esku hartzean trebatzeko eta sakontzeko hezkuntza testuinguruak eskaintzea du helburu.

Komunitate honek ikastetxeetan diziplinartekotasuna ezartzeko eta garatzeko prozesua ahalbideratu nahi du. Parte hartzaileek prozesu horretan lagungarria izango zaien ibilbide-orria garatuko dute, komunitatean uztartuko diren alderdi ezberdinekin aberastuz: adituen ekarpenak, alderdi teorikoak, esperientzien trukaketa, ...

Ikastetxeen arteko lantalde bat izango da, eta, bertan, diziplinartekotasuna garatzeko esperientziak, ezagutzak eta baliabideak partekatuko dira. Komunitatean parte hartzea borondatezkoa izango da ikastetxeentzat, baina konpromisoa hartu ondoren, ezarritako konpromisoak bete beharko dituzte. Komunitateko kideen artean auto-antolaketa eta erantzukidetasuna sustatuko dira. Berritzegune Nagusiko aholkularien laguntza izango du, baina berdinen arteko lankidetzeta eta ikaskuntza lehenetsiko dira.



Praktika Komunitate Profesionalean parte-hartzaileek diziplinartekotasunaren oinarriak landuko dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoa uztartuko dira, eta irakasleek ikasitakoa ikastetxean zabaltzeko eta jorratzeko konpromisoa hartuko dute.

Formakuntza erdi-presentziala izango da, aurrez-aurre eta online formatuan, eta metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Saioetan talde-lanak, tailerrak eta gogoeta partekatua egingo dira besteak beste, parte-hartzaileen arteko elkarlana eta esperientzia trukea bultzatuz.

Helburuak

Praktika-komunitatearen helburuak

- ✓ Ikastetxeetan diziplinartekotasuna ezartzeko zein garatzeko prozesua erraztea.
- ✓ Ikastetxeen artean esperientzia, material eta baliabide didaktikoen eta jardunbide egokien trukea sustatzea.
- ✓ Laguntza eta aholkularitza ematea praktika-komunitate baten bidez, hezkuntza esku-hartzea diziplinartekotasunaren ikuspegitik garatzeko.
- ✓ Ikaskuntza partekatua eta irakasleen etengabeko prestakuntza bultzatzea..

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Diziplinartekotasunaren oinarriak ezagutzea eta garatzea.
- ✓ Ikastetxeetan diziplinarteko esku-hartzea planifikatu eta inplementatzeko bide posibleak ezagutzea.
- ✓ Ikastetxean diziplinarteko ikuspegia ezartzeko ibilbide-orria diseinatzea.
- ✓ Esperientzia, material eta baliabide didaktikoak trukitzea.
- ✓ Hezkuntza esku-hartzea diziplinartekotasunaren ikuspegitik garatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikastetxean diziplinarteko ikuspegia ezartzeko bideari ekitea, diseinatutako ibilbide-orriari jarraituz.
- ✓ Irakasleen arteko elkarlana eta kooperazioa sustatzea.
- ✓ Ikasleei ikaskuntza-esperientzia aberatsagoak eskaintzea.
- ✓ Diziplinarteko esku-hartzearen bidez ikasleen kompetentzien garapenari laguntzea eta emaitzak hobetzea.

Parte-hartzen duten ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren konpromisoak

Praktika-komunitate hau Lehen Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago, diziplinarteko proiektuetan interesa duten edo dagoeneko lanean ari direnei. Parte hartzen duten ikastetxeek ordezkari bat izendatu beharko dute (BeA, BODI edo etapako irakasle bat), komunitatearen jardueretan aktiboki parte hartuko



duena. Ordezkeri bakoitzak ikastetxean diziplinarteko ikuspegia ezartzeko konpromisuan aurrera egingo du eta aldi berean, Praktika Komunitate Profesionalean esperientziak, jardunbide egokiak eta materialak partekatu praktika komunitateko beste kideekin.

Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak

- Ordezkeri bat izendatzea (BeA, BODI, edo irakasle izendatua), praktika- komunitatearekin koordinatuko dena eta bertan hartutako konpromisoak ikastetxean ezartzen joatea.
- Komunitatearen jardueretan aktiboki parte hartzea, hala nola truke-saioetan, prestakuntza-saioetan, besteak beste.
- Esperientziak, jardunbide egokiak eta material didaktikoak partekatzea Praktika Komunitateko beste kide batzuekin.
- Ikastetxeko Urteko Prestakuntza Planean diziplinartekotasunari ekiteko prestakuntza-jarduerak, edo gogoeta uneak eskaintzea.

Hezkuntza Sailaren konpromisoak

- Berritzegune Nagusiko aholkularien bitartez laguntza eta aholkularitza ematea.
- Praktiketako komunitateko parte-hartzaileentzako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak antolatzea.

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Ainhoa Basurko Arrizabalaga (ai.basurco@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Irakaskuntza-konpetentziak, curriculum-garapenean eta ikaskuntza-metodologia eta inguruneetan esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Praktika-komunitate hau bideratzeko aurrez aurreko topaketak egingo dira. Horretarako ikastetxe bakoitzetik arduradun bat izendatuko da. Bera izango da aurrez aurreko topaketa horietan parte hartuko duena. Aurrez aurreko topaketek 16 orduko iraupena izango dute.

Praktika-komunitatean **bi ibilbide eskainiko** dira: oinarrizkoa eta garatu-aurreratua.

- ⇒ **Oinarrizko ibilbidea** hasierako etapan dauden edo diziplinartekotasunera saltoa eman nahi duten ikastetxeentzat diseinatuta dago.
- ⇒ **Garatu-aurreratua ibilbidea**, berriz, diziplinarteko proiektuak planifikatzen eta inplementatzen esperientzia duten baina hobekuntzak behar dituzten ikastetxeentzat da.

Izena ematea Heziketa aplikazioaren bidez egingo da eta ikastetxeko **zuzendariak kudeatuko** du.



Idazkaritza: Berritzegune Nagusiko idazkaritza → bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ hirugarren begirada](#)

DBHko 1. eta 2. Mailetan Eremuen Lana Praktika Komunitate Profesionala (EL-PPK)

Deskribapen orokorra

"DBHko 1. eta 2. Mailetan Eremuen Lana" Praktika Komunitate Profesionala, ikastetxe publikoetan eremuen lana diseinatzea, ezartzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea helburu du. Komunitate honek ikastetxeen artean esperientzia, material eta baliabide didaktikoen trukea sustatzen du, baita laguntza eta aholkularitza eskaintzea ere, prozesu hori arrakastaz gauzatzeko. Irakasleek metodologia berritzaileetan trebatzeko eta ikaskuntza partekatua bultzatzeko aukera izango dute.

Ikasturtean zehar, parte-hartzaileek eremuen lana nola diseinatu eta ezarri ikasiko dute, esperientziak partekatuz eta praktika onak trukaturik. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, eta irakasleek ikasitakoa ikastetxean inplementatzeko konpromisoa hartuko dute. EL-PPKn garatuko diren jarduerak erdipresentzialak izango dira, aurrez aurre eta online formatuan.

Metodologia parte-hartzailea eta praktikoa izango da. Saioretan talde-lanak, tailerrak eta eztabaidak egingo dira, parte-hartzaileen arteko elkarlana, esperientzia trukatzeko eta autogestioa bultzatuz. Parte-hartzaileek ikasitakoa eguneroko lanean aplikatzeko konpromisoa hartuko dute.

Helburuak

Praktika-komunitatearen helburuak

- ✓ Ikastetxeetan eremuak ezartzeko zein garatzeko prozesua erraztea.
- ✓ Ikastetxeen artean esperientzia, material eta baliabide didaktikoen eta jardunbide egokien trukea sustatzea.
- ✓ Laguntza eta aholkularitza ematea praktika-komunitate baten bidez, hezkuntza esku-hartzea diziplinartekotasunaren ikuspegitik garatzeko.
- ✓ Ikaskuntza partekatua eta irakasleen etengabeko prestakuntza bultzatzea..

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Eremuen lana diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko prozesua erraztea.
- ✓ Ikastetxeen artean esperientzia eta material didaktikoak trukatzeko.
- ✓ Materialgintzan kontrasteak eta akordioak lortzea.
- ✓ Laguntza eta aholkularitza eskaintzea eta berdinen arteko lana sustatzea.



- ✓ Irakasleen etengabeko prestakuntza eta metodologia berritzaileen erabilera bultzatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

Eremuen ikastetxean martxan nola jartzeko eredu eta tresna batzuk ezagutzen ditu.

- ✓ Eremuak esperimintatzeko, ezartzeko edo hasitako ezarpena zabaltzeko konpromisoa hartu du.
- ✓ Beste ikastetxeetan egin duten ibilbideari eta garatu duten esperientziari buruz informazioa lortu du eta ondorioak atera ditu.
- ✓ Eremuen ezarpenaren ikasleen ikaskuntzarekiko eta elkarbizitzarekiko onurekin jabetzen da eta bere ikastetxeko lankideei azaltzeko gai da.
- ✓ Eremuetan garatzeko ikas-egoerak diseinatzeko gai da eta partekatzen prest dago.
- ✓ Praktika komunitatean parte hartzearen abantailak eta alde positiboak baloratzen ditu.

Parte-hartzen duten ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren konpromisoak

EL-PKP honetan DBHko 1. eta 2. mailetan eremuka ari diren edo aritzeko interesa duten bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago.

Parte hartzen duten ikastetxeek hiru mailetan sailkatuko dira eremuetan izan duten ibilbidearen arabera. Ikastetxeek ordezkari bat izendatu behar dute (BeA edo irakasle hautatua) praktika-komunitatearekin koordinatzeko eta ikastetxeko eremuen araberako lanaren jarraipena egiteko.

Praktika komunitatearen koordinazio bileretara ikastetxe bakoitzeko bi kide joatea hobesten da. Ikas komunitateak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan ikastetxeko beste irakasleek ere parte har dezakete, beti ere eremuen lanetan inplikatuak direnak lehentasuna izanik.

Ikastetxeek konpromisoa hartzen dute komunitatearen jardueretan aktiboki parte hartzeko, esperientziak eta material didaktikoak partekatzen, eta eremuak ezartzeko ibilbide orria garatzeko.

Praktika-komunitate hau Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago, eremuak ezartzeko proiektuetan interesa duten edo dagoeneko lanean ari direnei. Parte hartzen duten ikastetxeek ordezkari bat izendatu beharko dute (BeA, BODI edo etapako irakasle bat), komunitatearen jardueretan aktiboki parte hartuko duena. Ordezkari bakoitzak ikastetxean eremuen ikuspegia ezartzeko konpromisuan aurrera egingo du eta aldi berean, Praktika Komunitate Profesionalean esperientziak, jardunbide egokiak eta materialak partekatu praktika komunitateko beste kideekin.

Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak

- Ordezkari bat izendatzea (BeA edo irakasle hautatua), praktika-komunitatearekin koordinatzeko eta ikastetxeko eremuen araberako lanaren jarraipena egiteko.



- Komunitatearen jardueretan aktiboki parte hartzea: truke- saioetan, prestakuntza-saioetan eta eskolak behatzeko saioetan, besteak beste.
- Esperientziak, praktika onak eta material didaktikoak partekatzea komunitateko beste kide batzuekin.
- Ikastetxeko formakuntza-planean, pKn jorratutako gaien inguruko formakuntza garatzea.
- Ikastetxeetan eremuak ezartzeko ibilbide orria garatzea.
- Prozesua ebaluatzea.

Hezkuntza Sailaren konpromisoak

- Berritzegune Nagusiko aholkularien bitartez laguntza eta aholkularitza ematea.
- Eremuetarako baliabide eta material didaktikoen diseinuan elkarlanean hautatzea eta hobetzea.
- Truke eta komunikaziorako espazio birtual bat sortzea.
- Prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak antolatzea.
- Proiektuaren garapenaren eta parte hartzen duten ikastetxeetan duen eraginaren aldizkako jarraipena eta ebaluazioa egitea, hezkuntza-ikuskaritzarekin eta ISEI- IVEIrekin koordinatuta

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Oskar Viguera Rincón (g06zuzendaria@berritzeguneak.eus) da, Lasarteko Berritzeguneko zuzendaria.

Antolaketa-alderdiak

Praktika-komunitatearen barruan hiru ibilbide desberdin ezarriko dira. Ibilbide horiek kontuan hartzen dituzte metodologia pedagogiko horren implementazioan izandako esperientzia-, konpromiso- eta aurrerapen-mailak.

- ⇒ Oinarrizko ibilbidea. Lana eremuen arabera ezartzeko hasierako etapan dauden ikastetxeentzat diseinatuta dago ibilbide hau; hau da, oraindik ez dute planifikatu lana eremuen arabera egitea. Ibilbide honen helburu nagusia da eremuka lanaren oinarri teorikoak eta metodologikoak eskaintzea, hasierako plangintzan laguntzea, curriculuma integratzeko tresnak ematea eta ikasgaien arteko lankidetzaren sustatzea.
- ⇒ Tarteko ibilbidea. Ibilbide hau eremuka lana diseinatzen hasi diren ikastetxeei zuzenduta dago, baita diziplinarteko proiektu puntualak planifikatzen eta inplementatzen hasi direnentzako. Ibilbide honen helburu nagusia da eremuka lanaren praktika pedagogikoak sendotzea, konpetentzien ebaluazioa hobetzea, curriculumaren integrazio eraginkorra sustatzea eta jarraipenerako eta etengabeko hobekuntzarako estrategiak garatzea.
- ⇒ Ibilbide aurreratua. Ibilbide hau eremuka lanaren implementazioan nabarmen aurrera egin dutenei bideratuta dago. Ibilbide honen helburu nagusia da Hezkuntza Baliabide Irekiak sortzea eta komunitateari eskaintzea, berrikuntza pedagogikoa sustatzea, eragin handiko diziplinarteko



proiektuak garatzea, ebaluazio formatiboa indartzea, hezkuntza-ikerketak sustatzea eta praktika onak partekatzea.

Praktika komunitatea erdipresentziala izango da eta parte-hartzea borondatezkoa izango da ikastetxeentzat. Lekua eta ordu kopurua hiru ibilbideen arabera zehaztuko dira, eta gutxienez 10 ordu ikasturtean. Saioak ostegun goizetan izango dira, hiruhilabetean behin gutxienez.

Izena ematea Heziketa aplikazioaren bidez egingo da eta ikastetxeko **zuzendariak kudeatuko** du.

Idazkaritza: Berritzegune Nagusiko idazkaritza → bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ hirugarren begirada](#)

EBALUAZIO KONPENTENTZIALAREN HEZKUNTZA APLIKAZIOA: INPLEMENTAZIO, HEDATZE, FORMAZIO ETA JARRAIPENA -praktika komunitatea-

Deskribapen orokorra

[77/2023 Dekretuak](#) eta [2024ko urtarrilaren 22ko ebaluazio aginduak](#) ezarritako ebaluazio-irizpideak eta helburuak oinarri hartuta, ebaluazio konpetentziala egiteko diseinatutako hezkuntzako aplikazioak ezaugarri hauek ditu:

- Ikaskuntza-prozesuaren erregulazioa: aplikazioak irakasleei eta ikasleei aukera emango die ikaskuntza-prozesua aztertzeko eta erregulatzeko. Irakasleek ikasleen aurrerapenak eta zailtasunak detektatu ahal izango dituzte denbora errealean, eta beharrezko neurriak hartu ahal izango dituzte hezkuntza-ekintza ikasleen beharrianetara egokitzeko.
- Ebaluazio globala, jarraitua eta hezigarria: Ebaluazioak globala eta jarraitua izan behar du, eta aplikazioak ebaluazio-prozesu hori errazteko tresnak eskainiko ditu. Ebaluazio hezigarria izanik, ikasleen aurrerapenak eta garapenak etengabe baloratzeko aukera emango du eta hauen emaitza eta ondorioak ikasleekin partekatzeko feedback atalaren bitartez. Honela, ikasleak bere aurrerapenak, indarguneak eta ahuleziak identifikatu, kontzientzia hartu eta erabakiak hartzeko aukera izango du bere prozesua hobetzeko.
- Ebaluazio Irizpideak, konpetentzia espezifikokoak eta funtsezko konpetentziak: aplikazioak, ebaluazio irizpideen ebaluaziotik, dagokion konpetentziaren eskuratze maila emango du ikasturte amaieran. Arlo edo jakintzagaien konpetentzia espezifikoen eskuratze maila kontutan hartuz, funtsezko konpetentzien maila ondorioztatu ahal izango da, hau da, ikasleen irteera profila.
- Askotariko ebaluazio-tresnak: aplikazioak askotariko ebaluazio-tresnak jasotzeko aukera eskainiko du, ikasleen ikaskuntzen bilakaera behar bezala baloratzeko. Ebidentzia hauen jasoketa ikasleen ezaugarri eta premia indibidualetara egokitu ahal izango da, eta ebaluazio-prozesua pertsonalizatzeko aukera emango dute.



- Komunikazio gardena: Ikastetxeek ikasleei eta haien guraso edo legezko tutoreei ebaluazio-irizpideak, ezinbesteko ikaskuntzak, ebaluazio-prozedura eta kalifikazio irizpideak jakinarazteko aukera emango du aplikazioak. Horrela, prozesu osoa gardena izango da eta gurasoek ikasleen aurrerapenak jarraitzeko aukera izango dute.
- Hezkuntza-arretako neurriak eta laguntzak: Ikasleen aurrerapena espero bezalakoa ez denean, aplikazioak hezkuntza-arretako neurriak eta laguntzak ezartzeko aukera emango du ikasle hauentzat aparteko programazio bat zehaztuz (JPP), ikasle bakoitzaren beharretara egokitutakoa, eta bertan jasotakoaren arabera ebaluatu eta jarraipena egiteko aukera eskainiz. Bertan, planifikatutako laguntza eta neurriak jaso ahal izango dira.
- Informazioaren bilketa eta erabakiak hartzea: aplikazioak irakasle-taldeei koordinazio espazioak eta prozedura sistematikoak ezartzeko aukera emango die ikasleen ikasteko prozesuari buruzko informazioa bildu eta honen inguruko erabaki egokiak hartu ahal izateko, ikasleen ikaskuntza-prozesua orientatzeko balioko dutenak.
- Ikaskuntza eredu konpetentziala: aplikazioak ikaskuntza eredu konpetentziala inplementatzeko tresnak eskainiko ditu Derrigorrezko Hezkuntzan zehar, ikaskuntzarako akonpainamendua eta hezkuntzaren jarraitutasuna bermatuz.
- Ikasle eta ikasle taldearen ebaluazioa: aplikazioak ikasleen eta ikasle taldeen emaitzen analisia egiteko aukera ematen du, ikasturte osoan zehar landu diren ebaluazio irizpide eta konpetentzia espezifikoen taldeko emaitzak eta ikasleen banakoak aztertzeko grafikoak eskainiz. Emaitzen analisiari buruzko ondorioetatik abiatuta, curriculumaren, antolamenduaren eta irakasle-jardunaren hobekuntza-helburuak ezartzeko aukera emango du.

Ebaluazio konpetentzialaren hezkuntza aplikazioa eskuragarri egongo da irailean “Ebaluazio konpetentzialaren praktika komunitate profesionalean” parte hartuko duten oinarritzko hezkuntzako ikastetxeentzat

Ebaluazio konpetentzialaren aplikazioaren inplementazioak berariazko laguntza eta bidaidetza eskatzen ditu. Ikastetxeak oso une desberdinetan daude ebaluazio konpetentzialaren bidean. Hori horrela izanik, izena emango duten ikastetxeak ebaluazio konpetentzian egin duten ibilbidearen arabera multzokatuko dira. Bi talde sortzea proposatzen da: “Ebaluazio konpetentzialaren sakontasunean” eta “ebaluazio konpetentzialaren hastapenetan”. Horrek talde bakoitzaren idiosinkrasiari erantzuteko diseinua ekarri du.



Ebaluazio kompetentzialaren sakotasunean daudenak:

SAIOAK	DATAK	HELBURUAK	EDUKIAK
ERABAKI CURRICULARRAK. ZER?, NORK? NOLA? ZERTARAKO?	URRIAK 7 LH (9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean hartzen diren erabaki curricularren garrantziaz eta ondorioez jabetzea. - Erabaki curricularrak modu bateratu eta hausnartuan hartzearen garrantzia. - Ikasturteko antolaketa curricularren ondorioak identifikatzea ikasleen garapen prozesuan. 	<ul style="list-style-type: none"> • 77/2023 Dekretua. <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza proiektua: Erabaki Curricularrak. • Ikasleen ibilbidearen antolaketa
PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK. EBALUAZIO IRIZPIDEEN ANTOLAKETA ZIKLO ETA IKASMAILETAN.	AZAROAK 11 LH (9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	<ul style="list-style-type: none"> - Programazio didaktikoek zehazten duten marko curricularra aztertzea. Ikaslea erdigunean. - Markoaren koherentziaz hausnartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Programazio didaktikoen ikasturteko antolaketa.
IKAS-EGOERAK. IKASKUNTZA KOMPETENTZIALA OINARRIZKO EZAGUTZA.ZERTARAKO ETA NOLA BATEN TESTUINGURUAN	ABENDUAK 2 LH (9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	<ul style="list-style-type: none"> - Ikas egoeren ebaluazio planteamenduz hausnartzea diseinutik. - Ebaluazio tresnen identifikazioa. - Ebaluazio erraminten diseinu eta aplikazio bateratua. - Irteera profilaren begirada txertatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikas-egoeren diseinua. • Ebaluazio tresnak zer diren. • Erramintak +irteera profila. <ul style="list-style-type: none"> • Erreminten diseinu eta erabilpena
ARLO/JAKINTZAGAIEN ALDERDI INSTRUKZIONALA. ALDERDI PROZESUEN TREBAKUNTZA	URTARRILAK 20 LH (9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	<ul style="list-style-type: none"> - Arlo/ jakintzagaien alderdi instrukzionalaz hausnartzea: prozesuak eta oinarrizko ezagutzak. - Hauek testuinguru kompetentzialetan neurtuko diren prozesuen beharrezko entrenamendu gisa diseinatzea. - Eb. Kompetentzialaren aplikazioan txertatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Alderdi instrukzionala. • Oinarrizko ezagutzak. • Testuinguru kompetentzialak. • Neurketak



EBALUAZIO KONPETENTZIALARAKO DISEINUA, EBIDENTZIEN JASOKETA, UNEAK	<p>OTSAILAK3</p> <p>LH (9:30-11:30)</p> <p>DBH(12:00-14:00)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio konpetentziala ebidentziazeko uneen diseinuaz hausnartzea. - Ebaluazio tresna konpetentzialak diseinatzea eta bateratzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ebidentzien diseinua. • Eb. Tresna konpetentzialak. • Tresnak adostu eta bateratu.
NEURKETAK ETA ERABAKIAK HARTZEA. HISTORIKOA	<p>MARTXOAK 3</p> <p>LH (9:30-11:30)</p> <p>DBH(12:00-14:00)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen ibilbidearen inguruko historikoa jaso eta aztertzeko estrategiak partekatzea. - Neurketen uneak diseinatzea ikasleen beharrei egokitzuz. - Eb. Konpetentzialaren aplikazioan txertatzea eta jasoketa uneak zehaztea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen ebaluazioaren historikoa. • Neurketen uneak
KONPETENTZIALTASUNAREN BEGIRADA	<p>APIRILAK 7</p> <p>LH (9:30-11:30)</p> <p>DBH(12:00-14:00)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Testuinguru konpetentzialak zer diren hausnartu eta ulertzea. - Hauei begirako ikasturteko antolaketa egitea ebaluazio irizpide anitzen konbinaziotik. - Eb. Konpetentzialaren aplikazioan txertatzea eta jasoketa uneak zehaztea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Testuinguru konpetentzialak. • Ebaluazio irizpide anitzen konbinazio eta antolaketa. • Prozesuen identifikazioa. • Ebaluazio konpetentzialaren aplikazioa.
EBALUAZIO JARRAIA: NOIZ. NOLA TXOSTENAK	<p>MAIATZAK 12</p> <p>LH (9:30-11:30)</p> <p>DBH(12:00-14:00)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - “Edukietatik” ikuspegi konpetentziaerako bidea egitea. - Hiruhilekoetako txostenen begirada ulertzea eta hauek aztertuz erabakiak hartzea - Aplikazioaren testuinguruan aplikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Begirada konpetentziala. • Ebaluazioa jarraia. • Ebaluazio txostenak • Ebaluazio konpetentzialaren aplikazioa.
IKASTURTEAN ZEHAR SORTUTAKOAK IKASTETXEEN ARTEAN PARTEKATZEA: IKASTETXEEN ARTEKO MONOGRAFIKO LABURRAK	<p>EKAINAK 2</p> <p>LH (9:30-11:30)</p> <p>DBH(12:00-14:00)</p>	<p>Egindako bidearen hausnarketa partekatua egitea. Sortutako tresna, erreminta, errubrikazio eta materialak partekatzea.</p> <p>Ebaluazko konpetentzialerako aplikazioaren erabilpenaren inguruko elkarjartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ibilbidearen hausnarketa • Sortutako materiala partekatzea • Aplikazioaren erabilpenaren inguruko elkarjartzea



Ebaluazio kompetenzialaren hastapenetan daudenak:

SAIOAK	DATAK	HELBURUAK	EDUKIAK
ERABAKI CURRICULARRAK. ZER?, NORK? NOLA? ZERTARAKO?	URRIAK 21 LH(9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean hartzen diren erabaki curricularren garrantziaz eta ondorioez jabetzea. - Erabaki curricularrak modu bateratu eta hausnartuan hartzearen garrantzia. - Ikasturteko antolaketa curricularren ondorioak identifikatzea ikasleen garapen - prozesuan 	<ul style="list-style-type: none"> • 77/2023 Dekretua • Hezkuntza proiektua: Erabaki Curricularrak. • Ikasleen ibilbidearen antolaketa
PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK. EBALUAZIO IRIZPIDEEN ANTOLAKETA ZIKLO ETA IKASMAILETAN.	AZAROAK 25 LH (9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	<ul style="list-style-type: none"> - Programazio didaktikoez zehazten duten marko curricularra aztertzea. Ikaslea erdigunean. - Markoaren koherentziaz hausnartzea. 	Programazio didaktikoen ikasturteko antolaketa.
IKAS-EGOERAK. IKASKUNTZA KONPETENTZIALA OINARRIZKO EZAGUTZA ZERTARAKO ETA NOLA BATEN TESTUINGURUAN	ABENDUAK 9 LH (9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	<ul style="list-style-type: none"> - Ikas egoeren ebaluazio planteamenduz hausnartzea diseinutik. - Ebaluazio tresnen identifikazioa. - Ebaluazio erraminten diseinu eta aplikazio bateratua. - Irteera profilaren begirada txertatzea. 	Ikas-egoeren diseinua. Ebaluazio tresnak zer diren. Erramintak +irteera profila. Erreminten diseinu eta erabilpena
ARLO/JAKINTZAGAIEN ALDERDI INSTRUKZIONALA. PROZESUEN TREBAKUNTZA	URTARRILAK 27 LH (9:30-11:30)	<ul style="list-style-type: none"> - Arlo/jakintzagaien alderdi instruktionalaz hausnartzea: prozesuak eta oinarritzko ezagutzak. - Hauek testuinguru kompetentzialetan neurtuko diren prozesuen beharrezko entremenedu gisa diseinatzea. - Eb. Kompetenzialaren aplikazioan txertatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Alderdi instruktionala. • Oinarritzko ezagutzak. • Testuinguru kompetentzialak. • Neurketak



	DBH(12:00-14:00)		
EBALUAZIO KOMPETENTZIALARAKO DISEINUA	OTSAILAK 24 LH (9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	Ebaluazio kompetentziala ebidentziatzeko uneen diseinuaz hausnartzea.	Ebidentzien diseinua. Eb. Tresna kompetentzialak.
EBIDENTZIEN JASOKETA, UNEAK		Ebaluazio tresna kompetentzialak diseinatzea eta bateratzea.	Tresnak adostu eta bateratu.
NEURKETAK ETA ERABAKIAK HARTZEA. HISTORIKOA	MARTXOAK 10 LH (9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen ibilbidearen inguruko historikoa jaso eta aztertzeke estrategiak partekatzea. - Neurketen unek diseinatzea ikasleen beharrei egokitzuz. - Eb. Kompetentzialaren aplikazioan txertatzea eta jasoketa unek zehaztea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen ebaluazioaren historikoa. • Neurketen unek
KOMPETENTZIALTASUNAREN BEGIRADA	APIRILAK 28 LH (9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	<ul style="list-style-type: none"> - Testuinguru kompetentzialak zer diren hausnartu eta ulertzea. - Hauei begirako ikasturteko antolaketa egitea ebaluazio irizpide anitzen konbinaziotik. - Eb. Kompetentzialaren aplikazioan txertatzea eta jasoketa unek zehaztea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Testuinguru kompetentzialak. • Ebaluazio irizpide anitzen konbinazio eta antolaketa. • Prozesuen identifikazioa. • Ebaluazio kompetentzialaren aplikazioa.
EBALUAZIO JARRAIA: NOIZ. NOLA TXOSTENAK	MAIATZAK 26 LH (9:30-11:30)	<ul style="list-style-type: none"> - "Edukietatik" ikuspegi kompetentziaerako bidea egitea. - Hiruhilekoetako txostenen begirada ulertzea eta hauek aztertuz erabakiak hartzea. - Aplikazioaren testuinguruan aplikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Begirada kompetentziala. - Ebaluazioa jarraia. • Ebaluazio txostenak



	DBH(12:00-14:00)		<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio kompetentzialaren aplikazioa.
IKASTURTEAN ZEHAR SORTUTAKOAK IKASTETXEEN ARTEAN PARTEKATZEA: IKASTETXEEN ARTEKO MONOGRAFIKO LABURRAK	EKAINAK 9 LH (9:30-11:30) DBH(12:00-14:00)	<ul style="list-style-type: none"> Egindako bidearen hausnarketa partekatua egitea. Sortutako tresna, erreminta, errubrikazio eta materialak partekatzea. Ebaluazio kompetentzialerako aplikazioaren erabilpenaren inguruko elkarjartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ibilbidearen hausnarketa Sortutako materiala partekatzea - Aplikazioaren erabilpenaren inguruko elkarjartzea



Helburuak

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Ikastetxean hartzen diren erabaki curricularren garrantziaz eta ondorioez jabetzea. Erabaki curricularrak modu bateratu eta hausnartuan hartzearen garrantzia. Ikasturteko antolaketa curricularren ondorioak identifikatzea ikasleen garapen prozesuan
- ✓ Programazio didaktikoek zehazten duten marko curricularra aztertzea. Ikaslea erdigunean jarriz, markoaren koherentziaz hausnartzea.
- ✓ Ikas egoeren ebaluazio planteamenduaz hausnartzea diseinutik. Ebaluazio tresnen identifikazioa. Ebaluazio erraminten diseinu eta aplikazio bateratua. Irteera profilarren begirada txertatzea.
- ✓ Arlo/jakintzagaien alderdi instruktionalaz hausnartzea: prozesuak eta oinarrizko ezagutzak. Hauek testuinguru kompetentzialetan neurtuko diren prozesuen beharrezko entrenamendu gisa diseinatzea.
- ✓ Eb. Kompetentzialaren aplikazioan txertatzea.
- ✓ Ebaluazio kompetentziala ebidentziatzeko uneen diseinuaz hausnartzea. Ebaluazio tresna kompetentzialak diseinatzea eta bateratzea.
- ✓ Ikasleen ibilbidearen inguruko historikoa jaso eta aztertzeke estrategiak partekatzea. Neurketen uneak diseinatzea ikasleen beharrei egokitzuz. Eb. Kompetentzialaren aplikazioan txertatzea eta jasoketa uneak zehaztea.
- ✓ Testuinguru kompetentzialak zer diren hausnartu eta ulertzea.
- ✓ Hauei begirako ikasturteko antolaketa egitea ebaluazio irizpide anitzen konbinaziotik.
- ✓ Eb. Kompetentzialaren aplikazioan txertatzea eta jasoketa uneak zehaztea.
- ✓ “Edukietatik” ikuspegi kompetentzialerako bidea egitea. Hiruhilekoetako txostenen begirada ulertzea eta hauek aztertuz erabakiak hartzea. Aplikazioaren testuinguruan aplikatzea.
- ✓ Egindako bidearen hausnarketa partekatua egitea.
- ✓ Sortutako tresna, erreminta, errubrikazio eta materialak partekatzea.
- ✓ Ebaluazko kompetentzialerako aplikazioaren erabilpenaren inguruko elkarjartzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Ikastetxean erabaki curricularrak modu bateratu eta hausnartuan hartu dira ikasleen garapen prozesuan Ikasturteko antolaketa curricularren ondorioak identifikatuz. Hauek Hezkuntza proiektuaren Erabaki Curricularren atalean jaso dira.
- ✓ Programazio didaktikoek zehazten duten marko curricularren koherentziaz hausnartu da.
- ✓ Ikas egoeren ebaluazio planteamenduaz hausnartu da diseinutik eta ebaluazio tresna Ebaluazio erraminten diseinu eta aplikazio bateratua egin da.
- ✓ Arlo/jakintzagaien alderdi instruktionalak identifikatu eta pautatu dira.
- ✓ Eb. Kompetentzialaren aplikazioan programazioa eta ikas egoeren inguruko datuak txertatu dira.
- ✓ Testuinguru kompetentzialak zer diren ulertu da eta hauen diseinua egin da.
- ✓ Hauei begirako ikasturteko antolaketa egin da ebaluazio irizpide anitzen konbinaziotik.
- ✓ Ebaluazio kompetentziala ebidentziatzeko uneak identifikatu eta jaso dira.
- ✓ Ikasleen ibilbidearen inguruko historikoa jaso eta aztertzeke estrategiak adostu dira.
- ✓ Neurketen uneak diseinatu dira, ikasleen garapenari egokitzuz.
- ✓ Eb. Kompetentzialaren aplikazioan neurketak jaso dira.



- ✓ Hiruhilekoetako txostenen begirada ulertu da eta hauek aztertuz erabakiak hartu dira ikasleen garapenaren inguruan. Aplikazioaren testuinguruan aplikatu da.
- ✓ Egindako bidearen hausnarketa partekatua egin da.
- ✓ Sortutako tresna, erreminta, errubrikazio eta materialak partekatu dira.
- ✓ Ebaluazio konpetentzialerako aplikazioaren erabilpenaren inguruko elkarjartzea egin da.

Parte-hartzen duten ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren konpromisoak

Aresian esan bezala, ebaluazio konpetentzialaren hezkuntza aplikazioa eskuragarri egongo da irailean “Ebaluazio konpetentzialaren praktika komunitate profesionalean parte hartuko duten ikastetxeentzat.

Praktika komunitate honetan parte hartzeko hainbat baldintza eta konpromiso eskatzen dira ikaskuntza prozesua emankorra izan dadin. Praktika komunitate honetan parte hartuko ez duten ikastetxeei ikasturtean zehar, 3 saio orokor eskainiko zaizkie aplikazioaren prozesua pixkanaka barneratu dezaten. Izan ere, helburua bada hurrengo ikasturtean ibilbidean murgildu daitezen.

Hona hemen **baldintzak**:

- Erabaki curricularrak hartuak izatea: promozio eta titulazio erabakiak, ebaluazio irizpideen antolakuntza, ebaluazio irizpideen pisuak eta konpetentzia espezifikoen pisuak.
- Programazio didaktiko eta ikas egoeren eguneratzea 77/2023 dekretuaren arabera.
- Gelako lanketa konpetentziala izatea.

Konpromisoei dagokionez:

- Ebaluazio konpetentzialaren aplikazioa etapa osoan inplementatuko da.
- Ebaluazio konpetentzialaren datuak aplikazioaren bidez jasotzea.
- Ebaluazio txostenak ebaluazio konpetentzialaren aplikazioaren bidez egitea.
- Saioetan bertaratzeko konpromisoa eta bertan parte hartze aktibo izatea.
- Praktika komunitatea ikaste prozesu gisa ulertuta, ikaskuntza prozesua hobetuko duten ezagutzak eta baliabideak praktika komunitatean partekatzea.
- Praktika komunitatea ikaste prozesu gisa ulertuta, ikaskuntza prozesua hobetuko duten ezagutzak eta baliabideak ikastetxe mailan hedatzeko bidea bermatzea hobekuntzarako ezinbestekoak diren uneak eta guneak diseinatuz.

Arduraduna

Formakuntzaren arduradunak Nekane Azurmendi Jimeno (mn.azurmendi@berritzeguneak.eus) eta Aitziber Lopez de Sabando Troncoso (a.lopezdesabando@berritzeguneak.eus) dira, Berritzegune Nagusiko Curriculum eta Metodologia esparruko akolkulariak.

Antolaketa-alderdiak

Adierazi bezala, ikastetxeak oso une desberdinetan daude ebaluazio konpetentzialaren bidean. Hori horrela izanik, izena emango duten ikastetxeak ebaluazio konpetentzian egin duten ibilbidearen arabera multzokatuko dira. Bi talde sortzea proposatzen da: “Ebaluazio konpetentzialaren sakontasunean” eta “ebaluazio konpetentzialaren hastapenetan”. Horrek talde bakoitzaren idiosinkrasiari erantzuteko diseinua ekarri du.



1. Ebaluazio kompetentziala sakotasunean

Talde honetan helburu nagusia izango da ikastetxean abian jarritako bideari euskarria ematea eta aplikatiboa erabiltzeko beharrezkoa den jarraipen eta aholkularitza jasotzea, 77/2023 Dekretuak jasotzen duen moduan, ikaslearen ebaluazio jarraian begirada jarri eta honen analisia eginez, doitutako erantzun bat diseinatu ahal izateko. Hemen ere, ikasleen aurrerapena ebidentziatuko duten tresnen identifikazioa, planifikazioa eta jasoketa egiteko estrategiak garatuko lirateke. Ebaluazio kompetentzialaren aplikazioak, ikasleen neurketa eta ebidentzien historiko bat biltzea ahalbidetzen duen heinean, hau modu egokian ulertu eta erabiltzea behar beharrezkoa da.

Ebaluazio kompetentziala sakotasunean taldeak **bederatzi saio izango ditu** ikasturtean zehar, hileroko maiztasunarekin. Hona hemen datak: urriak 7, azaroak 11, abenduak 2, urtarrilak 20, otsailak 3, martxoak 3, apirilak 7, maiatzak 12 eta ekainak 2.

2. Ebaluazio kompetentzialaren hastapenetan

Talde honetan egongo den lanketaren helburu nagusia izango da, ikastetxean dagoeneko abian jarri diren bideak identifikatzea horiek oinarri eta abiapuntu harturik, 77/2023 dekretuak ebaluazio kompetentzialaren inguruan ezarritakoaren markoan, praktika egokienak izan daitezkeenak identifikatzea aurrera pausoak diseinatu ahal izateko. Modu honetan, kompetentzietan oinarritutako eskaintza pedagogikoa eta metodologikoa egokitzen eta doitzen joango gara eta hau guztia, aplikazioan modu eraginkorrean jasotzeko bideak jorratuko dira.

Talde honetako ikastetxeek bederatzi saio izango dituzte honako data hauekin: urriak 21, azaroak 25, abenduak 9, urtarrilak 27, otsailak 24, martxoak 10, apirilak 28, maiatzak 26 eta ekainak 9.

Lekua

Erkidego mailan, saio bakarra egitea aurreikusten da Ebaluazio Kompetentziaren PKPko talde bakoitzarentzat. Hori dela eta, garrantzitsua da geografikoki erdigunean dagoen lekua hautatzea ikastetxeentzat ahalik eta gertuen egoteko.

Espazioari erreparatuta, inportantea den beste alderdi bat ere kontuan hartu da: taldeka lan egiteko aukera. Izan ere, saio bakoitzak atal orokor bat izango du eta, ondoren, ikastetxeko ordezkariak elkarrekin lan egiteko aukera emango duen espazioa behar da.

Parte-hartzaileen profila

"Praktika komunitate profesionalak (PKP) zeregin erabakigarria dute irakasleen garapen profesionalean, ezagutza eta praktika eraginkorrak partekatzen diren lankidetzaren ingurunea erraztuz, eta horrek irakaskuntza eta ikaskuntza etengabe hobetzea dakar" (Stoll, Harris, & Handscomb, 2016).

Ebaluazio kompetentzialaren aplikazioa ikastetxeen berriztapenerako palanka izan dadin, Ebaluazio kompetentzialaren PKPan, klaustro mailan eragin dezaketen profesionalak behar dira. Horregatik, Ebaluazio kompetentzialaren PKPan lehenesten den profesional profila definitu da:



- Ikastetxearen lidergoa eta erabakiak hartzeko eskumena duten profesionalak.
- Berriztapenean figura gako direnak eta ikastetxea bere osotasunean ordezkatu dezaketenak.

Horrela bada, Ebaluazio konpetentzialaren PKPan honako figura hauek lehenetsiko dira: zuzendaria, ikasketa burua, BeA figura, zikloko koordinatzaileak edota mintegi buruak.

Izena ematea Heziketa aplikazioaren bidez egingo da eta ikastetxeko **zuzendariak kudeatuko** du.

Idazkaritza: Berritzegune Nagusiko idazkaritza → bnidazkaritza@berritzeguneak.eus → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ hirugarren begirada](#)

Kalitatea Hezkuntzan: Kudeaketa aurreratua

Deskribapen orokorra

Ikastetxearen kudeaketa hobetzea ezinbestekoa da hezkuntza kalitatea eta ikasleen emaitzak bermatzeko. "Kalitatea Hezkuntzan – Kudeaketa Aurreratua Sareak", Kudeaketa Aurreratuaren eredia ezagutzea eta ikastetxeetan ezartzea du helburu. Sare honen bidez, kudeaketa eraginkorra lortzeko bide desberdinak landuko dira, prozesuka lan egitearen abantailak aztertuz eta praktika eraginkorrak partekatuz.

Ikastaroan zehar, parte-hartzaileek ikastetxearen kudeaketarako autodiagnostikoa, kontrastea eta plan estrategikoa sortzea edo berritzea landuko dute. Halaber, IHP-ren eguneraketa, ikastetxeko prozesuen berrikuntza eta "KH" aplikazioan txertatzea ere egingo dituzte. Eduki teorikoak eta praktikoak uztartuko dira, ikastetxeen antolaketa orekatua eta eraginkorra bermatzeko.

Metodologia parte-hartzailea eta elkarlana sustatzen dituena izango da, berdinen arteko ikaskuntza eta praktika eraginkorrak elkartrukatuz. Saioak aurrez aurre eta online egingo dira, eta urtean bi aldiz praktika eraginkorren saioak egingo dira. Aholkularitza zuzena eskainiko da klaustroaren kohesioa eta zuzendaritza erreleboa lantzeko.

Helburuak

Praktika-komunitatearen helburuak

- ✓ Ikastetxeetan diziplinartekotasuna ezartzeko zein garatzeko prozesua erraztea.
- ✓ Ikastetxeen artean esperientzia, material eta baliabide didaktikoen eta jardunbide egokien trukea sustatzea.
- ✓ Laguntza eta aholkularitza ematea praktika-komunitate baten bidez, hezkuntza esku-hartzea diziplinartekotasunaren ikuspegitik garatzeko.
- ✓ Ikaskuntza partekatua eta irakasleen etengabeko prestakuntza bultzatzea..

Parte-hartzaileen ikaskuntza helburuak:

- ✓ Kudeaketa Aurreratuaren eredia ezagutzea eta aplikatzea.
- ✓ Prozesuka lan egiteko metodologiak ikastea eta ezartzea.



- ✓ Praktika eraginkorrak identifikatzea eta partekatzea.
- ✓ Lidergo partekatua eta ikuspegi estrategikoa garatzea.

Ikastetxean espero den inpaktuaren adierazleak:

- ✓ Kudeaketa eraginkorra lortzea eta ezartzea.
- ✓ Prozesuen hobekuntza eta koherentzia handitzea.
- ✓ Praktika eraginkorren aplikazioa eta lidergo partekatua indartzea.
- ✓ Ikuspegi estrategikoa eta antolaketa hobetzea ikastetxean.

Parte-hartzen duten ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren konpromisoak

Ikastaro hau ikastetxeko zuzendaritza taldeei, "Kalitatea Hezkuntza" arduradunei, eta BeA figura edo Berrikuntza arduradunei zuzenduta dago. Parte hartzen duten ikastetxeek lan ildoetan parte hartzeko, praktika eraginkorrak eskaintzeko edo jasotzeko, eta sortutako materialak partekatzeko konpromisoa hartzen dute.

Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak

Hezkuntza Sailaren konpromisoak

Arduraduna

Formakuntzaren arduraduna Iñaki Ruiz Estornell (bnkalitatea@berritzeguneak.eus; bnlidergoa@berritzeguneak.eus) da, Berritzegune Nagusiko Ludergo esparruko aholkularia.

Antolaketa-alderdiak

Ikastaroa aurrez aurre eta online egingo da, eta ikasturte osoan zehar luzatuko da. Kronograma honakoa izango da:

- **Ohiko bilerak:** 24/25 ikasturteko zenbait ostegunetan (Egutegia zehazteke dago).
- **Azpitaldeen lana:** Hiru hilabete behin Sarekideen bilkura (ohiko bilera).
- **Praktika eraginkorrak:**
 - Teoriatik Praktikara: Urtarrila/otsaila.
 - BerritsuTaberna: Maiatza (urtero lurralde batean – 24/25 Ikasturtean Araban).

Parte-hartzaileek izena ematea ikastetxeko zuzendariaren bidez egingo dute.

Idazkaritza: b07getxo@berritzeguneak.eus; bnlidergoa@berritzeguneak.eus) → formakuntza-jarduera ziurtagarria

[↑ hirugarren begirada](#)

Eskola Txikiak Sarea



Komunitatear enxedeak	<p>Eskola Txikiak dira landa eremuko herri eta auzo txikietako eskola publiko eta euskaldunak. Hezkuntza ikuspegi bat partekatzen dugu eta hori egikaritzeko lanean dihardugu. Praktika komunitate honen helburua beraz, partekatzen dugun hezkuntza ikuspegi honetan sakontzea eta hauek eguneroko praktikara eramateko bideak elkarrekin lantzea da.</p>
komunitatear enhelburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Eskola Txikietan formaziorako ditugun beharrak diagnostikatzea eta horien arabera formazio planak pentsatzea eta antolatzea. - Eskola Txikion sarea osatzen dugun eskolen arteko harremanasendotzea eta elkarrekintzarako eta kooperaziorako bideak pentsatzea eta antolatzea. - Eskola Txikiok amankomunean ditugun beharrak aztertzea eta horiekasetzeko bideak elkarrekin pentsatu eta proposamenak egitea. - Eskoletan egiten den praktikaren eta gure hezkuntza ikuspegiaren arteko kontrasteak eta loturak markatzea, zertan eta zertarako arigaren definitzea, alegia. - Eskola txikietako hezkuntza ikuspegia ikastetxean lantzeko bidelaguntza sustatzea. - Eskolako praktika metodologikoen inguruko hausnarketaren bitartez, ikas prozesuak hobetzeko egin beharreko hobekuntza eta doikuntzak bultzatzea.
Praktika-komunitatearen ezaugarriak	<p>Eskola Txikietan urteak daramatzagu, sarean eta elkarlanean lan egiten, gaur egun garena eskolen artean egindako lanaren fruitua da eta orain arteko ibilbidea aintzat hartuz Eskola txikien elkarlanerako eta elkarlaguntzarako bideetan sakontzea da gure asmo eta nahia.</p> <p>Eskola Txikien sarea, ezaugarri jakin batzuk eta hezkuntza ikuspegi zehatz bat partekatzen duten eskolen lantalde bat da. Bertan parte hartzen duten eskolek esperientziak, ezagutzak eta baliabideak partekatzen dituzte eta amankomunean eduki ditzakegun beharrei elkarrekin erantzuten ahalegintzen gara.</p> <p>Eskola Txikien Sarea osatzen duten guztiak daude deituta praktika komunitate honetan borondatez parte hartzera. Baina behin parte hartzeko konpromisoa hartuta, ezarritako konpromisoak bete beharko dituzte.</p> <p>Formazio saioak Eskola Txikien koordinazio taldeko kideek dinamizatu eta gidatuko dituzte. Honetaz gain, eskolen arteko lankidetzak eta elkarlan autonomoa ere sustatuko dira.</p>
Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mintegi hauetan parte hartuko duen ordezkari bat edo batzuk izendatzea eta mintegian aktiboki parte hartzea. - Mintegietan landutakoa eskolara eramatea eta klaustroandagokion lanketa egitea. - Mintegian definitzen diren, proposamenak eskolan martxan jartzen ahalegintzea



	HEZKUNTZA SAILA - Norbere eskolako dokumentuak, baliabide didaktikoak, esperientziak, praktikak... sarekideekin partekatzea
Hezkuntza Sailaren konpromisoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sarearen koordinatzaileen bitartez laguntza eta aholkularitzaematea. - Praktiketako komunitateko parte-hartzaileentzako prestakuntza-etaikaskuntza-jarduerak antolatzea. <p>Praktika komunitatearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak, orientabideak eta baliabideak prestatzea.</p>
Formazioaren edukiak/praktika komunitateteko ekintzak	<p>2024-2025 ikasturteko mintegietan Eskola Txikiek partekatzen dugun hezkuntza ikuspegitik jorratuko diren eduki eta ekintzak hauek izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskola txikietako hezkuntza ikuspegia eskolan lantzeko bidelaguntza. - Eskolara etortzen diren maisu-maistra berrientzako harrera plana etabidelaguntzarako estrategiak. - Maisu-maistrentzako barne formazio saioak antolatu eta gidatzeko estrategiak. - Komunitatearentzako formazio saioak antolatu eta gidatzeko estrategiak - Irakasleen funtzio eta rolen inguruko hausnarketa. - Eskola Txikien arteko elkartrukaketa eta zabalkundetik jasotakoa eskolan nola jorratu. - Ikasle guztiak irakasle guztion ardura izan daitezen estrategiak, antolaketa eta ekintzen diseinua. - Adin aniztasuna bultzatzeko antolaketa eta estrategiak - Denbora eta espazioaren ikuspegia eta antolaketa - Ebaluazioa: nork, zer, zertarako eta nola. - Eskolaren behar eta erronken detekzioa eta hauei erantzuna ematekoplana. <p>Eskolako formazio plana.</p>
Hartzaile potentziala	Mintegi hauek Eskola Txikien Sareko kide diren ikastetxeak
Formazio mota edo ibilbidea	Mintegia: hilen behin, 3 orduko saio bat. Ikasturtean 10 saio.
Formatua	Aurrez aurre
Antolaketa	- Bizkaia eta Araban lurraldeka Gipuzkoan ikastetxe taldeka
Ordu kopurua	30 ordu
Kronograma	Hilero (irailetik ekainera) hiru orduko saio bat egingo da: Arabian asteartetan 9:30-12.30



HEZKUNTZA SAILA		DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
	Bizkaian asteazkenetan 10:00-13.00 Gipuzkoko hiru taldeetan: astelehenetan 9:30-12:30	
Arduraduna		
Idazkaritza	bnidazkaritza@berritzeguneak.eus	
Izena emateko prozedura	Zuzendariaren bidez	

[↑ hirugarren begirada](#)

Amara Berri

Komunitatearen xedea	Amara Berri Sarea: HH-LH-DBH.
Komunitatearen helburuak	Amara Berri Sarea mantentzeko egiturak bermatzea, elkarlanean laguntza eta aholkua emanez.
Praktika-komunitatearen ezaugarriak	Ikastetxeen arteko lan taldea; LH eta DBHn eremuetan lanean esperientzia partekatzea.
Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak	Bileretan adostutako helburuak betetzea. Sarea beste ekarpenekin aberastea.
Hezkuntza Sailaren konpromisoak	Berritzegune Nagusiko aholkularien bitartez laguntza eta aholkularitza ematea. Praktiketako komunitateko parte-hartzaileentzako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak antolatzea.
Formazioaren edukiak/praktika komunitateteko ekintzak	Jardunaldiak. Zuzendaritza Taldeen bilerak. Topaketak. Mintegiak. Sareko ikastetxeen arteko bisitak. Sarekoak ez diren Hezkuntza eragileen bisitak. -EHUrekin Ikerketarako kolaborazioa. Informazio eskaera anitzei erantzuna.
Hartzaile potentziala	Amara Berri Sareko kideak diren ikastetxeak
Formazio mota edo ibildibidea	<ul style="list-style-type: none"> - Jardunaldia: Sareko ikastetxeetan berriak diren irakasleak. - Mintegia (HH, BeA, Zientzia, Hizkuntzak, Arte, Musika, Ingelera, Aholkulariak,...) - Topaketa (Zuzendaritza Taldeak, Departamentu edo eremuka) - Monografikoak, Mintegietako gai konkretuen inguruan (Ebaluazioa, testuinguru bakoikatzaren hausnarketa,...)
Formatua	Erdipresentziala
Antolaketa	<ul style="list-style-type: none"> - Zentralizatua - Lurraldeka, behar izan denean (BeA).
Ordu kopurua	Zehazteke



	HEZKUNTZA SAILA	DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Kronograma	<ul style="list-style-type: none"> - Jardunaldia: Sareko ikastxeetan berriak diren irakasleak, ikasturte hasieran behin, aurretik eskatutako ikastetxeetan. - Zuzendaritza Taldeen bilerak, hilean behin. - Topaketak, ikasturtean bitan, hasieran eta erdian, Departamentu bakoitzeko. - Mintegiak: HH bi hilabetero; BeAtarrak, azken bi urtetan maiztasun handiz; beste Mintegiak, ikasturtean gutxienez behin eta beharren arabera. 	
Arduraduna	Miren Edurne Guerrero González mire.edurneugalde@irakasle.eus	
Idazkaritza	bnidazkaritza@berritzeguneak.eus	
Izena emateko prozedura	Zuzendariaren bidez	

[↑ hirugarren begirada](#)